


• Sin las mujeres, Eibar no sería lo que es • Emakumerik gabe, Eibar, ez litzateke gaur egungoa izango

Zaida Fernández Pérez • Savina Lafita Solé • Luz Maceira Ochoa

# Emakumerik gabe, Eibar, ez litzateke gaur egungoa izango

EMAKUMEEN AZTARNAK  
EIBARKO INDUSTRIALIZAZIO PROZESUAN





«Emakumeen aztarnak Eibarko industrializazio-prozesuan» proiektuaren ikerketa-txostena. Zaida Fernández Pérez, Savina Lafita Solé eta Luz Maceira Ochoak, Emakumearen Mahaiaren eskariz, Eibarko udaletxeko Berdintasun Zerbitzuak hala eskatuta egindako lana da (2014ko azarotik 2016ko martxora arte).

***Eibar, 2016ko ekaina***

Zaida Fernández Pérez  
Savina Lafita Solé  
Luz Maceira Ochoa



Emakumerik gabe,  
Eibar,  
ez litzateke gaur egungoa izango

EMAKUMEEN AZTARNAK  
EIBARKO INDUSTRIALIZAZIO PROZESUAN

# eskertzak

lkerketa-prozesuan parte hartu eta beren esperientziak, bizipenak, iritziak, anekdotak, hausnarketak, ideiak, emozioak... gu-rekin partekatu dituzten emakume guztiei. **Eskerrik asko zuen historia pertsonalaren eta kolektiboaren zati bat oparitzeagatik.**

- Eibarko Emakumearen Mahaian parte hartzen dutenei, bertatik irten delako ekimen eta asmo hau, eskerrik asko hainbat emakume-talde eta elkarteri ere, eta baita, norbanako moduan, oroitzen sozialetan proiektu honetan, fase batean zein bestean, integratu diren emakumeei ere.
- Armagintza Museoko langileei, Marina Barrena eta Nerea Alustizari bereziki, museoan sartzeko aukera eta bisita gidatua eskaintzeagatik eta informazio baliotsua eta babesa emateagatik, proiektu hau erraztuz.
- Eibarko Udal Liburutegiari lan hau egiteko beharrezko materiala uzteagatik.
- Eibarko Udal Artxiboari lan hau egiteko material fotografikoa emateagatik.
- Ego Ibarra Batzordeari informazio garrantzitsua ematearren.
- Goi Argiko emakumei, elkarrizketa egiteko euren elkartean hartzeagatik.
- Arantza Lasa Astolari, lan honi, gogo biziz eta elkarkidetasunez, abala emateagatik.
- Untzagako Jubilatuen Etxeari, talde-oroitzen saioentzat gune atsegina eta eskuragarria eskaintzeagatik.
- Gorka Castrillori, herrian zehar gidari jarduteagatik eta, batez ere, saioetako batean parte hartzeagatik, bere Refotografia proiektuaren partedun izateko aukera eskainiz.
- Izaskun Rodríguez Elkorori, egindako dinamizatzailerengatik, taldeko lan-saioak zabaltzen laguntzeagatik eta babesa eta laguntza eskaintzeagatik.
- Marijose Lasa Dorronsoro Berdintasun Zerbitzuko Teknikariari, proiektu hau babestu eta bultzatzeagatik eta proiektuan sinesteagatik.
- Marian Hernández Martíni, testuaren azken berrikusketa egiteagatik.
- Eta, jakina, talde-oroitzen saioetan gogoz parte hartu duten guztiei: América Vargas, Arantza Arrieta, Arrate Aranzeta, Arrate Balentziaga, Arrate Iturralde, Aurora Baskaran, Begoña Narbaiza, Celsa Díaz, Elsa Ezker, Espe Zabala, Esther Gisasola, Josefina Zabalza, Leticia Martínez-Alcocer, Karmen Apellaniz, Mari Ángeles Igartua, Mariaje Agirregomezkorta Etxebarria, Margarita Olañeta, Marijose Vargas, Marian Hernández, Mechy Arkalis, Mercedes Iralagoitia, Nerea del Campo, Nerea Alustiza, Nerea Zabala, Pilar Orozko Arrillaga, Pristila Valderrama, Rosa Goenaga, Tere Gantxegi eta Yolanda Sarasqueta.

<b>1. Emakumerik gabe, Eibar, ez litzateke gaur egungoa izango</b>	<b>7</b>
• Kontakizun hau nondik dator?	<b>8</b>
• Zergatik gogoratu Eibarko industrializazio-prozesua?	<b>10</b>
• Testuinguru eta ikuspuntu historikoak	<b>16</b>
<hr/>	
<b>2. «Eibar» ezberdinak egon dira...</b>	<b>23</b>
• Gremioen Eibar	<b>23</b>
• Eibar industrialala	<b>35</b>
• Zerbitzuen Eibar	<b>62</b>
• «Beste sasoi bat zen»	<b>65</b>
<hr/>	
<b>3. Industrializazio-prozesuaren bizipenak</b>	<b>78</b>
• Emakumeen lanaren eta esperientziaren gakoak	<b>78</b>
- Lan-oparotasuna	<b>80</b>
- «Eginez ikasten genuen»	<b>84</b>
- Emakumeek lan asko egin zuten, eta gizonak baino askoz gehiago erakutsi behar izan zuten: «Lan, lan eta lan, gogotik egin zen lan!»	<b>86</b>
- Exijentzia handiagoa, baina apaltasunez	<b>91</b>
- Inguruko laguntzarekin	<b>93</b>
- Negozioa/ekintzailetza zen hura?	<b>94</b>
- Emakumeak borrokalariak izan dira beti	<b>96</b>
• Emakumeen ikuspegia industriaren gainean	<b>96</b>
- Industria-inguru mesedegarria emakumeentzat	<b>97</b>
- «Beste industria bat ere egon da»	<b>102</b>
- Industrializazio-prozesua bidegabea izan da emakumeekin: «gauzak horrela ziren»	<b>106</b>
<hr/>	
<b>4. Industrializazio-prozesuan emakumeek izandako parte-hartzearen memoria eta ikuspena</b>	<b>115</b>
• Industria-iraganaren trazuak	
- Zer gelditzen da industria hartatik?	<b>116</b>
- Tokiko memoria, industriaren memoria, eta emakumeen ekarpenak?	<b>117</b>
- Emakumeen lanaren aitortza	<b>120</b>
• Emakumeen aztarnak industrializazio-prozesuan	<b>124</b>
- Emakumeen aztarnak sare ekonomikoaren indar eragile gisa	<b>125</b>
- Aztarnak bizitzari eusteko zereginean	<b>126</b>
- Emakumeen aztarnak lan-aukeren irekieran eta berdintasunezko lan-eremu batean ahalduntzeko	<b>126</b>
- Emakumeen aztarna Eibarko ondarean	<b>132</b>
• «Eibarren emakumeek egin dutena ezagutarazi dadila»	<b>134</b>
<hr/>	
<b>epilogo</b>	<b>135</b>
<b>bibliografia erreferentziak</b>	<b>140</b>
<hr/>	

# egileak

## **Zaida Fernández Pérez**

Soziologian lizentziaduna da, Giza Ikerketa Ereduak eta Arloak aurre-doktoretza eta Ikasketa Feministak eta Generokoak Masterra egin zituen EHU-n. Militante feminista da eta hezitzailea EAEko Ahalduntze Eskoletan.

## **Savina Lafita Solé**

Gizarte eta Kultur Antropologian lizentziaduna da Bartzelonako Unibertsitatean, eta Ikasketa Feministak eta Generokoak Masterra egin zuen EHU-n.

## **Luz Maceira Ochoa**

Hezkuntza Ikerketetan Doktorea da CINESTAV-en eta Aditua Genero Ikasketetan Mexikoko Kolegioan. Generoa eta Memoria Sozialari buruzko Doktoretza ondoko ikerketa egin zuen EHU-n.

---

Argitaratzen du:

**Eibarko Udaleko Berdintasun Zerbitzuak.**

Azaleko argazkia:

**1945. urtea. josteko makinaren buruari eta plakari pinturako azken ukituak emateko gunea. ALFA.**  
(Eibarko Udal Artxiboa).

Diseinua eta maketazioa:

**Nekane Akarregi Amutxastegi/11 barri.**

Inprimategia:

**Lizaso Grafikak - Zornotza.**

Lege Gordailua: **BI-02451-2019**

ISBN: **978-84-09-14766-3**



## Emakumerik gabe, Eibar, ez litzateke gaur egungoa izango

EMAKUMEEN AZTARNAK  
EIBARKO  
INDUSTRIALIZAZIO  
PROZESUAN

**E**makumeak betidanik egon dira eta egin dute lan –baita oraindik ere– Eibarko bizi-esparru guztietan: tailerretan, ofizietan eta eremu pribatuan ere bai, etxeko lanetan. Emakumeak izan dira familien eta, orohar, Eibarko ekonomiaren oinarri.

Emakumeek egindako lan hori gabe familiak probreagoak izango lirateke. Eibar enpresarialaren sostengua etxean lan egiten zuten emakume guzti horietan zegoen. Ezinbestekoa da emakume eibartarrek herriko industriaren alde emandakoa jasota egotea.

Enpresetan, kargurik garrantzitsuenak, zergatik egon dira beti gizonezkoen esku, enpresa horietan horrenbeste emakume lanean egonik ere? Sinetsiko al dugu denek onartzen zutela hain bizimodu prekario, esplotatzaile eta desberdina?

Industrian gertatu ziren bidegabekeriak aitortu eta aztertu egin behar dira, kasu batzuetan, gainera, haren ondorioek indarrean diraute, eta salatu egin behar dira. Adibidez, euren etxetako tailerretan lan egin zuten emakumeek ez zuten sekula Gizarte Segurantzarik izan, orain jubilaziorik gabe daude, eta hori, sasoi hartako lan-mota eta industria-garapenaren ondorioa da.

Emakumeak berdintasun ezaz eta zituzten –edo ez– lan-baldintza ezberdinez ohartzen ote ziren jakitea garrantzitsua da, eta gaur egun ulertzea; iraganeko esperientzietatik ikasi egin daitekeelako, eta aldaketak sustatu ere bai.



**Emakumearen Mahaiaren bilera**

## **Kontakizun hau nondik dator?**

Eibarko Emakumearen Mahaiak, historia ikertu eta tokiko memoria genero-ikuspegitik eraikitzeko asmoz, «Eibarko Emakumeen aztarnak industrializazio-prozesuan»<sup>1</sup> izeneko proiektua burutzea erabaki zuen. Kanpo-talde baten koordinaziopean<sup>2</sup>, eta udaletxeko Berdintasun Zerbitzuaren babesarekin, deialdi irekia egin zen emakumeen esperientzia eta protagonismoa gogoratu eta aztertzeko.

Emakumeen memoriaren inguruko proiektua abiatu zen horrela, XX. mendeko Eibarren historiaren garapen ekonomiko, soziokultural, demografiko eta urbanistikoaren ezaugarrietako baten inguruan: industrializazio-prozesua; baina emakumeen bizipen, ideia eta begiradekin eraikitakoa, eta ikuspuntu feminista batetik pentsatua.

---

1. «Huellas de las mujeres y del feminismo» Zaida Fernandez-en lana da. Tokiko emakumeen memoria-entzat garrantzitsuak eta esanguratsuak diren gertaera, espazio eta denboraren (errealak edo sinbolikoak) identifikazioari erreferentzia egiten dio. Informazio gehiago nahi izanez gero ikus Zaida Fernández Pérez-e lan hauek: *Emakumeen aztarnen mapa Basaurin. Mapa de las huellas de las mujeres en Basauri*. Basauriko Udala, Basauri, 2011; *Emakumeen eta mugimendu feministaren oroimena Ondarroan, euren aztarnen bitartez*, 2012; *Aztarna Feministak eta Emakumeen Aztarnak. Gure Borrokaren Oroimena. Huellas feministas y de mujeres. Memoria de nuestra lucha*, Asamblea de Mujeres de Ermua, 2014; eta Zaida Fernández Pérez-ek eta Luz Maceira Ochoak elkarrekin egindako hauek: «Gaileta-egileak eta gehiago: bizipenetatik historiari. Emakumeen aztarnak Errenteriako industrializazio-prozesuan (XIX. eta XX. mendeetan). Galerías y más: desde las vivencias hacia la historia Huellas de las mujeres en el proceso de industrialización de Errenteria (siglos XIX -XX)», *Bilduma-n*, 27. Zkia., 2015.

2. Zaida Fernández Pérez, Savina Lafita Solé eta Luz Maceira Ochoak osatua.





**Memoria kolektiboa lantzeko saioetako lan-prozesua**

Proiektu hau era parte-hartzailean burutu zen, eta bide ezberdinetatik egin ziren deialdia eta zabalkundea: iragarki-taulak, webguneak, tokiko egunkari eta aldizkariak, irratsaioak... Hainbat emakumek egin zuten bat deialdiarekin, eta urtebetean, batzuk modu puntaletan eta beste batzuk saio guztietan, (2014ko abendutik 2015eko abendura arte) oroitzeke saio kolektiboetan hartu zuten parte, euren oroitzapenak, ezagutza eta ikuspuntuak partekatzeko. Taldean partekatu, egiaztatu eta testuingururatu zituzten kontakizun ezberdinak, biografia indibidualak, esperientzia pertsonalak, lanekoak, taldekoak eta belaunaldiakoak, eta hainbat hamarkadatan Eiba-

rrek bizi izan zuten industrializazio-prozesuarekin era askotara lotutakoak<sup>3</sup>. Taldeko prozesu horretan, iraganeko bizipenak eta gertaerak ikuspegi berrie-kin hartu ziren aintzat, aztertu eta orainaldian eman zitzaizen esanahia.

Horrek esan nahi du, testu honetan biltzen diren ekarpenek ez dituztela askotariko iritzi eta esperientziak soilik nahasten –zeinaren bidez osatzen den kontakizun bat, ñabardura gehiago edo gutxiagorekin eta batzuetan ideia anibalenteekin; baizik eta mitoak eta errealitateak elkartu egiten dira, bata eta bestea direlako emakumeak bizi izan dituzten erreferentzia eta gakoan parte,

3. Ikus Epilogo lan-prozesuaren inguruan gehiago jakiteko.

eta horietatik oroitzen dute. Kontakizun honetan denborak gurutzatzen dira eta gertaera historiko eta pertsonalak laburbildu. Parte-hartzaileen oroitzapenak nostalgiaz tindaturik eta iragandako denborak ilundurik egon badaitezke ere, taldean egindako kontrasteak oroitzapen haiek osatzen lagundu du eta, batez ere, beste modu batean begiratzen, paradoxak errekonozitzen eta emakume eibartarren bizitzako jarraitutasunak, hausturak eta eraldaketak aztertzen. Industrializazio-prozesuaren eta haren bizipenaren bertsio hau berrikuspen historikoen edo kontakizun ofizial zabalduenen bestelakoa da, eta, hain justu ere, berezitasun horretan dago haren aberastasuna.

Testu honetan, parte hartu duten emakumeen ahotsak, oroitzapenak eta adierazpenak komatxo artean edo letra etzanean agertzen dira, aparte; nahiz eta lerro guztietan jasotzen diren haien ideiak. Eibarko Emakumearen Mahaiaren erabakia izan zen kontakizuna taldean eraikitzea, eta horrela idatziko zela; horregatik ez da ideia edo kontakizunari lotutako izen propiorik azaltzen. Hala ere, eskertzetan, beren ikuspuntu eta esperientziak gogoratu eta kontatzea erabaki zuten emakumeak aipatzen dira.

## Zergatik gogoratu Eibarko industrializazio-prozesua?

Eibarko industrializazioa bertako garapena markatu duen fenomeno historiko moduan ulertzen da. Inguruko industria-izaera mendeetan zehar hedatu da, XV. mendean arma txuriak fabrikatzeko burdina lantzen hasten denetik industria-ekoizpen handiko XX. mende amaierara arte, neurri batean XXI. mendera arte irauten duena.

*Eibarrek taladrina usaina zuen. Eibarrera etorri nintzen lehenengo aldian neskabila nintzen eta gogoan dut autobusetik jaisterakoan... uf! Aizu, mendi usaina, garbia zerion leku batetik nentorren ni, eta motor usaina moduko zeozer igarri nuen, koipe usaina! Eta usain hori igarri nuen. Eta gelditu egin zitzaidan. Gero, hemen zaudenean, ohitu egiten zara.*

Gaur egungo Eibar ez da orain dela hamarkada batzuetakoa: ez du usain berezi hura; kaleak jada ez dira herrian bertan zeuden fabriketan sartu-irtenean zebiltzan ehunka beharginez osatutako «lan-jantzi urdinen ibaiak»; ez dira taillerretako zarata eta tintin-hotsak entzuten, eta sirenek ez dute «erlojuaren» funtzioa betetzen. Hala ere, industrien inguruko

historiaren alde ezberdinak nortasun-iturri bera dira. Urteetan zehar herriko bizitza eta paisaia osatu zuten fabrika, tailer eta industriaguneak erreferente dira eibartarron belaunaldi askoren memorian. «Hiri Armagina» edo «Tailer Hiria» bezalako gaitzizenak Eibarri lotuak daude, enpresen eta haiek sortuko zituzten lanerako espazioen iraunkortasun, eraldaketa edo desagertuak harago.

Industria funtsezko ardatza da emakumeentzat hainbat arrazoiengatik. Horien artean daude, Eibarko nortasuna eta harrotasuna adierazi duten hainbat produktu: armak, damaskinatua, bizikletak, josteko makinak eta grapagailuak esate baterako, eta badirudi Eibarren sinonimoak direla: «Damaskinatuaren teknika aplikatzen zitzairen objektuen publizitatea egiterakoan «Eibarko objektuak» edo «Objektu eibartarrak» moduko berbak erabiltzen ziren, gogoratzen dute.

Eibarri lotutako objektu ugari zegoen, baina, eta orain egiten dute azterketa, horietako bakoitzaren ospea desberdina izan da. Adibidez, josteko makinak edo

bizikletak, zeinak batez ere emakumeek lan egiten zuten enpresetan fabrikatzen ziren, beste produktu batzuk baino garrantzi txikiagoa izan dute. Zaila da armagintza moduko industriaren pisura iristea, hainbat mendetako ibilbidea eta esanahi geopolitiko eta ekonomiko handia izan dituelako eta sektore maskulinoa delako ia osotasunean.

1748an debekatu egin zitzairen emakumeei 1573. urtean sortutako «Real Fábrica de Armas» -eko kide izatea eta noizbehinka parte hartu izan zuten eremu batetik kanpo gelditu ziren. Aurreko mendeetan eta 1738. urtera arte, alargunek euren senarren postuak bete izan zituzten «Real Fábrica de Armas»-en, arma-maistra moduan. Baina arma-maisuek jardute hura debekatzeko eskaria egin zuten, euren postua semeek soilik bete zezaketela esanez, aurrez erabakitako ikaskuntza-prozesu batetik pasatu eta gero <sup>4</sup>. Hala eta guztiz ere, XX. mendean, emakumeek armagintzan egiten zuten lan. Gauza jakina da, XX. mende hasieran, bazirela arma-fabriketan lan egiten zuten emakumeak, baina

.....  
4. *La Gaceta de Eibar*, 1. Zkia., 1. Urtea, Armagintza Museoa, 2012ko uztaila, 2-3 or. Industria honen historiari buruzko hainbat lan kontsulta daitezke, esate baterako Juan Ignacio Paul Arzac-en *Evolución de la industria armara eibarresa* lanean, Gipuzkoako Merkataritza, Industria eta Nabigazio Ganbera, Lasarte, 1976; eta *600 años de la Industria Eibarresa*, Eibarko Armagintza Museoa, Eibar, 2011.

oso kopuru txikian: 1.816 gizonezko zeuden, 40 emakume eta 50 ume<sup>5</sup>. Berdin berdin egiten zuten lan Probalekuan -1915ean sortu zen baina geroago jarri zen martxan- zein tailerretan kulatak zulatzen, kainoiak koipeztatzen («txaroleatzen») edo armak eta haien akaberak egiten. Hainbat ikerketaren arabera, gizon eta emakumeek «inolako eragozpen diskriminatzailerik gabe» egin zuten lan, baita eskopeten produkzioan ere. (...) Orbea y Compañía arma-fabrikako langileak ziren, 1913ko argazki batean hogeita hamar emakume ageri dira, sa-soiko janzkerarekin<sup>6</sup>.

Taldeko emakumeak ez dira bereziki identifikatzen «Hiri Armagina» gaitzizarenarekin, baina kontra ere ez diote egiten. Arma-ekoizpena sasoi edo merkatu berezi bati zegokion jarduera moduan onartzen dute eta lan batzuetan, gainera, herriaren izaera baketsua nabar-

menu izan da<sup>7</sup>. 1986an arma-fabriken kontrako manifestazio handi bat egin zen STAR arma-fabrikaren aurrean, Gipuzkoako Emakumeen Asanbladak deituta. Sasoi hartan antimilitarismoa bete-betean sartu zen euskal agenda sozialean- eta bereziki feministan- eta protestaldia, tren antimilitarista moduan ezagutu zena, NATOko erreferendumen bezperan egin zen. Hala ere, taldeko parte-hartzaileek ez dute gai hori zerbait garrantzitsua moduan gorde oroimean<sup>8</sup>.

Aldiz, emakume guzti horien oroitza-penetan leku nabarmena dauka, eta harrotasuna eragiten die, industriad, sormenez eta ekintzaitzaz jositako iragan produktiboak; industrializazio-prozesua gogoratzeko beste arrazoi bat. Emakume guztiek gogoratzen dituzte lan- eta industria-jarduera biziak, familiarbizitzarekin korapilatuak: «Ohitu egin

---

5. Juan Ignacio Paul Arzac, *Evolución de la industria...*, 25 or.

6. Arantza Lasa, *Historia de las Mujeres de Eibar*, Eibarko Udala - Ego Ibarra Batzordea, Eibar, 2011, 84. Or.

7. Igor Goñik dioen moduan, itxurazko paradoxa da buruzagi sozialistak aldi berean maisu armaginak zirela. Hala ere, ez grebetan ez lan-gatazka momentuetan ez ziren «garrantzizko gertaera biolentorik gertatu, eskura zegoen arma-kopurua handia izan arren» («Eibar y la Industria Armera: evidencias de un distrito industrial», AEHE-ren Nazioarteko IX. Kongresua, Murtzia, 2008, 30. or.).

8. Manifestazio honi buruzko hainbat ohar hemen ikus daitezke: Teresa del Valle, *Andamios para una nueva ciudad. Lecturas desde la Antropología*, Cátedra, 1997, 235 eta 236 or.; Zaida Fernández, *Aztarna Feministak eta Emakumeen Aztarnak. Gure Borrokaren Oroimena. Huellas feministas y de mujeres. Memoria de nuestra lucha*, Ermuako Emakumeen Asanblada, 2014; eta «Dirua emakumeentzat, ez militarrentzat» Gipuzkoako Emakumeen Asanbladaren bideoan, hemen: <https://archive.org/details/DiruaEmakumeentzat>

ginen bizitza hartara, etxe bakoitzean tailer bat egoteak ez gintuen harritzen, zaratak ere ez zigun molestatzen!

Eibarren hainbat ekimen egin dira industria-ondarea gorde, ikertu eta zabalatzeko. Herriko historia orokorrari buruzko eta Eibarko garapen industrialaren eta haren berezitasunaren inguruko hainbat argitalpen daude<sup>9</sup>. Dokumentu, dokumental eta bestelako bitartekoek artxibo eta iturri ezberdinetan arakatu dituzte enpresen, industria-sektore jakin baten edo gertatutako aro historiko baten xehetasunak. Hala eta guztiz ere, arreta gutxi jarri zaio alor horietan emakumeek bete izan duten funtzioari, eta are gutxiago industria- eta hiri-eraldaketek urteetan zehar emakume horien bizitzan eragin zutenari. Hemen kokatzen da kontakizun hau, eta horixe da, hain zuzen, Eibarko industrializazio-prozesu hura gogoratzeko arrazoi nagusia, emakumeen parte-hartzerik gabe, prozesu hori ez litzatekeelako izango izan zena.

«Aztarnak» proiektuan jardun duten emakumeek emakumeen parte-hartzeari eta protagonismoari eskainitako arretaeza zalantzan jarri edo Eibarko industria-

lizazio-prozesuaren gaineko ikuspuntu nagusia osatu nahi izan dute. Ekarpen hori beste lan batzuei gehitzen zaie, hala nola: *Eibarko Emakumeak 1900-1950* erakusketa, Ego Ibarrek antolatua 1994an, eta Arantza Lasa Astolaren *Historia de las Mujeres de Eibar* (2011), biak Eibarko Udalaren babesarekin eginak, eta gizarteko hainbat talderen ekimenak; ...eta kitto! Euskara Elkarteak, adibidez, Eibarko hainbat emakume nabarmenen biografiak argitaratu ditu...

Begirada desberdin edo osagarri honen gakoetako bat, industria-espazioetan emakumeen presentzia identifikatzeaz gain, emakumeekin lotutako industriak eta prozesuak era zabalagoan ulertzea ere bada, fabrika eta tailerren espaziotik harago begiratzea, industrializazioa eutsi duten emakumeek egindako beste jarduera batzuk txertatu eta agerian uzteko. Horrela, emakume langileen, etxe barruan zein kanpoan lan egiten zuten emakumeen, zeregin ezberdinak egiten zituzten emakumeen esperientzia ere industria-historiaren parte da eta, beraz, herriko memorian jaso behar da.

9. Gai hori hainbat lanetan ikus daiteke, hala nola, Igor Goñiren «Eibar y la industria armera...», eta «La internacionalización de la industria armera vasca 1876-1970. El distrito industrial de Eibar y sus empresas», ICE, 849 zkia., uztaila-abuztua 2009, 79-94 or., José Ronco, et al., *Eibar Ciudad Taller*, Ongarri Kultur Elkarteak, 2001; eta aipatutako beste batzuk.





**1946 urtea. STARreko langileak lantegiaren kanpoaldean argazkirako jarrita, Bonifacio Etxeberria aurrean dutela.**

EIBARKO UDAL ARTXIBOA. CASTRILLO ORTUOSTE FUNTSA.

«Aztarnak» proiektuan parte hartu duten emakumeetako askok bizi izan zituzten XX. mendeko bizitza industrial biziko urte haiek. Haien oroitzapenak, lehen pertsonan, Eibarko bizilagun moduan zein langile moduan, kontakizun honetako funtsezko materiala dira, eta beste informazio-iturri batzuekin ere aberastu da kontakizuna.

## Testuinguru eta ikuspuntu historikoak

Emakumeek beti egin izan dute lan, baina kontakizun hau egituratzeko XX. mendea hartu zuten oinarri, proiektuan parte hartu duten emakumeen bizi-oroitzapenek definitutako aldia, hain zuzen.

Historia enfokatzeko modu asko daude, eta hemen erabiltzen den periodizazioa ez da ohikoa. XX. mendeko Eibarko historiari buruzko ikerketa askok Lehen Mundu Gerraren amaiera, data esanguratsu gisa kokatzen dute termino politiko, ekonomiko eta industrialetan,

gerrak eragindako krisiaren ondorioz produkzioa dibertsifikatu egin zen-eta. 1914an hasitako gerrak Gipuzkoako industria guztien eta Eibarko ekonomiaren garapenean izan zuen eragina<sup>10</sup>, baina Eibarko armagintzak are gehiago sentitu zituen aldaketak eta aldaketa haien eragina.

«XX. mende hasieran industria-jarduera frenetikoak zen. Eibar eta bere industria gailurrean zeuden, nahiz eta krisialdi-uneak ere tartekatu<sup>11</sup>. 1900. eta 1918. urte bitartean gorentasun, zailtasun, berrikuntza eta egokitzapen unek biziko dira.

Gerra hastearekin bat armen merkaturia itxi egin zen bat-batean, eta enpresa askok itxi egin behar izan zuten. Handik hilabete batzuetara berrantolatzen hasi ziren eta aldi batez armak esportatzen jardun zuten. Urte haietan bizi izan zuen Eibarrek armen ekoizpen-mailarik altuenetakoa, armada aliatuak hornitu zituen-eta. Gerra amaitu zen eta atzerriko armei mugak itxi zitzaizkien, beste krisi-garai

---

10. Honi buruzko informazio gehiago: Errenteriako Udala, «Herria ezagutzen», hemen eskuragarri: <http://www.ondarea-errenteria.net/euskara/unitate-didaktikoak>; eta Félix Luengo, «Los comienzos del siglo XX (1903-1931)», Juan Carlos Jiménez de Aberasturi Corta (dir.), *Historia de Rentería*, Errenteriako Udaleko Kultura Batzordea, 1996, 259, 270 or.

11. *600 años...*, 39. or. Aldi horretako industriari buruzko informazio gehiago, Igor Goñiren «La internacionalización...».



bat eraginez. Produkzioa aldatu beharra zegoen.

«Eibarko industriaren salbazioa» dibertsifikazioa izan zen: «tailer txiki gehienak hoberen iruditu zitzaizen industria bilakatu ziren<sup>12</sup>», baina ez zioten armak egiteari utzi. Lokalak, materialak, tresneria eta aurre-trebakuntza egokitu zituzten objektu berriak sortzeko; eta kasu gutxi batzutan, ahalegin handia egin zen produkzioa teknikoki eraldatu eta konplexuagoa egiteko. Bizikleta eta josteko makina jaio ziren, orain Eibarko industriaren objektu tipikoak direnak, eta baita osagarriak, idazmahairako objektuak, ohe metalikoak, etxetresna elektrikoak, idazteko makinak, konpresoreak, bilurak eta kortxo-kentzekoak ere, beste produktu askoren artean<sup>13</sup>.

Beste kronologia orokortu batek Eibarren bertan eta Espainiako estatu osoan garrantzia izan zuten beste bi gertaera jasotzen ditu: II. Errepublika eta Gerra Zibila eta ondorengo diktadura. Une haiek, zalantzarik gabe, funtsezkoak izan ziren herriarentzat, Eibar, Espainia monarkikoan egin ziren hauteskundeetan –ezarri beharreko sistema politikoaren inguruko

plebiszituarenak- errepublikaren aldeko botoa nagusitu zen herrietako bat izan zen-eta. Parte-hartzaile baten hitzetan:

*XIX. mende amaieran eta XX. mende hasieran Eibarren gertatu zen mugimendu sozialista 1931ko apirilaren 12ko hauteskundeen aitzindaria izan zen, egun horretan, sozialistak eta errepublikanoak, koalizioan, Eibarko udaletxean sartu ziren-eta. Bi alderdi desberdin izan arren, bat egin eta Frente Popular zeritzona sortu zuten. Udal-hauteskundeak irabazi zituzten eta Errepublika aldarrikatu zen.*

Gipuzkoan, Eibar, Donostia eta Irun izan ziren ezker-hautagaitzen buru. Beste hitz batzuetan, Eibarrek funtzio garrantzitsua izan zuen Errepublikaren aldarrikapen eta inplantazioan:

«1931ko apirilaren 14an, goizaldeko seietan, saio publikoan zinegotzi hautatuei euren karguak egokitu zitzaizkien, Alejandro Telleria presidentea zela. Aurrez Alfonso XIII erregearen argazkia kendu eta haren ordean Galán eta García Hernández kapitanena jarria zutela, Erre-

12. Juan Ignacio Paul, *Evolución de la industria...*, 56. or.

13. *600 años...*, 42. or.; *La Gaceta...*, 6. Or

publika aldarrikatu eta, lasaitasun publiko bermatzeko, mandatu berria osatu zen.

Eibarrek, horrela, Estatuko gainontzeko hiriburu eta herriei aurre hartu zien. Sasoi hartan, herritarrek, gai publikoetan parte hartu eta gizarteari kezka eragiten zien gaien inguruan erabaki zezaketela sentitu zuten<sup>14</sup>».

Errepublikak «militantzia politiko eta sindikalaren eztabaida» eragin zuen, eta horrekin batera, espazio berriak ireki ziren emakumeentzat. Emakumeek lan-tegi, tailer eta dendetan lan egitea «errealitate saihestezin» moduan ikusten zen eta lege errepublikarrek indargabetu egin zituzten emakume ezkonduak lan-merkatutik kanpo uzten zituzten le-

geak<sup>15</sup>. Emakumeen eguneroko bizimodu-  
an eta eskubideetan ere izan zen alda-  
ketarik, eta beste neurri aurrerakoi  
batzuen artean, Konstituzioak barne  
hartu zituen dibortzioa eta emakumeen  
boto-eskubidea, haurdunaldiaren boron-  
datezko etenaldia despenalizatu zuen<sup>16</sup>,  
Eliza eta Estatuaren arteko bereizketa  
sustatu zuen, eta lan-legegintza eta ne-  
kazaritza-erreforma berriak ezarri zituen.

Legegintza berriari esker, emakumeak  
administrazio publikoaren estratu guztie-  
tan sartu ziren eta Eibarren, bizitza poli-  
tiko, kultural eta sozialean emakumeen  
parte-hartzea igo egin zen. Hala ere, eta  
aurrerapenak aurrerapen, gizon eta ema-  
kumeen arteko desberdintasunak ez  
ziren desagertu<sup>17</sup>.

---

14. Ego Ibarra, «El Archivo municipal de Eibar recupera el texto íntegro del Acta de la Proclamación de la República y el Bando leído la mañana del 14 de abril de 1931». Online argitaratutako albistea, 2016ko apirilaren 14an. Gai honi buruzko informazio gehiago izateko irakurri Jesús Gutiérrezen *La insurrección de octubre del 34 y la República en Eibar*, Eibarko Udala - Ego Ibarra Batzordea, Eibar, 2001, eta sasoi hartako emakumeen parte-hartzeari buruz Arantza Lasa, *Historia de las Mujeres...*, 106 eta 22 or.

15. Miguel Ángel Barcenilla, «Historia contemporánea de las mujeres en Euskal Herria», Marta Agirrebala, et al., *La mujer en Euskal Herria (Hacia un feminismo propio)*, Egileak - Basanere Argitaletxea, Donostia, 2001, 43-44 or.

16. Honi buruzko literatura zabala da. Geografia eta kulturari begira gertuago egon daitezkeenak dira: Silvia Loza, María Ruiz eta Murtxe Tranche, *Historia de las mujeres en Irun 1931-1992*, Irungo Udala, 2011; Itziar Rekalde Rodríguez, «Actividades educativo-culturales de las mujeres republicanas en el País Vasco», Karmele Buján eta Luz Maceira (koord.), *Educación, memoria e historia de las mujeres vascas. Lecturas feministas*, Intxorta Kultur Elkarte, Oñati, 2015, 23-48 or.; Begoña Gorospe Pascual, «Eusko emakumeak: recogiendo su memoria desde una mirada feminista», Karmele Buján eta Luz Maceira (koord.), *Educación, memoria e historia de las mujeres vascas. Lecturas feministas*, Intxorta Kultur Elkarte, Oñati, 2015, 75-105 or., eta aipatutako Miguel Ángel Barcenilla eta Arantza Lasaren lanak, beste batzuen artean.

17. Arantza Lasa, *Historia de las Mujeres...* 109. or.



**Eibarko emakumeek bozkatzeko aukera izan zuten lehen aldia, Espainian 1931n boto femeninoa onartu ondoren. Lehen Euskal Estatutuaren bozketa, 1933-11-5.**

EIBARKO UDAL ARTXIBOA.

Eibarrek zuen izaera errepublikarraren ondorioz, gerran, errepresioa ere handia izan zen, familia askok erbestera joan behar izan zuten eta antzinako espiritu sozialistaren edozein adierazpen zigortu egin zen, gogoratzen dute parte-hartzai-leek<sup>18</sup>.

1937ko apirilaren 25ean aireko indar italiarrek Eibar bonbardatu zuten, herria «txikituta utzi zuten, txintxorrak eta errautsa»: «Eraikin ederrak, harro sentia-

razten gintuzten lantegiak, eibartarron bizilekuak ke eta hauts besterik ez dira», jasotzen du garaiko albiste batek<sup>19</sup>. Herriaren kutsu politikoak ez eze, agintari errepublikarrek aurrena eta Francoren tropek gero kontrolatu zuten armagintza izateak ere ez zion herriari mesederik egin<sup>20</sup>.

Gertaera guzti horiek erabakigarriak izan ziren Eibarrentzat eta baita Eibarko emakumeentzat ere, taldeko kideen ber-

18. Aipatutako Arantza Lasaren liburuan aldi horren inguruko testuigantza eta informazio zehatzagoa jasotzen da, eta Eibarko emakumeek nola bizi izan zuten hura.

19. *La Gaceta...*, 6. or.

20. *600 años...*, 41-42 or.

betan: «Errepublikak eskubideak eta askatasunak eman zizkigun eta frankismoak, berriz, kendu»; «gerra zibilaren aurretik Eibarko emakumeek eskubide eta askatasun guztiak aitortuak zituzten».

Proiektuko kideetako batzuk Gerra Zibilean edo gerraostean jaio ziren edo haren ondorioak jasan zituzten: beldurra, erbestealdia, gosea, suntsipena. Emakumeetako batek zera dio, «ume askok tuberkulosia izan zuten gerraostean», berak ere bai. Askok dute gogoan nola, gabezia-sasoian eta, gerraostean, errazionamendu-sasoian, baserriak herritarrek hornitzeko funtzio inportantea bete zuten, moduren batean edo bestean esnea eta beste produktu batzuk eskaintzen zituen, eta baliabide gabeko gazteei ostatu ere ematen zieten baserrietan.

«Aztarnak» proiektuko parte-hartzaileek era askotara bizi izan zituzten sasoi hartako zailtasunak: senitartekoak galdu zituzten; haien gurasoek oso lan-aukera gutxi edo oso txarrak izan zituzten, izan zituztenean; edo horrenbeste pobrezia eta estraperlo artean bizirautea oso zaila izan zuten negozioei ekin zieten. Tristura, dolu eta mesfidantza giroa zen nagusi eta batzuk beste batzuk baino hobeto gogoratzen dute.

Taldeko parte-hartzaile denek bizi izan zutena frankismoa izan zen. Gauza jakina da diktadurak bereziki eragin ziela emakumeei, eurek dioten moduan:

*«Lehen» bat dago, eta bertan emakumea lan-munduan murgilduta zegoen, beno, beti egon izan da, zuzenean edo zeharka, baina gerra zibiletik aurrera, aldaketa gertatu zen; lehen, emakumeak, lan-eskubide aitortuak zituen, soldata nahiko bidezkoak, baina 36tik aurrera, gerra ondorengoak berreraiki eta gero, frankismoan, beharrera itzuli nahi duen emakumea konturatzen da, jada, ez dituela gerra aurreko eskubide eta askatasunik. Eskubide eta askatasun guzti horiek Errepublikan egon ziren beti. Emakumea, Gerra Zibiletik aurrera, eskubide guztiak galitzen joan zen.*

Parte-hartzaileen artean «dotearena» aipatzen dute Francoren neurri askok emakumeen eskubideetan eragin zuten atzerakadaren adibide gisa, kasu honetan lan-eskubideetan. 1938ko Lan Foruak ezkonduko emakumea, «tailer eta lantegitik askatu zuten», gaueko lana debekatu zien eta etxetz etxeko lana arautu zuten. Atzetik etorri ziren lege eta dekretuekin emakumeen lan-eskubideak

mugatu egin ziren, eta horren ondorioz, emakumea ordaindutako lanetik kanpo gelditu zen, etxeko lanetara dedikatzeko. Besteak beste, ezkontzerakoan lanpostua uztea –edo kaleratzea- erraztu egiten zen, kalte-ordain edo «dotearen» truke.

Proiektuan parte hartu duten emakume guztiek bizi izan dute lanean egoera diskriminatzailearen bat, eta inguru murriztailea gogoan dute, non elkarrekin bizi ziren, alde batetik, lan-aukera murriztuak, eta bestetik, murrizketa horien zehaztasunari buruzko era askotako esperientziak, eta elkarbizitza horretan norbanakoen egoera, gizarte-ohiturak eta enpresen jarduteak nahasten ziren. Emakumeek uste dute enpresari eta agintari asko «testuinguru politiko, juridiko eta sozial frankista hartaz» baliatu zirela –»batzuek, emakumeak, baldintza zuzenetan kontratatzen bazituzten ere». Hau da, «industrialaren kontzientziaren esku gelditzen zen» emakumeei lan-baldintza batzuk edo beste batzuk eskaintzea, legeak uzten zuen tarte estuaren barruan edo hortik harago.

Gaiari buruzko legeria positiborik gabe, beraz, emakumeak lan-munduan sartu ala ez enplegu-emailearen epai pertsonalaren esku gelditu zen. Enpresa batzuek emakume ezkonduen ustezko finikitoaren aurrean «ezikusiarena egiten zuten», eta lanean jarraitzeko aukera ematen zieten. Halaber, emakume hauen memorian dago, enpresa batzuetan, emakume bat alarguntzen zenean, senarraren postua bereganatzeko esku-bidea zuela. Alargunak, ezkongabeak eta desgaituen emazte edo alabak familia-buru izateagatik lan-merkatuan sar zitezkeen, baina proiektu honetako emakumeen ustez, kontratazio horrek industrialarien ezohiko borondatea erakusten zuen, eta emakumeen enpleguari babeska eskaintzen ziotela, justu kontrakoa egiten zuen gizarte batean<sup>21</sup>.

Enpresetan ez eze gizartean ere gertatzen ziren berdintasun ezako egoerak, gizarteak onartu egin zituen murrizketak eta emakume askorentzat, ezkontzea, lana uztea eta dotea jasotzea «normala» zen. Gaur egun, atzera begiraturaz, esaten

21. 1942ko Lanaren Legeak lan-ertazioen alde asko arautzen ditu, besteak beste, ezkontzen ziren emakumeen eszedentzia eta emakumeen jarraipena edo berriz hartzea ahalbidetzen zuten kasuak. Baina horrez gain, alor ekonomiko bakoitzak bere araudia zuen eta xedapen horiei enpresa bakoitzaren jardutea gehitzen zitzairen. Guzti horri buruzko laburpena hemen ikus daiteke: María Jesús Espuny Tomás, «Aproximación histórica al principio de igualdad de género (III): las Reglamentaciones de Trabajo, observatorios de la desigualdad», *IUSLabor*, 2. Zkia., 2007.

da, ezkontzeak, zeresan handia zuela emakumeen menpekotasun-egoeran; askatasuna kentzen zien eta ekonomikoki menpekoagoak bihurtzen zituen, baina ez dute uste egoera hura kezka bereziarekin bizi zutenik, ez behintzat jendaurrean. Lana utzi eta «dotea hartzea, ezkontzako gastuak ordaintzen laguntzeko» izateaz gainera, hartzaindegirik ez zegoenez, emakumeek hauxe uste dute: «eguneko 24 orduak eman behar genituen seme-alabak zaintzen», gainera, «sasoi hartan, ez zegoen ondo ikusita seme-alabak besteren baten ardurapean uztea»; beraz, lanean ziharduten emakumeek, ahal bazuten behintzat, ezkontzearekin bat lana uzten zuten.

Egoera pertsonalak baldintzatzen zuen emakumeak nola egiten zien aurre inposatutako diskriminazio eta mugei. Hau da, diru-sarrerak izateko premia gizarte- edo enpresa-murrizketatik harago zihoan eta lan-merkatuan emakumearen jarraipena erabakitzen zuen moduren batean edo bestean; sarri lan independentearen zirkuitu prekario edo periferikoan.

Proiektuko emakumeek diktaduraren kontrako borroka, demokraziarako trantsizioa eta, orain, euren hitzetan, arriskuan dauden edo atzera egiten duten aurrerapen eta lorpenak ere bizi izan zituzten. Euren berben arabera, azken aldi hura giltzarria izan zen emakumeen parte-hartzerako:

*60. hamarkadatik aurrera, eta batik bat Francoren heriotzarekin, emakumeak protagonismoa berreskuratu zuen tailerlean eta eskubide sindikaletan. Orduan hasi zen emakumeen mugimendu aldarrikatzailea. Guk badakigu zer den, bizi izan dugu-eta.*

*1967 edo 68an, lantegietako emakumeak dotea desagertarazteko eta emakumeek lantegietan lanean jarraitzeko borrokan hasi ziren. Alfako emakume batek komunikatu bat idatzi zion Pilar Primo de Riverari dotea ken zezala eskatuz.*

*70. hamarkadara arte gure belaualdia berriz ere hasten da borrokatzen eta emakumeentzako eskubideak lortzen.*

## «Eibar» ezberdinak egon dira

**A**urrez adierazitako hiru gertakariak (Lehen Mundu Gerra, II. Errepublikak, Gerra Zibila eta diktadura) Eibarko bizitzan garrantzi eta eragin handia izan zuten arren, kontakizun honetan berriki gertatutako Eibarko historiari begirada egitea proposatzen da, industrializazio-prozesutik abiatuta eta hiru etapa bereiztuz: gremioen Eibar, Eibar industrialak eta zerbitzuen Eibar; eta, hain zuzen ere, etapa horietan nabarmentzen dira emakumeek prozesu horretan utzitako aztarnak, eta industrializazioak emakumeetan utzitakoak ere bai.

### Gremioen Eibar

Eibarrek armagintzan izan zuen espezializazioak gremio-aldi luzea ekarri zuen. Armagintzako maisu, ofizial eta ikastunek (kanoigileak, giltzariak, kutxagileak, armaginak) eta alorreko ordenantzak gremio garrantzitsua osatu zuten, parte-hartze nabarmena izan zuten gizartean eta haien aztarna espazio eta jardute ezberdinetan aurki dezakegu.

XVIII. mendean gremioek ekoizpen zuzenetik haragoko papera bete zuten, 1779an Marrazki Eskola sortu zuten-eta<sup>22</sup>. Eskola hura izango zen metal-grabatuaren teknika ezberdinen ikaskuntza eta espezializatorako abiapuntua –oso jarduera hedatua Eibarren<sup>23</sup>–.

Hainbat urtetan «Real Fábrica de Armas»-en eserlekua betetzen zuten maisu-armaginek euren etxe eta tailerretan ikastunak hartzen zituzten forjatzaille- eta limatzaille-maisuekin lan egiteko. Ikastunak, hainbat urtetako entrenamendua eta gero, Ofizial titulua es-

22. 600 años..., 35. or.

23. Informazio gehiago: Juan San Martín, *El damasquinado de Eibar*, Udal Museoen Patronatua, 1981; Ramiro Larrañaga eta Nerea Alustiza, *El grabado en Eibar*, Eibarko Udala, 1996; eta Ramiro Larrañaga, «El grabado en metales en nuestra industria», *Boletín de la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País*, LX, Donostia, 2004-2, 515-540 or.

kura zezakeen eta, titulu horrekin batera, tailer horretan bertan edo beste batean lan egin eta soldata jasotzeko eskubidea ere bai. Horrek lanerako ondo definitutako aukerak ekarri zituen eta ekoizpenaren antolaketa-sistema ere bai, armagintzatik harago joan zena. XX. mendean armen fabrikazioa ez zen modu berean ikasten; 1912an sortutako Armeria Eskolan gaitu behar ziren ikas-tunak, aurrerapen teknologiko berrietatik eta arma-fabrikazioaren modernizaziotik sortutako premiei erantzuteko.

Moduren batean, gremio-aldiaren amaiera, 1851. urtean Orbea lantegiaren inaugurazioak markatu zuen, «ohiko armategia baino zerbait gehiago izatea» nahi zuen lantegi handi bat izan zelako, langile-kopuruarengatik zein ekoizpen-teknika modernoan erabilerarengatik<sup>24</sup>.

«Industria-askatasuna» ere gremio-aldiaren amaieraren beste adierazle bat da. XIX. mendean Sorluzeko Arma Fabrikaren gainbeherak Eibarko maisu-armaginetan egiten zitzaizkien enkarguen

murrizketa zorrotza eragin zuen, eta 1860an dekretu bat aldarrikatu zen armagin-sektorearentzako industria-askatasunaren alde: gremio-sistema industria pribatuaren sorrerak eta garapenak ordezkatu zuen<sup>25</sup>.

XIX. mende amaieran industria-saio berri bat sortu ahala, gremio tradizionalak –non emakumerik ez zegoen– desgertuz joan ziren. Hala ere, Eibarko ekoizpen-sistema artisau edo erdi artisaua XX. mende hasierara arte nola luzatu zen aztertu dute hainbat ikerketek; horrek erakusten du beste ekoizpen-modu batzuetarako trantsizioa geldoa izan zela. Tailer ezberdinetan atomizaturako oinarri industrial bat zegoen, aipatas modernizatua edo mekanizatua, eta kapital txikietatik zetorrena<sup>26</sup>. Hain justu, enpresa independenteentzako pieza txikiak fabrikatzen zituzten azpikontratak –gremio-sasoian armen ekoizpenaren oinarri izan zirenak– sasoi modernoan Eibarko armagintza-alorraren industrializazioaren oinarria izan ziren<sup>27</sup>, eta, esan daiteke, ez sektore horrena soilik.

---

24. *La Gaceta...*, 5. or.

25. Igor Goñi, «Eibar y la industria armera...», 8. or.

26. Juan Ignacio Paul, *Evolución de la industria...*, 39. or.

27. Igor Goñi, «La internacionalización...», 82. or.



Lan, ekonomia edo ekoizpenaren ikuspuntutik egokitzen jo daitekeenetik harago, proiektu honetako emakumeentzat eurek «gremioen Eibar» deitzen diotena Lehen Mundu Gerraren amaierara arte luzatu zen. Sasoi hartan produktu bakarrean oinarritutako ekoizpena nabarmentzen dute: armak, XX. mendeko Eibar industrialak finkatzeko oinarri moduan hartuko zituen printzipio eta lotura sozial eta laboralak ahaztu barik.

«XIX. mendean damaskinatua garatu zen. Emakumeen esku-hartzea handia izan zen, euren etxeetan egiten zuten lan, zeregin errazak zein konplikatuak egiten: hozkatzetik hasita marrazkiraino edo inkrustazioraino (pikatua). Une horretan emakumea bai sartu zen lan-merkatuan», dio parte-hartzaileetako batek<sup>28</sup>. «Gremioen Eibar» zeritzon emakumeek ez zuten horrenbeste parte-hartzen industria-ekoizpenean, baizik eta euren lana beste eremu batzuetan burutzen zuten, «Eibar ezberdina» zen, historiako beste une batekoa.

Eta urte batzuk geroagoko proportzio berean parte hartzen ez bazuten ere, ho-

rrek ez du esan nahi emakumeak industrialaren ez zeudenik: «emakumeen ibilbide okupazionala, premiak eta imajinazioak gidatuta zegoena, Eibarko kultur industrialaren inguruan kokatu zen, produktuen akaberentzako eta arma-lantegiei zegoekin guztiarentzako langileak eta baliabideak behar zirelako». Emakumeak industria-ogibide espezifikoak lantzen hasi ziren tailerretan; eta industria-laguntzailean ere «emakume batzuk galvanoplastia egiteko euren pabilioi propioak kudeatu zituzten; kromatu- eta urre-bainuak ematen zituzten, nikelatu, ilundu eta txaroleztatu», emakume alargun edo umezurtzak ziren, ogibidea euren senideetatik oinordetzan jaso zutenak<sup>29</sup>. Baina gehiengoa ez zen alor horretara dedikatzen.

Parte-hartzaileen imajinarioan emakumeen industria-lana berezitasun bat da. Zalantzarik ez da zerbait berezia dela, baina ez da eskusiboa. Industrializazioak «emakume beharginaren» sorrera eta hedapena ekarri zuen leku askotan, adibidez Katalunian eta Europako hainbat hiritan. Industria batzuetan nahiago zuten emakumeen lana eta Euskal He-

28. Gai honen inguruko informazio gehiago: Mercedes Arbaiza, «La construcción social del empleo femenino en la sociedad industrial vasca (1850-1935)», Comunicación presentada en el VII Congreso de la Asociación de Historia Económica, Zaragoza, 2001.

29. Arantza Lasa, *Historia de las Mujeres...*, 83-84 or.



*Castro y Castillo*  
547

**1933 urtea gutxi gorabehera. Saiakuntza-bankuan egindako emakumeen tiro txapelketa. Parte hartzaileen artean Irene Gaztelu-Urrutia eta Vicenta Lasuen daude. Umeak Ricardo eta Nieves Lasuen anai-arrebak dira.**

EIBARKO UDAL ARTXIBOA. CASTRILLO ORTUOSTE FUNTSA.



©Eibarko Udal Artxiboa  
· Archivo Municipal de Eibar

rrian ehungintza aipa daiteke Erreterian eta Bergaran, tabako-industriak eta kon-tserbak eta elikagaigintza Gipuzkoan eta Bizkaian, beste batzuen artean<sup>30</sup>.

Eibarren, 1903an, XIX. mende erdial-dean baino emakumeen ogibide eta lan-jarduera gehiago zeuden erregistratuak (horien artean mojak, andereñoak, jostu-nak, dendariak, jabeak, zerbitzariak), eta horiei erroldetan azaltzen ez ziren beste batzuk (garbitzaileak, lisatzaileak) eta mende berrian emakumeentzat sortu-tako ogibide eta lanbide berriak ere gehitu behar zaizkie (merkataria, birsal-tzailea, sukaldaria, harakina, arrain-sal-tzailea, abarketaria, gozogilea, ebakitzaila, estankoko langilea eta es-tutxe-egilea). Emakumeen lan-merka-tuan kolektiborik handiena zerbitzariena zen, langileen erdia baino gehiago dedi-katzen zen jarduera horretara<sup>31</sup>.

Eibar desberdina ez zen ezberdina he-rritarrentzat oro har, eta emakumeentzat bereziki, eskaintzen zituen lan-aukeren-

gatik soilik, baizik eta XIX. mendea amai-tzen ari zen heinean irakinaldi sozial eta politikoa bizi izan zuelako zen desber-dina.

1876an, gerra karlista amaituta, eus-kal nazionalismoa jaio zen eta hamar-kada bat geroago, PSOE sortu zen Bilbon. Pixkanaka Bizkaia eta Gipuzkoan zabaltzen joan zen, bereziki inguru in-dustrialetan, horien artean Eibarren. He-rrian taldeak sortzen hasten dira, langileen mobilizazio eta kontzientziaren seinale, eta baita sasoi hartako berdinta-sun eta askatasun-giroaren seinale ere:

*Eibarren sortu zen mugimendua eta inguruko herrietakoak oso beste-lakoak ziren. Kontzientzia sozialista-rekin. Inguruko herrietan Elizaren eragina handiagoa zen, hemen des-berdina zen. Eta horrek eragina izan zuen emakumeengan. Nik ezagutu nuen Eibar hartan emakumeek oso paper aktiboa izan zuten, Elizaren eragin txikiagoarekin. Horrek alda-keta ekarri zuen eta emakumeak pro-*

30. Arantza Pareja eta Karmele Zarraga, «Tareas, profesiones y oficios infravalorados», *Emakunde aldiz-karia*, 76. zkia., 2009, 14-17 or.

31. Arantza Lasa, *Historia de las Mujeres...*, 83 eta 89 or. Lan hau emakumeen okupazioaren eta Eibarko zenbait emakumek burutu zituzten ezkutuko ekonomiako ogibide eta bestelako jardueren inguruko infor-mazio gehiago lortzeko kontsulta daiteke. Emakume horien izenak eta egindakoak gogoan ditugu gaur egun ere.

*tagonismo handiagoa lortu zuen, Casa del Pueblo egiteko akzioak erosiz edo, geroago, Alfa egiteko akzioak erosiz. Testuinguru sozialista horretan, emakumeek, oso paper inportantea bete zuten.*

Sasoi hartan gertatu ziren industria-  
ren (zaharra) gorenaldia eta krisialdia ere  
bai, egoera berri bat sorrarazi zuten ger-  
takariak eman ziren, eta produkzio-anto-  
laketako sistemak ez eze, produkzioa  
bera ere errotik eraldatu behar izan zen,  
aldatutako testuinguru ekonomiko eta  
politiko batean.

Eraldaketa-inguru horretan gogoan  
izan behar dugu Armeria Eskolaren so-  
rreara, 1912an, «lehen eta bakarra izan  
zena erreinu osoan»:

*Alfonso XIII erregearen sasoiari  
(eskola inauguratzen etorri zen), Es-  
painia erdia analfabetoa zen, eta  
hemen eskola profesionala sortu ge-  
nuen! Marrazketa lineala, lima, fran-  
tseza, geometria... ikasten zuten.  
Eibarren ez zegoen analfabetorik. Es-  
kola profesionala umeak hezitzeko  
zen, oso profesional onak izan zitezten*

*limarekin, eskopetarekin lan egiteko,  
edo enpresari eta industrialari onak  
izateko. Hemendik irten ziren Alfa,  
NORMA eta beste industria batzuk.  
Armeria Eskolan neskatoentzat lizen-  
tziaz ez dago.*

Lehen Mundu Gerraren sasoioko gora-  
behera ekonomiko eta politikoen esku-  
tik, hasierako hazkunde industrial eta  
ekonomikoarekin, ondorio sakonak izan  
zituen krisiak lagunduta, aldaketa esan-  
guratsuak gertatu ziren «langileen pen-  
tsaeran», eta 1918an hainbat  
langile-mugimendu jaio ziren Gipuzkoa  
oson, asaldura sozial handia sortu zen,  
tokiko sindikatuak sortu ziren eta, horre-  
kin batera, grebak eta negoziazioak eto-  
rri ziren<sup>32</sup>.

Gipuzkoan emakumeen presentzia  
sindikatuetan nabarmena zen. Talde po-  
litiko batzuek ez zuten euren sindikatue-  
tan emakumeentzat sekziarik sortu,  
beste batzuk, berriz, bai, UGT-k adibidez,  
baina hala eta guztiz ere, emakumeen  
parte-hartzea oso aktiboa zen. Sindika-  
tuetan, emakumeen parte-hartzea, al-  
datu egiten zen industria-adarraren  
arabera, adibidez Donostiako jostun eta

32. Miguel Ángel Barcenilla, 2013/12/4an egindako elkarrizketa.





©Eibarko Udal Artxiboa  
Archivo Municipal de Eibar



Week 8 - Review

1463 km	33 km	1140 km +
198 km	133 km	795 m +
450 km	38 km	167 m +
114 km	141 m	332 km



**Hidelisa Arrizabalaga, Eibarko udal-eskolako maistra. Beste ikasle batzuen artean, Maite Aseginolaza, Laura Etxeberria Garagarza, María Luisa San Martín, Arantza Arrizabalaga, Begoña Domínguez eta Arrate Andía.**

MARIA PILAR OLASOLO BILDUMA.



sastreen kasuan, afiliatu gehienak zitu<sup>33</sup>.

Eibarri zegokionez, XIX. mende amaieran eta XX. mende hasieran langile-elkarteek eta sindikatuak izandako paper indartsu eta aktiboa nabarmentzen dute hainbat autorek. Gremio-antolaketa formalki amaitu eta gero, langileek hartu zuten euren gain lan-erregulazioen ardura, eta lankidetzan jarduteko moduak zehaztu zituzten. Pixkanaka langile-elkarteak sortzen hasi ziren, euren eskubideen defentsan, ogibide-elkarteak sortu ziren, tokiko federazioak eta sindikatuak ere bai. Lan-eremuan ez ezik bestelako alor batzuetan ere egiten zuten lan, hala nola, obra publikoen finantzazioan laguntzen; horren adibidea da Aginaga auzoko erre-pidea, 1914ko krisian lanik gabe gelditu ziren armaginei lana eman zien<sup>34</sup>.

Emakumeek presentzia aktiboa izan zuten eszenatoki asaldu hartan, elkartzun- eta lankidetzaren sareetan jardun

zuten, eta protesta- eta presio-modu ezberdinak egin zituzten mobilizazio sozialetan<sup>35</sup>.

1919an, Espainian, lege-aldaketak egin zituzten langileen aldarrikapenen ondorioz, besteak beste, 8 orduko jardunaren Dekretua jarri zen indarrean eta horrek lan-baldintzak eta bizi-kalitatea hobetu zituen. Hala ere, armagintzaren krisiak, kaltea eragin zien bizi-baldintzei zein lan-merkatuari eta «herriaren premiak asetzeko agintarien ezgaitasunaren aurrean, Eibarko emakumeek Salón Teatro zeritzona aukeratu zuten elkartzeko gune moduan, egoerari aurre egiteko eta neurri egokienak aukeratzeko». Eskakeren artean zeuden arma-probaketak birgaitzea eta udalaren eta patronalaren inplikazioa langabezia zeuden herritarrei lana emateko, dio Arantza Lasak. Emakume Talde Sozialistak, beste alderdi politiko batzuetako emakumeekin batera, emakumeen bileretan hartu zuen parte, krisiari soluzioak proposatzeko helburuarekin<sup>36</sup>.

---

33. Félix Luengo, «La mujer en el movimiento obrero: Una huelga en Rentería en 1920», *Bilduma*, 2. zkia., 1988, 182. or.

34. Igor Goñi, «Eibar y la industria armera...».

35. Arantza Lasa, *Historia de las Mujeres...*, 103. or.

36. *Ídem*.

Aldaketa guzti horiek Eibarko historiaren etapa berri bati bide emango diote, emakumeek diotenez.

## Eibar industrial

Bigarren etapa honen hasiera XX. mendeko 20. hamarkadan abiatu zen eta 70. hamarkadara arte luzatu. Proiektu honetako emakumeentzat etapa hau erabakigarria izan zen Eibarko industriarentzat eta bertan zeuden emakumeentzat. Industriaren dibertsifikazioak markatu zuen lehena eta orainaren arteko aldaketa.

Epea luzea da eta, hainbat gertaera politiko, ekonomiko eta teknologiko kontuan hartuta, zatitu egin daiteke, baina diskurtsoan nagusitu egiten den ezaugarri bat dago: ekoizpen eta lan luzeak. Egokitzeko gaitasuna duen industria dibertsifikatu horrek markatuko du esperientzia eibartarra denboran zehar: «Txanpon bakarra izanda ere –edo gabe-tailertxo muntatzen zen. Eibarko tailer-rrak ezerretik egiten ziren», diote, batez ere birmoldaketara behartu zituen krisialdiaren osteko lehen epe hura gogoratu. Egoera hura, moduren batean, luzatu egin zen Eibar industrial horrek hartu zi-

tuen hamarkadetan; izan ere, emakumeek, gogoan dituzte eurek edo senideek bizitako esperientzia antzekoak, non asmamenarekin eta esfortzuekin edozein eragozpeni aurre egiten zioten. Tailer edo negozio bat «ezerrekin» mar-txan jartzeak ez du esan nahi erraza zenik; izan ere, «bizitza osorako hipotekatzeko» arriskua zekarren. Laguntzak eta maileguak eskatu behar ziren, aurrera egiteko moduak irudikatu, arriskatu, eta baliabideak aprobetxatu, adibidez kooperatibak sortuz.

Eibar «artisauaren» garaia da, taldeak gogoratzen duen moduan; «era guztietako objektuak –intsigniak ere bai- egiten zituzten industria txikiz» josita zegoen herria; tailer txiki horietako asko enpresa handi bihurtu arte hedatu ziren eta prozesu hori ere ezagutu du emakume-taldeak. Ganbaretan hasitako industriak edo etxepeetako tailer-rrak, kasu askotan lokal handi edo industrialdeak bihurtu ziren, batzuk nazioartera jauzi egiteraino.

Epe honen hasieran, 1920an, 50 lan-gatazkatik gora gertatu ziren Gipuzkoan, eta emakumeek portzentajezko parte-hartze antzekoa izan zuten, industrian zuten presentziarekin. Hain zuzen, probintziako datuak begiratuta ikus daiteke



**1961 urtea. G.A.C enpresan gurpil-muntatzaile eta zentratzaileak.**

EIBARKO UDAL ARTXIBOA. CASTRILLO ORTUOSTE FUNTSA.



mobilizazioetan emakumeen parte-hartzea gizonena baino altuagoa zela. 1917-1920 artean langileen %85 inguruk hartu zuen parte grebaren batean, baina emakumeen portzentajea %99koa izan zen, «horrek esan nahi du enpresa batean greba proposatzerakoan emakumeek ahobatez erantzuten zutela, gizonek baino gehiago, ia ehuneko ehunetan<sup>37</sup>».

Parte-hartzaileen memorian ez dago gogoratzeko moduko gertaera berezirik, baina badakigu asaldura-giroa zegoela, herrian «sasoi klabea» izan zela, langileen borroka zegoela, eta horien artean «Eibarren lehenengo kooperatibak lortzeko borroka». Alfa fundazioak (Alfa, Suzko Armak Ekoizteko Kooperatiba Anonimoa) gauzatu zuen 1920an borroka hura<sup>38</sup>:

*Lan egiteko modu zehatz bat eta ideia batzuk praktikan jartzea ekarri zuen; langileak bere lanaren jabe izan behar zuen, eta hura zen, hain zuzen ere, sozialismoak garai hartan aldarri-*

*katzen zuena. Mugimendu sozialista indartsua egon zen eta Casa del Pueblo sortu zen.*

Existitzen zen antolaketa indartsuari buruz hitz egin zen eta, Igor Goñi historialaria parafraseatuz esan daiteke, langile-proiektu nagusia Alfa izan zela. Eta emakumeak ezin ditugu lorpen kolektibo hartatik kanpo utzi, kooperatibista moduan ere jardun zuten-eta. Haien integrazioa emakumeak armagintzatik kanpo utzi zituztenean amaitu zen. Alor hartan emakumeek zuten parte-hartzeak anekdotikoa edo periferikoa izateari utzi zion, behintzat aldi batez.

«Alfa da Espainiako sistema kooperatibistaren jatorria», dio askotan taldeak. Ideia horrek euren memorian dirau, egitasunetik harago. Euskal Herrian proiektu aitzindaria izan bazen ere, ezin daiteke ziurtasunez esan Espainiako kooperatibismoaren oinarria izan zenik; maila lokalean edo maila zabalagoan izan, Alfak herriari ekarri zion guztia harrotasun-iturria da eibartarrontzat. En-

37. Félix Luengo, «La mujer en el movimiento obrero...», 182. or.

38. Alfa sindikatu metalurgikoaren borrokatik jaio zen, UGT eta PSOE-k gidatuta; Eibarko armaginen erdiak egindako greba luze baten ondoren, kooperatiba bat antolatzea erabaki zuten armak fabrikatzeko. Greban patroli ohieki eskatzen zizkieten lan-baldintzak ezarri zituzten. Honen inguruko informazio gehiago: Igor Goñi, «Eibar y la industria armera...», 16. or.



**1961. urtea. Erakusketa furgoneta. ALFA.** EIBARKO UDAL ARTXIBOA.

presa paradigmaticoa bilakatu zen, «sokratua» eta «lantegi-kontzeptua aldatu zuen»; baina Alfaz gain, egon dira ospe eta ahalera handiko beste enpresa batzuk ere.

Proiektuko emakumeentzat, Alfak, gaur egun oraindik ere leku berezia dauka Eibarko imaginarioan. Alfak lan egiteak soldata on bat edukitzea («eta aparteko lau ordainsarirekin») eta sarrera akzioekin ordaintzeko gai izatea esan nahi zuen. Enpresak zerbitzuak eta «abangoardiako» prestazioak eskaintzen zizkien beharginei: gizarte segurantzaren mediku-estaldurarekin, edoskitze-baimena, jangela, ekonomatua arraindegi eta harategiarekin, etxebizitzak, liburute-

gia, udalekuak. Guzti horregatik, Alfak lan egiteak, nolabaiteko estatusa edo prestigioa adierazten zuen. Hain zuzen, «alfista izatea» nortasun- eta harrotasun-seinale bilakatu zen. Berezitasuna ere bada, behintzat emakumeen memorian, gizon eta emakumeen soldaten artean desberdintasunik ez zegoela (lanpostu beretan). Alfak laburbiltzen du Eibarko berezitasunetako bat (herri guztiarena, ez industriaren soilik), «gainontzekoekin aldea ezarri zuelako». «Lantegiaren kontzeptua aldatu zuen» eta tokiko «garpunen industrial eta sozialari ekarpen handiena egina zion enpresa» izan zen.

Enpresak zuen neurriarengatik eta ordezkatzeko guztiarengatik gizartearen

oso preziatua zen Alfa, baina horrez gainera, herriaren erritmoa eta bizitza bera ere markatzen zituen: «Alfako paga jaso eta inguruko dendek salmentek gora egiten zuten», «umeak, eskoletatik, 12:00ak baino zertxobait lehenago irtezen ziren, 12:00etan irtezen zirelako Alfakoak uholde bat moduan. Eta beste enpresa batzuetan itxaron egiten zuten Alfakoak irte arte kalean bat ez egiteko, enpresa handienek zein ordutegi zuten jakiteko antolatzen ziren».

XX. mendeko lehenengo hamarkadetakoa antolaketa kolektiboko urteetara itzuliz, hainbat dokumentuk emakumeen esperientzia aipagarriak berreskuratzen dituzte, adibidez alargunak eta zailtasun ekonomikoak zituzten emakumeak ere antolatu egin zirela elkarri laguntzeko, eta produkzio- eta elikagai-kooperatiba bat sortu zuten; diru-sarrerak sortzen zituzten laguntza ekonomikoa emateko prest zeuden etxetara joanez, eta zikin eta egoera txarrean zegoen arropa jaso eta konpondu, garbitu eta lisatu egiten zuten<sup>39</sup>.

Taldean adierazi denez, etapa honek ekin zion industria-birmoldaketari. «Au-

rrera egin edo hil», laburtzen du parte-hartzaile batek esaldi hura sasoi hartako enpresarien ahotan egon zela irudikatuz. Eta eraldaketa nola gertatu zen kontatu du:

*Tresneria berarekin, ez zuten-eta ezer inbertitzeko, bizikletak egiten zituzten –kainoi-tuboak ziren-, grapa-gailuaren kaskoa errebolberretan erabiltzen zen kaskoa zen, eta herentzia armaginetik datorren hirugarren objektua josteko makina da. Eskopetetan, suzko edozein armatan bezala, tiragailua injekzio-sistema orratz bat da. Orratz hura erabili zen josteko makinak fabrikatzeko. Elorza eskopetek zeramatzen malgukiak beste produktu batzuk egiteko ere erabili ziren.*

Prozesu hura, proiektuko emakumeentzat, «sormen eta argitasun handikoa» izan zen, miresteko modukoa: «oso argiak eta ekintzaileak ziren, eta hori ikaskuntza da gaur egunerako». Orain gehiago gogoratzen da ahalegin ekintzaile hura, ahalegin hura eragin zuen gosea baino.

---

39. Arantza Lasa, *Historia de las Mujeres...*, 92-93. or.



Birmoldaketaren garrantziaren adibide bat aipatzearren, bi urtetan, 1926tik 1928ra, metalurgikoak ez ziren bost industria mota berri sortu ziren Eibarren (abarketak, kartoizko kaxak, zerrategi mekanikoa, nakarrezko artikulua, txokolata), eta alor metalurgikoan, 1925-1926 artean zeuden hamazazpi produktu edo tailer motetatik hogeita hamabostera pasatu ziren 1928an. Horien artean daude kortxo-kentzekoak, bastoi eta aterkien heldulekuak, trokelak, intsigniak eta bereizgarriak, fonografoaren piezak, txorrotak, lata-irekitzekoak, sarrailek, ilea mozteko makinak eta beste asko. Industria laguntzaileak ere bikoiztu egin ziren epe labur horretan. Tailerrek euren ekoizpena aldatu zuten baina neurria ez, bi kasutan izan ezik; kasu horietan birmoldaketa hain handia izan zen, ezen tresneria berria eta langileen prestakuntza eragin baitzuen, beste gauza batzuen artean. Bizikleta eta josteko makinak kasua izan zen<sup>40</sup>.

Oroimenean errotuta dagoen eta harrotasuna eragiten duen beste ideia bat da, sormen industrialari eta berrikuntzarako gaitasunari esker hainbat objektu-  
ren patenteak erregistratu zirela;

eguneroko artikulua ziren, eta horietako batzuk gaur egun ere erabiltzen ditugu, adibidez, grapagailua.

Industria-erlaldaketa guzti hori ez zen eginahal eta sormen enpresarialaren emaitza soilik izan, beste babes batzuk ere jaso zituelako, hala nola, 1925eko industriaren eraldaketarako gobernu-plana.

Produktu berriak sortzeaz gain, armak egiten jarraitu zuten. 1930ean armagintzara dedikatzen ziren ehun eta bost lantegi eta tailer zeuden Eibarren. Lantegirik handienak 400 behargin zuten, laurogeita hemeretzi 20 eta 50 behargin artean, eta gainontzeko bost enpresetan, etxez etxeko langileak eta artisauak ziren<sup>41</sup>.

Industria-lanarez gain, Eibarko biztanle aktiboen artean baserriko lana ere bazegoen. Kalkulatzen denez, 20. hamarkada hasieran, Gipuzkoan, errola ekonomikoetan emakume baserritarrak kontuan hartu izan balira, emakumeen populazio ekonomikoki aktiboa, gutxienez, %20-25 altuagoa izango litzateke.

40. Juan Ignacio Paul Arzac, *Evolución de la industria...*, 51- 54 or.

41. *Ídem*, 54. or.



1948. urtea. ALFAko ekonomatoa.

EIBARKO UDAL ARTXIBOA.



©Eibarko Udal Artxiboa  
Archivo Municipal de Eibar



1945. urtea. Pieza-muntaketak. ALFA.  
EIBARKO UDAL ARTXIBOA.



Etxe-zerbitzuan eta erregistratu gabeko beste zerbitzu batzuetan lanean ziharduten beste emakume mordo bat ere gehitu beharko litzateke, eta horrek esan nahi du emakume-proporzio altua zegoela lanean<sup>42</sup>.

Goranzka zihoan industrializazio hark aldaketak eragin zituen Eibarko landa-eremuan eta baserrietako antolaketa ekonomikoan, gerora garesti irten zirenak. Proiektuko parte-hartzaileek go-goan dute gizonak lantegietara «jaisten» hasi zirela, baserria emakumeen ardura-pean utziz, eta lehen familiako kide gehiagoren esku (senarra, semeak, nebak) zeuden landa-eremuko lanak emakumeek egin behar izan zituzten. «Etxera aparteko baliabideak ekarri behar ziren, eta orduan, kalera irtetea erabaki zen soldata finko bat ekartzeko». Emakumeentzako lan-karga handiagoa eragiteaz gain, baserriko jarduera ekonomiko asko galtzen hasi zen, lan hura lehen egiten zen era berean egiteko gai-

tasuna ere txikitu egin zelako<sup>43</sup>. Gauzak horrela, nekazaritza-jarduera txikituz joan zen, eta autokontsumorako eta azokan saltzen diren ortu eta baserriko produktuen (esnea, arrautzak) eskala txikiko komertziorako bideratuko da.

*Baserrian emakumeak zituen ardurak ez ziren gutxi: etxea, umeak, familiaren zaintza –aita-amaginarrebena ere bai -, ustiaketa bere horretan –ortua, abereak... den-dena zaindu behar zuten-, lan handia zen<sup>44</sup>.*

*Arduretako asko amak hartzen zituen: azokara jaitsi produktuak saltzeko eta herriko produktuez hornitzeko; gaixoak sendagilera eramane, etb. Gizonek asko aportatzen zuten, baina amek askoz ere gehiago egiten zuten.*

*Produktuak bi modutan saltzen ziren: esnea, adibidez, etxeetan banatzen zen, atez-ate. Saltzeko beste*

42. Félix Luengo, «La mujer en el movimiento obrero...» 182. or.

43. Emakumeak baserriaren kargu egin arren, XXI. mendera arte (2011ko *Nekazaritza Ustiapenen Titulartasun Partekatuaaren Estatu Legearekin*) ez zitzairen legalki aitortu eta babestu landa-eremuan izan zuten erantzukizuna.

44. Ez dugu ahaztu behar orduko foru-legeak familiaren inguruko betebeharrak batzuk zekartzala berarekin, hau da, baserriak bertan bizi zirenei ostatu eman eta mantendu egin behar zituela zioen legeak; zeregin horiek, neurri handi batean, emakumeek egin behar izaten zituzten. «Emakumea baserriarekin ezkontzen zen».



**® Eibarko Udal Artxiboa**  
**Archivo Municipal de Eibar**

**Amama puntua egiten.** EIBARKO UDAL ARTXIBOA.

*modu bat azoka izaten zen. Azokan emakumeak ziren nagusi, saltzaille gehienak emakumeak ziren. Barazkiak, esnea, fruta, oilaskoa... saltzen zuten batez ere.*

Sasoi hartako baserriek ez dute gaur egungokoekin zerikusirik. Eibar industrial handituz joan ahala, baserriak, laboreak, bizitzeko erak, produktuak... desagertuz joan ziren.

*Orduan, senarra eta semeak enpresetara joan badira, emakumeak hartuko du beregain baserriaren eta familiaren ardura. Baina zer galtzen du baserriak? Emakume batek artalde bat edo zortzi behi manten ditzake. Baina ez du «ezer» lantzen (lehengoarekin alderatuz gero), ezin duelako. Senarrak, larunbatetan etxera datorrenean, belar txarrak kendu eta bestelako lan batzuk egin behar ditu (egin behar den guztia kontuan hartuta ez da nahikoa). Eta nik ezagutu nuen baserria, hazi ninduen baserria jada ez da existitzen. Zein da? Bada hauxe: nire etxean hamar behi euren txahalekin, bi txerri hortik, hogeita hamar oilo eta hogeita bost ardi. Gehi frutak, ortua, garia, babarrunak... horrek guztiak familia bat bizi izateko ematen zuen.*

Produkzio-kostutik harago, beste kostu bat familientzat izan zen, baserri-tarrek, askotan, lan-gaixotasun indize altua zuten lanak egiten zituztelako lan-tegietan:

*Gure gizonak enpresan lan egiteko baserritik jaitsi zirenean, diru hura erraza zela uste zuten, gogor egindako lan-ordu batzuk salbatuko zituztela. Alfak, adibidez, baserrietatik etorritako behargin asko izan zituen, mutil gazteak ziren, ia-ia osasuna ere galdu zuten, lanik txarrenak hartzen zituzten-eta. Galdategiko lanaren adibidea da hori. Dirua irabazi zuten baina zeren truke? Askok eta asko oso gazte gaixotu ziren.*

Kontakizun horiek nekazaritzaren eta landa-ekonomiaren gainbeherak sortu zuen errealitatearen zati bat laburbiltzen dute –ez Eibarren bakarrik, orokorrean baizik-. Aipatutako egoera horri nekazaritza-produkzioaren kostuen igoera eta enpresa handiagoen aurrean –gerora baita multinazionalak ere– tokiko produkzioen lehiakortasun eza gehitu behar zaizkio. Beraz, eibartarrentzat, soldatapean industrian lan egiteko baserritik «kalera jaitea» aukera bat izan zen, nahiz eta horren ondorioz baserria emakumeen ardurapean gelditu eta produk-



tibitatea murriztu. Parte-hartzaileek gogoratzen dutenez, hori guztia maila eta ondorio ezberdinekin gertatu zen, baldintzen arabera, alde nabarmenak zeudelako: tamainak, aberastasunak, herriarekiko gertutasunak... eragina zuten azpiegituran eta baserria kudeatzeko antolaketan.

Fase industrial honen hastapen-urte-etara itzuliz, 30. hamarkada hasieran egonkortasun ekonomikoa nagusitu zen Estatuan, baina gerra zibilak ondorioak ekarri zituen hortan ere, modu ezberdinetan. Eibarren, gerra aurreko egonkortasuna erlatiboa izan zen, 1931n Errepublikak armen gaineko lege berri bat ezarri zuelako, armagintzari murrizketak jarritz. Era berean, epe horretan eta atzetik etorri zen gerran, arma-enpresak Bizkaia, Asturias eta Valentziara eraman zituzten produkzioa eta gerra frontean babesteko. Okupazio frankistak tresneria eta piezak konfiskatu zituen enpresa askotan, eta beste enpresa batzuk, Unzetak adibidez, armak egiten jarraitu zuten, bando nazionalarentzat. Gerraren ondoren ez zen konfiskatutakoa itzuli, dirutan jaso zuten kendutakoa<sup>45</sup>.

Parte-hartzaile batek laburbiltzen duen moduan: «36. urtea etorri zen, sute eta hondamendiarekin, baina Eibar berriro eraiki zen, eta 40-50. hamarkadetan berreskurapena egon zen».

40. hamarkadak, non gerraostearen errealitatea luzatu zen, oinarrizko produkten falta, pobrezia eta bestelako eskasiak ekarri zituen; eta guzti horren erdian, emakumeek, estrategia ugari asmatu zituzten euren etxeei eusteko eta errazionamenduari eta diru-sarrerara ezari aurre egiteko<sup>46</sup>.

*Gerraostean, etxeetan, diru-premia handia genuen, eta 14 urterekin edo lehenago bidaltzen gintuzten lanera, edozer gauzatan lan egitera, adinez nagusizat jotzen gintuztelako, nahiz eta ez izan, baina gauza normalean, ondo zegoela uste zuten, premiagatik eta etxean laguntzeko egin beharreko zerbait zela. Irabazten genuen guztia familiarentzat ematen genuen. Familiaren eta aurrera egiteko lagundu behararen kontzientzia handia zegoen.*

.....  
45. 600 años...

46. Honi buruz irakur daiteke Arantza Lasaren, *Historia de las Mujeres...*, 117. or.

Baserriaren eginkizuna oso garrantzitsua izan zen egoera hartan. Ama esne-saltzailea izan zuen emakume batek horrela dio:

*Guk Legarre osoa elikatu dugure behien esnearekin; asko ez baguenen ere, baten batek beti esaten zuen: «Ene Josefina, botilatxo bat, mesedez!, konfiantzazko behi baten esnea gordeidazu, umeari, jada, ezin diot bularrik eman-eta!», eta beno, botila bat familia batentzat, beste botila bat beste batentzat, eta beste bat beste familia batentzat, eta...*

Herria altxatzen eta ekonomia berrakibatzen ahalegindu zen, eta autarkiak inposatutako garai protekzionistak industria suspertu zuen, herriarentzat oro har kaltegarriak ziren baldintzen erdian.

1941. eta 1950. urteen artean indar berriztuarekin hasi zen lanetako bat damaskinatuarena izan zen, eta zeregin horretan jardun zuten emakumeek. Baina ez zuten jarduera horretan soilik lan egin, beste alor batzuetan ere emakumeen demanda handitu egin zen, lan egiteko adina zuten gizonezko gutxiago zego-

lako eta soldata baxuak eskaintzen zituztelako. Eta hori guztia ideologia eta lege frankistek emakumeak etxetik kanpoko ordaindutako lanetik urrutiratu nahi zituzten unean gertatu zen. Hala ere, emakumeen etxetik kanpoko lana «bigarren mailakotzat» jotzen zen, ez bakarrik gizonetzko behargin gutxi zegoenean haiek ordezkatzeko zituztelako edo behargin «merkeago eta otzanagoak» behar zirenean eta lan-baldintza txarragoetan lanerako emakumeak hartzen zituztelako; baizik eta sozialki emakumeen lana familia-ekonomiaren osagarri hutsa zela pentsatzen zelako<sup>47</sup>.

Hala ere, «kontabilitatean, mekano-grafian eta takigrafian geroz eta prestatuago zeuden» emakumeek «Eibarko bulegoetan egiten zuten lan. Tailerretan ere egunero ikusten genituen, zailtasun handiko zereginetan, bizikleten gurpilak hariztatzen, muntatzen eta ardazten, beste batzuen artean», gogoratzen da ohar batean <sup>48</sup>.

Hamarkada horietan (XX. mendeko 40. eta 50. hamarkadak) bizikleten fabrikazioak indar handia hartu zuen. Bigarren Mundu Gerran eta gerraostean,

47. Arantza Lasa, *Historia de las Mujeres...*, 117, 144-145 or.

48. *La Gaceta...*, 8. or.

Eibarrek gerran jardun zuten herrialdeek utzitako merkatua bereganatu zuen, baina horrez gainera, bizikletak, garraio-bide moduan ospea hartu zuen, demanda handituz. Bizikleten produkzioa bizikletentzat piezak egiten zituzten tailerretan oinarritu zen. Sasoi hartan hasi ziren ziklomotorrak egiten, eta horrek, gerora automozio-industriarentzat osagarriak eta osagaiak egitera dedikatuko ziren enpresen sorrera ekarriko zuen. Beste gertaera garrantzitsu bat makina-erremintaren demanda eta produkzioaren hazkundea izan zen; sektore moderno hura XX. mendeko bigarren zatian loratu zen eta Eibarrek zeresan nabarmena izan zuen guzti horretan<sup>49</sup>. Urte horietan «Euskal Herriko industrialari askok pagotxa eduki zuten, filiazio politikoa bat edo beste izan. Hornitu gabe eta erabat babestua zegoen merkatuan euren produktuak oso prezio onuragarrietan jartzeko aukera izan zutelako<sup>50</sup>».

1950. urterako populazioak gora egin zuen. Industriaren gorakada eta dibertsifikazioaren eraginez, immigrazioa ere

hazi egin zen; hain zuzen, 1955ean Eibarren bizi ziren emakumeen ia erdia kanpoan jaiotakoa zen (%47). Ekonomikoki aktiboa zen emakumeen populaziotik %39 langileak ziren, %28 zerbitzariak, %6 enplegatuak eta gai-nontzekoek zeregin ugari betetzen zituzten, hala nola, mojak, andereñoak, bulegariak, telefonistak, farmazialariak, biltegizainak, raketistak, emaginak, mandatariak, kamarerak, sukaldariak eta jostunak ziren, beste batzuen artean. Hau da, mende hasierarekin alderatuta, lanbide administratiboak sortzen dira eta aurretiko beste lanbide batzuei eutsi zitzaien. Zerbitzuetako lana ez zegoen erroldetan jasota, baina badakigu 100 taberna eta jatetxetik gora eta 599 denda zeudela, eta horietan, zalantzarik gabe, emakume askok egiten zutela lan<sup>51</sup>. Aipatutako zereginetako batzuk industria, tailer eta dendetan burutzen ziren, eta beste batzuk, berriz, etxean bertan, egoera zibila eta beste baldintza batzuen arabera.

---

49. 600 años..., 41-44 or.

50. Francisco Javier Iza-Goñola de Miguel, «Luces y sombras de la industrialización vasca. 1880-1980», *Euskonews*-en, 629 zkia., 2012, 16. or.

51. Datu hauek Arantza Lasak *Historia de las Mujeres...* lanean jasotzen dituen erroldetan kontsulta daitezke, 146-147 or.

1936. urtea. ALFAko bulego administratiboa.

EIBARKO UDAL ARTXIBOA.





IMPRESA - LITOGRAFIA  
BELLESA - BUCHECADARRO  
**JESUS  
ALVAREZ**  
BILBAO

ABRIL	ABRIL
<b>8</b>	
LUNES	



1948 urtea gutxi gorabehera.  
Norma fabrikako fileteadorak.  
Sail honetan bizikleten koadroak eta urkilak  
apaintzeaz arduratzen ziren,  
margotuz eta eranskailuak jarriz.

EIBARKO UDAL ARTXIBOA. CASTRILLO ORTUOSTE FUNTSA



*©Eibarko Udal Artxiboa  
Archivo Municipal de Eibar*

60. hamarkadan boom industrialia gertatu zen Estatu osoan. 1957an Egonkortze Plana abiatzearekin batera, politika ekonomiko frankistan aldaketa gertatu zen; horrek kanpo-merkatuetara irekitzea ekarri zuen, hazkunde ekonomiko azkar baterako baldintzak sortuz, bereziki Euskal Herrian. Alfon, adibidez, «ez zen sekula 1959an bezain beste josteko makina egin eta saldu, ez lehenago ez gero. Eta Alfon bezala, gauza bera gertatu zen beste enpresa batzuetan ere<sup>52</sup>». Lan-terminoetan, proiektuko emakumeen gogoan dagoen sasoi hartan, Eibarren lan-demanda handia zegoen eta soldatak ere hobeak ziren Estatuko beste leku batzuekin alderatuz; ahaleginen sasoi da baina baita tailerrek, kooperatibak eta era guztietako negozioak abiarazteko sasoi ere; nahiz eta batzuetan, ahalegin horiek garesti irten: «oso hipotekatuak geunden, eta tailerreko beharginak izanda ere batzuetan sobrea falta zitzaigun», dio senarra «industrialaria» izan zuen andre batek.

Sasoi hartan bizitzako alor ezberdinetan ere gertatu ziren eraldaketak, eta hazkunde industrial eta ekonomikoa sortzeaz gain, gizarte-mota berri bat ere jaio

.....  
52. Francisco Javier Iza-Goñola, «Luces y sombras...», 16. or.





**1953. Eibarko telefonistak.**

EIBARKO UDAL ARTXIBOA. BENIGNO PLAZAOLA FUNTSA.



©Eibarko Udal Artxiboa  
Archivo Municipal de Eibar

zen. Aldaketa handiak gertatu ziren industria-ekoizpenean, lana antolatzeke moduetan, produkzio-motetan, produktuen kalitatean eta erabilera sozialean. Baina, eraldaketen artean nabarmentzekoa da etxetik kanpoko lanarekiko emakumeen jarrera aldatzen hasi zela, eta lege-aldaketak ere eman zirela (1961, 1962 eta 1970), emakumeek lan-merkatuan parte-hartzeko zituzten eragozpen formalak ezabatzeke.

Hala eta guztiz ere, emakumeek etxean lan egindako urteak, bizirauteke zereginak egiten edo tailerretarako «orduak sartzen», ondo finkatuta zeuden. Parte-hartzaileetako batek dio hamar lagunetik bera izan zela tailer batean lan egin zuen bakarra, eta gainontzekoek damaskinatuan jardun zutela, etxean. Beste batek hauxe du gogoan:

*Damaskinatua egiten Martineze-  
nean ikasi nuen, baina gero, nire  
etxean lan egitea erabaki nuen. Nire  
adineko neska gehiago zeuden ikas-  
ten. Haiek han gelditu ziren lanean  
baina ni nire kontura hasi nintzen,  
nire etxean. Etxera ekartzen zidaten  
lana, nik egin nezan. Etxean antolatu  
nintzen, damaskinatuak ez duelako  
leku askorik eskatzen. Bitxidenda as-  
korentzat egin nuen lan. Etxeko gale-*

*rian damaskinatua egiteke txokoa  
nuen nik eta amak beste bat zuen es-  
kopetak zulatzeke eta «txarolatua»  
egiteke. Nire etxea tailerra zen.  
Etxean lan asko egiten zen.*

*Emakumeek damaskinatu-lanak  
etxera eramaten zituzten baina, adi-  
bidez, Solac-en plantxekin lan egiten  
zuten emakumeei ere, etxera erama-  
ten zieten lana eta su txiki elektrikoak  
ere etxean egiten zituzten.*

Kontakizun horiek erakusten dute nola industriarako lan egiteke aukerek (baina industriatik «kanpo»), sasoi ohi-tura eta bestelako baldintza batzuekin batera, «sukalde bakoitza tailer bat izate» ahalbidetu zuten. Autoenpleguaren kultura ere bazegoela erakusten dute. Bizimodua ateratzeko edo diru-sarrerak sortzeko premia –murriztu edo, gerora, baimenduko luketen lan-legeetatik harago, Eibarko emakumeen ausardiarekin lotzen da emakumeen diskurtsoan. Irudi, anekdota eta oroitzapen ugari daude, emakumeena, euren etxeetan jo eta ke beharrean: «klin, klin, klin, klan, klan, klan», objektuak fabrikatzen edo horiek egiaztatzen, edo arropa egiten, edo negozioak atenditzen –erditze-egunera arte-, eta negozioak gidatzen. Nahastu egiten diren sasoi ezberdinetako adibi-

deak dira, guztietan bereizten direlako Eibarko emakumeak ausartak, borrokalaria eta independenteak izateagatik.

Eta, zorionez, emakume horiek, euren ahaleginentzako mesedegarria zen inguru batean bizi ziren. Industria zabalak eta tokiko garapen ekonomikoak, «neskatilak ginenetik lan egiteko» aukera eskaintzen zien eta ezkondu eta gero ere lanean jarraitzeko aukera ere bai. Tailer horietan lan egitea lan-aukera bat zen, ezkonduetako emakumeak taillerretik kanporatzearen aurrean: «hemen-dik kanpora, lantegirik ez zegoenez, emakumeak... zer egingo zuen?!», galdetzen diote euren buruari.

Saso moderno eta indartsu hartan, emakume askok lanbide liberal, administratiboak eta negozioetakoak ere burutu zituzten. Amaya Telleriaren figura nabarmendu daiteke; 1958. urtean, Industrias Amaya Telleria sortu zuen, bertan ez eze nazioartean ere ospea izan zuen enpresa. Taldean «emakume enblematiko» moduan gogoratzen dute. Parte-hartzaile batek honela dio:

*Gaztetatik, ez dakit zein tailerretan egiten zuen lan, eta guretako harrigarria zen ikustea nola hartzen zuen erreminta-kaxa eta Untzagatik pasa-*

*tzen zen, zapatu edo domeka baten, edo dena delakoa, eta lanera zihoan, ez zuen ez konplexurik ez ezer».*

Industriaren hazkundeak immigrazioa ekarri zuen berriz ere:

*Estatu osotik etorri ginen Eibarrera lan egitera, lan asko zegoen-eta. Gizonak industriari sartzen ziren eta emakumeak ere bai, baina orduan – gaur egun bezala- kanpoko emakumeek egiten genituen lan gehienak zerbitzu-erakundeetan ziren, ostalaritzan edo etxeetan, hau da, etxeko langile moduan, demanda handia zegoen-eta. Ostalaritzan jardun genuen emakume gehienak etorkinak ginen, bertakoek, lehen eta orain, ez zutelako lan horien prekarietatea nahi. Lan horietan gehiegikeri asko zegoen, baita gaur egun ere. Gizarte segurantzian alta emango zigutela esaten ziguten baina gero ez zuten horrelakorik egiten. Eta ez zegoen hitzarmenik. Orain lortu bada borrokari esker izan da.*

Hainbat ikerketak diote «desarrollismoak» lana garatu beharrean suntsitu egin zuela, sektore arteko aldaketa hutsa besterik ez zelako izan. Lehenengo sektorea desagertu egin zen, eta langileak

bigarren eta hirugarren sektorera pasatu ziren; landa-eremutik hirira migrazio masiboa eraginez<sup>53</sup>.

Bizitza urbanoa finkatzeak enplegu berrien sorrera ekarri zuen Eibarren eta lan-postu horiek emakumeek bete zituzten; izan ere, lanerako aukera asko aurkitu izan dute betidanik emakumeek Eibarren, zerbitzu-hornitzailea delako, merkataritzan, osasunean, hezkuntzan, komunikazioetan, prostituzioan eta beste askotan<sup>54</sup>. Taldean kontatzen denez, gizon asko baseritik enpresetara lan egitera joan ziren moduan, emakume asko «jaitsi» zen etxeetan zerbitzatzera, jatetxeetan lan egitera... eta beste batzuk –batez ere lehen- «moja sartu» ziren. Hau da, emakume asko baserriko zereginak uzten joan ziren hiriko lan feminizatuetan lan egiteko, ostalaritzan eta etxeetan.

Batzuek gogoan dute, alargunentzat, lan horietan jardutea eskura zuten auke-retako bat zela: «alarguna, seme-alabekin, ez zuten inon nahi, nire amak bizitakoari buruz ari naiz».

*Eta gero, ni ere alargundu nintzen, lau seme-alabarekin, eta tailerrak ziztuzten ezagunak nituen eta galdetu nien, «lanerako hartuko nauzue?», «nahikoa daukat nik barruan ditudan langileak mantetzen!»; ezagun batek hori esaten badit nola hartuko nau ezezagun batek!, edo interina moduan egiten genuen lan edo bestela ezin lanik egin, eta alargun gelditu garenok etxeak garbitzen, gutunak banatzen, zaharrak eta umeak zaintzen egin dugu lan.*

Enpleguen aniztasun eferbeszente horretan pentsatzen, eztabaida-taldeak ogibide eta lanen zenbaketa egin zuen, enpresa edo industrietan zuzenean egindako lanetatik harago, zeinak etxetik kanpo eta barruan egiten ziren. Etxeari lotutakoak bi taldetan bereiztu ziren: norbere etxean egindako lanak (patroia, etxetresna elektrikoaren piezen muntaketa, ileapaintzailea, damaskinatzailea, grabatzailea, galtzagilea, modista, jostuna, jertsegilea, brodatzailea, galtzerdiei puntuak hartzea, eta etxeoandrea) eta besteren etxean egindako lanak (neskamea, lixatzailea, sukaldaria, zaintzailea, umezaina, inudea). Eta beste multzoa

53. Francisco Javier Iza-Goñola, «Luces y sombras...», 20. or.

54. Arantza Pareja eta Karmele Zarraga, *Profesiones, oficio y tareas de las mujeres en Bizkaia. Imágenes de ayer y hoy*, Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo, 2006, 155. or.

etxetik kanpora egindako lanena da, horien artean: produktuen eskaintza (saltzailea ibiltaria, esne-saltzailea, baserritarra, saltzailea) eta zerbitzu-eskaintza (emagina, mandataria, zahar eta gaixoen zaintzailea, prostituta, modista, jantzigintzako irakaslea) eta ostalaritzako jarduerak (garbitzailea, kamarera, sukaldaria).

Ez ohiko bereizketa horrek ez ditu agortzen emakumeek sasoi hartan burutzen zituzten lanbide eta jardera ugariak eta, gainera, emakumeenak soilik ziren lanbideak eta ez ziren beste batzuk ere hartzen ditu barne, hala nola, mandataria, produktu-eskaintzarekin lotutako jarduerak edo ostalaritza; baina nabarmentzen dena da «dirua ateratzeko» jarduera ekonomiko eta espazio eta aukera ugari zegoela, nahiz eta askotan oso baldintza kaskarretan izan.

Ordainketa —edo ordainketa eza— eta okupazio horietako bakoitzak Gizarte Segurantzarako sarbidearekiko duen erlazioa, gai garrantzitsutzat hartzen da gaur egun, emakumeen jarduera eta ogibide horien zenbaketan eta balorazioan. Taldeak ondo sintetizatzen duen moduan: «tailerrean makinarekin lan egitea aitoritutako lana zen, makina berberarekin etxean lan egitea, aldiz, ez».

Halaber, Eibarko industria-dinamika ulertzeak, etxebizitzaren espazioa eta ordaindutako lanaren arteko muga lauso horiek ulertzea dakar: etxean egiten ziren lan guztiak ez ziren gauza bera, batzuk enpresentzat egiten ziren, beste batzuk ez, eta kasu batzuetan enpresak etekin batzuk luzatzen zituen eta beste batzuk ez. Emakume bakoitzarentzat lanbide bat edo beste burutzeak esan nahi zuena ere desberdina zen; lan batzuetan «inbertitu» beharra zegoen, eta beste batzuetan, aldiz, ez zen aparteko ekipamendu edo materialik behar jarduera haiek egiteko.

Industria-produkzioari dagokionez, urte haietan zeuden enpresak finkatu egin ziren eta berriak sortu ere bai. Berezi, bizikleten aurretiko goraldiari motozikletena gehitu zitzaion. Hainbat mota egin ziren, baina, Lambretta, ikonoa izatera ailegatu zen 60. hamarkadan, Espainia osoko askatasun-sinboloa, eta Eibarren egindakoa zen.

Aipatutako emakumeen lanaren inguruko lege-aldaketek, lan-munduan sartzeko baldintza hobekak ekarri zituzten emakume guztiei, baita ezkonduetakoei ere. Baina 70. hamarkadan, oparoaldia baino lan-postu galera etorri zen industria-sektorean.

## Zerbitzuen Eibar

Sasoi honetan «industria desagertu egin zen Eibarren», hau ere birmoldaketan garaia da, baina oraingoan, aldaketa ez dago lotuta produktu bat edo beste fabrikatzearekin, baizik eta batez ere zerbitzuetara dedikatuko den hiri bat eraikitzearekin dauka lotura.

«Eibar arrakastaz hil zen 70-75. urteetan», diote parte-hartzaileek. Euren ikuspegitik, aurreko urteetan, industria, neurrigabe hazi zen, gehiago hedatzeko modurik gabe gelditu arte.

*Eskaera handi bat egiten zizuten eta makina handi bat erosi behar zenuen, eta horma bota behar zuten sartzen ez zelako. Hainbat industrialarik Donostiako soziologo-enpresa batek egoera horri nola aurre egin azter zezala erabaki zuten. Urte eta erdi egon ziren bilerak egiten egoerari nola aurre egin pentsatzeko. Eta ikusi zuten ez zegoela irtenbiderik. Eibar txiki geratu zen, arrakastaz hil zen.*

Ez zegoen hazten jarraitzeko adina lekurik. Enpresak ere ezin ziren lehen mo-

duan kudeatu, beste eskala edo eskakizun batzuk zituztenean moduan. Orokorrean, euskal industriaren garapena «teknologia baxu edo ertain» batean oinarritu zen, desegokia bihurtzen joan zena. Hain zuzen, pixkat aurrerago, 80. hamakada hasieran, uholdeak eta haiek eragindako kalteen balorazioaren ondoren ikusi zen «kaltetutako tresneria gehiena 1910. eta 1920. urteetako zela<sup>55</sup>».

Industrian bereziki eragina izan zuten gertakarien artean hiru fenomeno ditugu: petrolioaren krisiak (bata 1973-1974 urteetako eta bestea 1979koa); petrolioaren prezioaren igoerak aurretiko hazkundera geldiarazi zuen, produkzioa geldituz eta inflazio ekonomikoa eta langabezia sorraraziz; beste herrialde batzuetako industria-hazkundera, horrek zekarren kompetentzia handiagorekin – barnekoa, produktuen inportazioarekin, zein kanpoko; eta produkzioarako tasinguru berri bat, zeinak produkzio-teknologia berriak eta kontsumo-modu berrietara egokitzea eskatuko duen.

Gainera, XX. mendeko 70. hamarkadak, aldaketa ekonomiko, politiko eta

---

55. Francisco Javier Iza-Goñola, «Luces y sombras...», 21. or.

sozial handiak ekarri zituen. Trantsizio politikoko urteek ere, 1975ean Franco-ren heriotzarekin, ez zuten krisi ekonomikotik irtetea erraztu. Sistema protekzionistaren pitzadurak bereziki eragin zion Euskadiri. Aldarrikapen sozialek bultzada izan zuten. Emakumeek gogoan dute lan-eskubideen aldeko langileen mobilizazio-kopurua hazi egin zela eta «oso greba gogorak eta era guztietakoak» egin zirela.

Proiektuko emakumeak urte haietan berriz ere sartu ahal izan ziren lan-merkatuan inolako eragozpen formalik gabe, eta euren hitzetan, horrek, «lan-eskubideen kontzientzia handiagoa eta aldarrikapen sozialetan, elkarrekin... parte-hartze altuagoa» ekarri zituen, hau da, lana helburuak zabaltzeko, pertsona eta ideia ezberdinekin kontaktuan jartzeko espazio moduan gogoratzen dute.

Garaiko mugimendua adierazten duen adibideetako bat «erresistentzia-kaxa» deritzona da; beharginek aportazio ekonomikoak egiten zituzten fondo bat sortzeko, enpresa batean greba egin ez gero langileei babesa emateko: «beste uneren batean zuri tokatzen zizaitzaizun, edo beste enpresa batek egin zezakeen greba». Langile-mugimendua-ren aldeko estrategia hau lan-espazioe-

tatik harago zabaldu zen: «kuadrilla ba-koitzak ere bere erresistentzia-kaxa zuen», asaldaketa laboral, sozial eta politikoko hartan arriskua bistakoa zen-eta.

Egoera hura mobilizazioek, eskubideen kontzientziak eta bizitzeko beste era batzuk irudikatu eta desiatzeak markatzen zuten, baina ez lanarekin lotuta soilik, baizik eta zentzu zabalagoan: «75. urtetik aurrera etxebizitzarekin lotutako eskubideen mugimendua sortzen hasi zen. Hor hasi zen etxebizitza-eredu berri bat exijitzen, intsonorizatu», hau da, pertsonen jarrera zaratarekin, kearekin... aldatu egiten da, laneko espazioak bizitokietatik bereizten dira: «enpresak betidanik egon ziren etxabe-etan, tailerretan, eta gero, bat-batean, hori guztia antiproduktiboa zen, anti dena!».

Jarrera horiek, arauketen eta udal-ordenantzen aldaketan eskutik, industriak beste leku batzuetara irtetera behartu zituen, baita herritik kanpora ere, eta industria, pixkanaka, desegiten joan zen. «Lehenengo Elgoibarrera joan ziren, gero Arabara eta aurrerago beste lurralde batzuetara», gogoratzen dute. Enpresarietako batek bere tailerrean izandako arazoa gogoratu du:

*Bizitzera etorri berria zen bizilagun bat kexatu egin zen zaratarengatik, eta lokala uzteko eskatu zigun. Lokala handituta nuen, 16 ordu egiten genituen lan, gaeuz ez, tailerra etxebizitza baten azpian zegoelako, baina bizilagun hark hainbat salaketa jarri zituen. Esaten zuen zoparen platera mugitu egiten zitzaiola. Udaletxea neurketa egitera joan zen, gehiengoa 60 zen eta tailerra martxan zegoenean 90 neurtzen zuen... Eta alkateak gutuna bidali zidan, leku hura utzi egin behar nuela esanez. Eta nora joango naiz? Azkenean industria-pabilioi bat lortu genuen eta lekuz aldatu ginen.*

Horren emaitza da gaur egun «Eibarren lantegirik gabe bizi garela, lehen pentsaezina zena». Arrazoiak hainbat eta ezberdinak dira, ez arrazoi geografiko edo urbanistikoak soilik, baizik eta baita fiskalak, politika ekonomikokoak, teknologikoak, bankarioak, etb. ere, eta arrazoi horiek tokiko zein nazioarteko testuinguruan aurki ditzakegu<sup>56</sup>. Baina hortik harago, egoerak herria eraldatu zuen, eta bertako bizilagunei eragin, emakumeei bereziki. Parte-hartzaileen esanetan, industria-desegitearen ondo-

rioz, behargin gehienak emakumeak ziztuzten lantegiak desagertzen joan ziren:

*Arduradunak gizonezkoak ziren, beharginak, berriz, andrak. Eta lan barik gelditu ziren. Protestak eta bestelakoak egin zituzten. Beste leku batzuetan eskaini zieten lana (Gasteizen, etb.,) baina emakumeentzat, gizonezkoentzat ez bezala, zailagoa zen alde egitea. Horrek guztiak geldiarazi egin zuen belaunaldi hartako emakumeen lana, eta egoera hark orain 60 urte inguru izango duten emakumeen jubilazioa baldintzatu du, kotizazioan eragina izan zuen-eta.*

Desindustrializazioaren beste ondorio batzuk familiek horrenbesteko esfortzua-rekin eraikitako ondare eta negozioen jarraipenarekin lotuta daude. Euren enpresa edo komertzioak bultzatu, kudeatu eta mantendu zituzten emakumeek ikusten dute negozio horiekin jarraituko duen hurrengo belaunaldirik ez dagoela (ezta euren familian bertan ere). Horrek euren negozioen eta seme-alaben etorkizunari buruzko galdera eragiten die: zeinek heredatuko du nire

.....  
<sup>56</sup>. Sasoi hartako industria-eraldaketan eragina izan zuten elementuen laburpena kontsulta daiteke hemen: Francisco Javier Iza-Goñola, «Luces y sombras...».



negozioa? Haustura dago helburuetan eta baita eskura dauden aukeretan ere. Zerbitzuen Eibar berria, «eskasiak», edo hobe esanda, lor daitekeen lan-motaren inguruko ziurgabetasunak markatzen duela uste dute.

Belaunaldi arteko haustura hori eta aukera eza emigrazioan ere igartzen da: «Eibarren betidanik izan ditugu ondo prestatutako belaunaldiak, baina garai hartaz geroztik ez dira hemen gelditzen. Irten beharra dute».

Zerbitzuen Eibar horretan, zeini iragan industrialak uztea kostatzen zaion, baserria berpiztu egin zen, eta eraldatu. XX. mende amaieran eta XXI. mendearen hasieran baserria berregituratu egingo da, gobernuen babesaren duten forma ekonomiko berriei antolatuko da: landa-turismoa edo ekonomia berdea. Baina, egia da, baserri gutxiak lortu dutela desaktibazio-prozesua eta lan-ekonomiaren uztea gainditzea eta aldaketa horiei ekitea.

*Baserriak, gaur egun, produktu-otarrak eskaintzen ditu kontsumo-tal-deetan, edo produktu ekologikoak eta kalitatezkoak, gazta edo ogia, esaterako, internetez edo belar-denden bitartez eskaintzen dira, eta baita enkarguz ere.*

Hainbat emakume baserritarrek diotenez, «landa-turismoa irtenbidea izan da baserrietako ekonomiari irteera emateko, ekonomia-sistema beheara zeto-rreren-eta», baserriari eusteko soluzioa izan da eta emakumeak protagonista izan dira birmoldaketa horretan, iniziatiba izan dute eta aurrera egiteko gaitasuna; gaur egungo ikuspuntutik begiratuta «ekintzaileak» izan dira.

## «Beste sasoi bat zen»

«Eibar» ezberdin hauek zeharkatuz nabarmenak dira denboran zehar izandako desberdintasunak, hausturak eta jarraitutasunak. Eibarko kultura industrialean eta bizitzeko modu eta esperientzian emakumeentzat bereziki garrantzitsuak diren hainbat elementu daude, historia hau gaur egungo begirada batetik kokatzen laguntzen dutelako, nahiz eta askotan, euren kontakizuna, iragan lauso batean gelditu. Elementu horietako batzuk lan-modu eta erlazioekin dute zerikusia, beste batzuk ekonomia eta kontsumo-arekin, beste batzuk herriaren izaerarekin, eta beste batzuk hiri-, hezkuntza- eta gizarte-hazkundearekin.

Parte-hartzaileen ikuspuntutik, bizi izan zuten Eibar industrialaren gremioenaren bestelakoa izan zen, baina gremio-ideiaren hainbat ezaugarri bizirik diraute oraindik. Hau da, antzinako armagintzari lotutako lan egiteko hainbat moduren jarraipena aitortzen dute, horien artean ekoizpen atomizatua edo industria laguntzailea; tailer txiki askoren lana sartzen da hor, bertan egiten zituzten artikuluekin neurri edo konplexutasun handiagoko artikulua egiten ziren, eta emakumeek, hor, etenik gabe egin zuten lan.

Horrek, aldi berean, espezializazioa ekarri zuen, eta parte-hartzaile askoren esanetan espezializazio hura kultura industrialarena ez ezik, nortasun pertsonal eta laboralaren ezaugarria ere bada.

Halaber, gremio-iragana, artisaua ez eze artistikoa ere baden lanaren tradizioan aurki daiteke, non emakumeek jardun eta nabarmendu ziren XIX. eta XX. mendeetan, batez ere damaskinatzaile eta/edo grabatzaile moduan. «Damaskinatua artea da», gogoratzen dute emakumeek behin eta berriz. «Toledon ere egiten zen baina Eibarko damaskinatuak ospe handiagoa zuen, estilo finagoa zen», diote.

*Cadenas Iris-en oso lan polita egiten zen, eta emakumeek egiten zuten. Kateak egiten ziren bizikletentzat, itsasontzientzat... Hagatxo batzuetan piezak sartu behar zituzten eta lan polita zen. Haria ematen zutenek bizikletekin egiten duten bezala –bizikleten koadroak margoitzen zituztenak- pultsuan egiten zuten eta emakumeak ziren. Lan asko zegoen, polita eta fina. Helmotz eta Solac-en ere bai, plantxetan eta etxetresna elektriko txikietan: denak ziren emakumeak, eskuetan eskatzen zen trebetasunarengatik, oso bihurkin txikiak erabiltzen genituen.*

Industria garaikide batzuk puntako teknologien eskutik hartu zuten bidea, mikrofusioarekin adibidez, talentuari teknika gehituz, orain dela mende batzuk grabatutako armekin egiten zen moduan, edo orain dela hamarkada batzuk «Eibarko objektu» zoragarriekin: «Mikrofusioan magia egiten dute argizaria-rekin. Artea da, arte hutsa».

Hainbat emakumeren esperientzian, eurek lan egin zuten 60. hamarkadetan, industria-sektore edo profesionalen bat gremio-ideiarekin lotzen da, industria edo tailer jakin batzuk eta horien behar-

ginen artean sortzen zen loturarengatik; eta, gainera, kasurik onenetan, ogibide-etatik sortutako partaide izate eta/edo komunitate sentimenduarengatik.

Sektore- edo gremio-ideia horrek indarra hartzen du pertsona batek gremio horretara sartzeko zuen modua kontuan hartzen badugu. XX. mendeko enpresetan oso ohikoa zen umeek lan egitea, «botijero» edo laguntzaile moduan; zeregin horrek tailer edo lantegi barruan egoteko aukera ematen zien eta, bide batez, ogibidea ikasten zuten.

*Botijeroak 14 urtetik beherako umeak ziren. Ura jasotzen zuten tailerretara eramateko. Umeak besterik ez ziren. Botijero moduan hasten ziren, gero tailerrera pasatzen ziren laguntzaile moduan, enkarguak egiteko... baina lantegian sartu eta bertan gelditzeko modua zen. Lan egiteko adinik ez zuten, horrela hasten ziren. Eta Armeria Eskolan ere hitzarturik zituzten tailerrak, eta sanjuanak, eta horrekin batera oporrak, ailegatzen zirenean, Eskolan limatzen erakusten bazieten, mutikoak lehe-*

*nengo tailerretara joaten ziren eta burdin-totxoak ematen zizkieten ikasi eta praktikatu zezaten.*

Neskatilak aukera horretatik kanpo gelditzen ziren, baina ez erabat. Emakume batek gogoan dauka: «Hamabost urterekin Alfan sartu nintzen. Hasieran laguntzaile edo ikastun moduan sartzten ginen beti.» Baina neskak ez ziren mutiak bezain goiz eta proportzio berean hasten lanean, eta gainera, askotan, etxean bertan edo familiaren negozioetan egiten zuten lan.

Lanean sartzeko modua ezberdin hori maisu armaginekin eta/edo Marrazki Eskolan eta, XX. mendean, industrietan eta Armeria Eskolan<sup>57</sup> trebatzen ziren antzinako ikastunen luzapena da; jardute horrekin gizonentzat errazagoa zen tokiko enpresetan erantzukizuneko karguetara ailegatzea edo euren tailer propioak izatea<sup>58</sup>. «Orain dela 20 edo 30 urte tailer batean lanean hasteko ere abantaila zen Armeria Eskolan ikastea, oinarri inportantea bazeneukalako jada, eta Armeria Eskolak ospe handia zuen», dio partehartzaileetako batek.

57. Eskolari buruzko informazio gehiagorako kontsultatu: Igor Goñi, «Eibar y la industria armera...», 24. or. eta ss.

58. Ikus: Igor Goñi, «La internacionalización...», 84. or.

Prestakuntza profesionalerako aukerak emakumeentzat ere zabaltzea aldaketa handia izan zen. Hamarkada honetan Armeria Eskolan sartu ziren. Eskolako zuzendaritzako kide ohi batek gogoratzen duen moduan, 1971n Ikasleen Guraso Elkarteak sortu zen eta alabengatik inguruko kezka agerian gelditu zen. Eskolak, ordura arte, «mutilak onartzen zituen, neskarik ez, ordea», eta gaia Zuzendaritza Kontseiluan mahaigaineratu zen. Handik gutxira sartu ziren Eskolan lehenengo zazpi neskek; «euren promozio mutilak baino zertxobait nagusiagoak ziren, Batxilergoa egina zuten-eta». «Delineazio Industrialaren espezialitatean» sartu ziren; ordu asko eman behar zituzten tente «marraketa taularen» aurrean, planoak eta marrazkiak egiten». Ikasketak teknikoak egiteko aukera izan zuten lehenengoak izan ziren, eta atzetik etorriko ziren neskei bidea ireki zieten, baita beste espezialitate batzuetan sartzeko bidea ere. «Horrez gainera, enpresariak ekar zitezkeen inplikazioetara ere egokitu behar izan zuen (...), haien ikasleek moduan, ikasketak amaitu eta

gero enpresei eskaini behar zieten euren burua, «emakume izateak» zekarren zailtasun gehituarekin, eta ordura arte, enpresa haietan egin gabeko bideak ireki behar izan zituzten<sup>59</sup>».

Gaur egungoarekin alderatuta, gaurko profesional edo enpresariarako aukera handi edo txikiak eskala ezberdina zuten:

*Lehen, ekintzaile izatea, makina bat epeka eskatzera joan eta tailertxo bat jartzea zen. Gaur egun, ekintzaile izateak, askoz baliabide gehiago eskatzen ditu. Lehen zuzendari bat eta beste lau gauzarekin tailer bat muntatzen genuen. Orain ez.*

Aldea, industriaren sofistikazioan eta horrek eskatzen duen ezagutza, baliabide finantzario eta etengabeko eguneratze edo berrikuntzan ez ezik, «mentalitate aldaketan» ere badago. Bizitza eta kultura ezberdinak dira zentzu askotan. Adibidez, enpresa-mailan, kalitatearen inguruko akreditazioak, ziurta-

---

59. J. A. Arkotxa Ituarte, «Homenaje a las alumnas de la Armeria», *Eibar HERRI ALDIZKARIA*, 110. Zkia., 2012, 13. or. Oharra: omenaldi honen informazioa sasoi hartan Ikasketak Burua zenak sinatuta dago, eta hark zioen lehenengo neska ikasleak aipatutako zazpi horiek izan zirela (Marian, Estitxu, Lorena, Esther, Feli, Casilda eta Lorena -abizenik gabe-); hala ere, beste iturri batzuetan, Arrate Iriondo aipatzen da Armeria Eskolako lehenengo ikasle gisa, 1970-1971 ikasturtean eman zuen izena (Arantza Lasa, *Historia de las Mujeres...*, 135. or.).

giriak eta araudiak hazten hasi ziren, eta horrek guztiak lana eta ekoizpena ulertu eta antolatzeko beste modu bat eskatzaren zuen:

*Enpresa berrikustera zetozen eta hara ze itxura genuen!*

- «C kalifikazioa duzue»

- «Zer?, ez, ez!».

- «Ba, 3-4 hilabete emango dizkizuegu kalifikazioa aldatzeko».

*Gauza mordo bat aldatu behar genituen! Harrituta gelditzen ziren, nola egon gintezkeen han lanean, automobilarentzako, horrela. Eta horrela egiten genuen lan, baina akreditatu beharra zegoen...*

Oro har, negozio baten gaitasuna eta itxaropenak bestelakoak ziren:

*Lehen dena zen epe luzera. Makina bat epeka ordaintzen zen, jakinda, hamar urte inguru beharko zirela ordaintzeko. Gaur egun makina bat erosi eta berehala gelditzen da zaharkiturik. Ezin dute inbertsioa amortizatu. Lehen soldata oinarritzkoa zen etxera eramane eta aurrera egiteko. Orain ez.*

Biziraupen-enpresa asko zegoen, moduren batean esatearren. Etekin txikiko

enpresak ziren, sakrifizioarekin eta konstantzia handiarekin sortutakoak, egin ahala ikasiz, ordu asko lan eginez; batzuk uzten joan ziren, jasanezinak zirelako edo ideia berrien ondorioz –batzuetan arau moduan eratuak– aldatu egin zirelako. Horien adibide dira ordutegi eta lanegunen arauaketa; gai hutsala ematen du baina erabateko aldaketa eragin zuen ordukoen bizimoduan. Aita janari-denda bateko jabe zuen emakumeak honela kontatzen du bezeroen erreakzioa:

*Lehen domeka eguerdira arte irekitzen zen. Ixten hasi zenean –udal-txeak domeketan ixtera behartzen gintuen– emakume batek esan zigun: «Juanito, eta kafea falta bazait, ez dakit zer falta bazait?», «Etor zaitez nire etxera eta ekarriko dizut nik» –aldameneko peoran bizi ginen–. Aitak soingainekoa zeraman eta poltsetan sartzen zuen kafea edo dena delakoa eta emakumeari ematen zion etxera zoanean. Pertsona batzuk estutu egiten ziren domekan ezer gabe gelditzen zirelako... Hori hirurogeigarren hamarkadan izan zen.*

Eszenatoki berri horretan, lan-harremanak ere eraldatu egin ziren: «lehen, enpresaria, behargina zen, eta hori izan da Eibarko industriaren ezaugarrietako

bat. Orain, aldiz, markaketa dago». «Behargin mentalitate» ere aldatu egin zen; emakumeek ondare amankomun gisa gogoratzen dute mentalitate hura, harreman horizontaletan zegoen oinarritua, eta aurrera egiteko, negozioak birmoldatu edo asmatzeko edota krisiak gainditzeko ahalegina partekatzeak harrotasuna eragiten zuen.

Familia-ekonomiari dagokionez, gaur egungoaren oso bestelakoa zen orduan:

*Lehen kredituetaz bizi ginen. Gogoan dut, Bidebarrietan, gizon batek aseguruak, oihalak, kateak, denetik saltzen zuela, kreditu bidez! Oso ohikoa zen. Beharginen familiak horrela bizi ginen, kredituan. Hilero x pezeta ordaintzen joaten ginen. Sasoi hartan bankuek ez zuten gaur egun moduan kredituak ematen. Bizitza gogorragoa genuen baina, denak antzerako bizi ginenez, ez genuen gaur egungo muga ikusezinekin bizi ginen sentsuziorik. Orain desparekotasun ekonomikoa agerikoagoa da. Pegora berean zailtasun ekonomikoak dituen familia bat eta askoz hobeto bizi den beste bat bizi daitezke.*

*Ekonomia administratzeko modu bat ere bazen. Gutxiago irabazten*

*zen, diru gutxiago genuen esku artean, baina aurrezteko modu bat zen, horrela ulertzen genuen ekonomia. Lehen ez genuen arropa edozein momentutan erosten, sanjuanetan, Errege egunean edo sanandresetan erosten genuen. Arropa gutxiago genuen, ez genituen lau txaketa, hamar prakak –gaur egun bezala-, ez! Horrela ulertzen zen ekonomia. Eta adi ez zebilenak arazoak izaten zituen. Desberdina zen. Dendetan ere ez zegoen horrenbeste gauza.*

Kontsumo eta ekonomia «mugatu» horren ondorioz, emakume askok josten ikasi zuten, euren eta familiaren arropa egiteko edo premiazko konponketak egiteko, eta beste batzuk jostunengana jotzen zuten konponketak egiteko edo arropa neurrira egiteko. Horrek azaltzen du emakumeek zeregin horrekin lotutako zenbat lanbide egiten zituzten etxe barruan; baina gogoan dute, sasoi aldatetarekin batera, lan horietako askok premiazkoak izateari utzi ziotela, adibidez, jertse-egileen lana amaituz joan zen «orain jende guztiak dendan erosten du» zabaltzen joan zen heinean, eta gauza bera gertatu zen «galtzerdiei puntuak hartzeko» jarduerarekin ere. Horrela, dendetako eskaintza handitu eta kontsumitzeko erak aldatu ahala, ema-

kumeen hainbat lanbide eta diru-sar-  
ren iturri desagertuz joan ziren: «orain  
dena da erabili eta botatzekoa» edo  
«denboraldi bakoitzean aldatu egiten  
da», lehen ez zen horrelakorik gertatzen.

Eraldaketa jasan duen beste eremu-  
tako bat familia izan da, eta amaren fi-  
gura ekonomia-kudeatzaile moduan ere  
bai; aurrez aipatu den moduan, familiako  
kideek gaztetatik egiten zuten lan fami-  
liara dirua eramateko. Dirua etxean ema-  
ten zen, eta amak administratzen zuen:  
«sobrea ematen genion», edo familia-  
negozioan kolaboratzen zen, gazte-gaz-  
tetatik: «Nire familian janari-denda izan  
genuen, eta mostradorera ailegatu au-  
rretik (alturari buruz ari da) laguntzen ari  
ginen».

*Aitarekin joanda nago ni bankura,  
kontuak ematera, kontabilitatea ikasi  
nuen bakarra nintzen-eta. Mostrado-  
rea honaino ailegatzen zitzaidanean  
(sudurreraino) Banco San Sebastián-  
era eramán ninduen! nire koaderno-  
arekin...*

Esperientzia horiek bat datoz sasoi  
hartako ehun industrial eta ekonomiare-  
kin, eta baita lan-merkatuan sartzeko  
moduekin ere. Emakumeek gogoan  
dute: «goizeko 6etan edo 7retan esna-

tzen ginen denak lanera joateko. Umeak  
ere bai, orduan, etxe bakoitzeko premien  
arabera, 14 urteak bete baino lehen ere  
lan egiten zen»; eta are gehiago 60. ha-  
markada inguruan; esaten denez, behar-  
ginen seme-alabak udako hilabeteetan  
orduak egiten zituzten leunketan edo  
bestelako zereginetan: «Amak betidanik  
egin du lan etxetik kanpora eta aitak,  
udan, tailerrera eramaten gintuen. Oso  
familiarra zen».

Halaber, ehun ekonomikotik harago,  
inguru sozial, kultural eta politikoa ere  
eraldatu egin zen. Aipatu den bezala,  
frankismoan murrizketa formal ugari  
egon ziren emakumeak –ezkonduak-  
kontratatzeko orduan, emakumeen  
lana ulertzeko modua ere ezberdina zen,  
gauza bera gertatzen zen, oro har, herri-  
tarren eskubide, prestazio eta bermekin  
ere, eta beraz, sasoi hura eta gaur egun-  
goaren arteko alderik handienetakoa au-  
toenplegua ulertzeko moduan aurki  
dezakegu. Gaur egun lan autonomia  
deituko genioke, eta nolabaiteko babes-  
eremua dauka (nahiz eta eragin negati-  
boa jasaten ari den), baina «lehen ez  
zegoen aukerarik», «ez zen horrela uler-  
tzen», ez zegoen ez kontzientziarik ez  
lege-baldintzarik lan modalitate ezberdi-  
nen prestazio eta etekin sozialen arauke-  
taren inguruan, eta lan egiteko modu

horietako asko hiri-eremuko emakumeek hartu zituzten euren gain, «orduak egiteko» edo «dirua ateratzeko». Aldiz, landa-eremuan, lan gehigarria egitea edo «apartekoa» lortzea edo horrelakorik ez zen gertatzen, baserri barruan zein kanpoan egindako lan guztia, produktuen salmenta adibidez, jarduera beraren parte zelako, baserriko bizitzari atxikia.

Proiektuko emakumeen ustez denboran zehar Eibarko gizartea zeharkatu zuen beste elementuetako bat «giro liberala» izan zen. Sarritan hitz egiten da «espíritu eibartarrari» buruz, irekiera, elkartasuna, askatasuna, demokrazia, «sozialismoa» eta bestelako ideal batzuk biltzen dituen. Emakumeek diote inguru «liberal» batean bizi izan zirela. Murrizketa gutxi zeuden, independentzia eta autonomia oso preziatuak ziren, baliotsuak ziren dibertimentua eta garapen pertsonala (aisialdia, elkarbizitza, dantza, hitzaldiak), mobilizazio eta parte-hartze soziala zegoen, horizontaltasuna gizarte-harremanetan, proiektuetan eta kausa komunetan, hala nola, kooperatibak, erresistentzia-kutzak, jarduera solidarioak. Hau da, justizia- eta askatasun-idealak gauzatzen zituzten esperientzia ugari. Horrek guztiak, emakumeengan, «berdinak izatearen» sentimendua sortzen zuen eta, diktadura-garaian ere,

«beste leku batzuekin alderatuta, emakume moduan murrizketa gutxiago» zituzten sentazioa; aisialdirako aukerak genituen –nahiz eta gizon eta emakumeentzat bereziak izan-, eta, beste gauza batzuen artean, erlazio eta parte-hartzerako aukerak ere bai.

Emakume batzuk, aldiz, harmonia eta berdintasun egoera horren kontrakoak ere nabarmentzen dituzte, eta gogoan dituzte, besteak beste: emakumeen lanaldarrikapenen babes falta, kanpotik zertorren jendearekiko aurreiritziak eta ez zitzaie beti «harrera ona egin» eta inork egin nahi ez zituen lanak egokitu zitzaie, babesgabetasun-egoerak edota alargunek lana aurkitzeko zituzten zailtasunak:

*Eibar solidarioari buruz esaten dutena entzuten dudanean... 4 urterekin aita galdu nuen eta 8 urte nituenetik lanean jardun dut, han eta hemen, eta ama ikusten nuen hiru bider joaten zela tailerrera, eta bota egiten zuten, eta lankideak kexatu egiten ziren... «solidarioa? inondik inora!», non dago solidaritatea?*

Beste lekukotasun batzuk ez dituzte gizonen botere-dinamikak ahazten, nola «egiten zuten bat pribilegioei eusteko».



Edo emakumeen gaineko kontrola zekarten jardute sozialak: sexualitatea, diru-sarrerak edo aisialdiaren gaineko kontrola, erlijioaren bidez edo familiaren garrantziaren inguruan egiten zen ekite sozialaren bidez, besteak beste.

Beste gai batzuekin gertatzen den bezala, kontraesan horiek bizipenen eta, horiei esanahia emateko moduaren -eta gaur egun gogoratzeko moduaren- konplexutasuna eta aldakortasuna islatzen dute. Zalantzarik gabe berdintasun-, elkartasun- eta askatasun-egoerak eman dira, baita egoera negatiboak ere, baina industrializazio-prozesuan izandako aldaketak, aurrerapenak eta emakumeek utzitako aztarna inguratzen duten aldeko gaiak ere azpimarratu ditu taldeak.

Giro «liberal» horretan kokatu behar dugu «matriarkatuaren» ideia ere bai. Bertako emakume askoren -eta euskaldun askoren- ustean dago euskal gizartea «matriarkala» izan dela eta dela oraindik ere.

Antropologiak eta azterketa feministek gai hau aztertu eta mitoa edo ideali-

zazioa dela erakutsi badute ere<sup>60</sup>, «matriarkatuaren» ideiak emakume askoren nortasuna finkatzeko edo bizi izan duten jarduteak eta erlazio-moduak azaltzeko ideia boteretsu moduan funtzionatzen du. Adibidez, esaten dute, «emakume eibartarrak desberdinak zirela eta betidanik izan dutela hobetzeko grina», «liberatuak» zirela, «errespetatu» egiten zituztela, «soltura» zutela. Gogoan dute «dena gobernatzeko boterea zutela, emakumeen esku zegoelako etxeetako ekonomia», «egin eta desegin egin izan dutela beti, labadora bat erosteko bazen ere», eta etxeetako konponketak eta erosketak erabakitzen zituztela, «konfiantza osoa zegoelako eurengan».

Etiket kanpo egiten zuten lan gogorra ere aipatzen due -taldearen ustez, ezohikoa- haien izaera eta boterearen adierazle. Feminizatu gabeko lan-eremuetan hainbat emakumeren parte-hartzeak, galdaketa eta soldadura edo gerentzia bat maneatzea edo negozio edo tailer baten jabetza eta zuzendaritza adibidez, nahiz eta txikia izan, izaera eta botere haren ideia berrindartzen du.

60. 80. hamarkadan Juan Aranzadik eta Teresa del Vallek euskal gizarteko matriarkatu-mitoen dekonstrukzioaren lan akademikoari ekin zioten. Haien ideiak laburtzen dituzten ohar pare bat daude «Matriarkado»-ren sarreran, *Auñamendi Eusko Entziklopediaren* Bernardo Estornés Fondoan eta 2011n Teresa del Valleri Fermin Munarrirek egindako elkarrizketan, Garak argitaratua.



MAQUINES S.A.

TINTORERIA  
Margola  
IMPERMEABILIZACION  
DE  
TRINCHERAS

1955eko otsailaren 28a. Margola tindategiko isokarroa.

Gumer Aramberrik sortu zuen Margola tindategia 1920 inguruan. Urte gutxi batzuk geroago, bere ilobak, Luis Aramberrri Mallabiabarrenak, erosi zuen, enpresa 50 urte baino gehiagotan zehar zuzendu zuena. Bere ibilbidea Bista Eder kaleko lokal txiki batean hasi zuen.

50-60 urteetatik aurrera lokala handitu eta hainbat bulego ireki zituzten Bilbon, Donostian, Vitoria-Gasteizen, Arrasaten, Elgoibarren eta Bergaran.

EIBARKO UDAL ARTXIBOA. CASTRILLO ORTUOSTE FUNTSA.

Kalera irtetea –eta horretarako dirua edukitzea-, aisialdirako espazioak izatea «eurak bakarrik, gizonik gabe», eta, gainera, «senarrari baimenik eskatu beharrik gabe», eta laneko edo gozameneko bidaiak egitea ezohiko esperientziatzat hartzen dituzte, eta emakume eibartarren boterearen adierazle dira<sup>61</sup>.

Emakume askorentzat, matriarkatua, amaren rola garrantziarekin lotzen da, baserrian zein hirian. Halaber, emakumeek maiorazkoa izateko aukera –gertatu izan den maiztasunetik harago– uestezko antolaketa matriarkal horren beste osagaietako bat da.

Emakumeek kontatzen duten erlazio horiek bereizteko «matriarkatu» hitza egokia izan edo ez izatetik harago, boterea izatearen ideia –egunerokotasunean hain zabala, ohikoa eta egiazkoa izan ez arren-, eta autonomia-tarte bat eduki izanaren oroitzapena, garrantzitsuak dira: harro, bereziak eta hainbat

belaunalditan zehar konektatuak eta identifikatuak sentiarazten ditu. Hau da, emakumeen «betiko» botere edo indar horretan pentsatzeak jarraikortasuna esan nahi du, horrenbeste birmoldaketa eta sasoi artean. Taldearen memorian presenteago dago emakumeen independentzia, indarra eta ausardia, bizi izan ziztuzten diskriminazio, menpekotasun eta/edo berdintasunik ezako egoerak baino. «Emakume eibartarra zigortuta zegoen ekonomiari zegokionez, baina emakume hori aldamenean zeukan pertsonaren pare sentitzen zen esku-hartzeko», dio parte-hartzaile batek, egoera diskriminatzaile baten aurrean jartzen den jarrera autoafirmatu hura laburbilduz.

«Eibar» ezberdin haietako gizartearen beste ezaugarrietako bat dinamismoa da, era guztietako gizarte-, kultura-, prestakuntza- eta kirol-jardueretan parte hartzeko gogo bizia, laburbilduz: «bizitzeko espiritua». Gaztea zela Eibarrera

61. Hainbat lanek aztertu dute laneko banaketa sexualaren eredua nola hedatu eta egokitu zen XIX. eta XX. mende artean industrializazioaren testuinguruan. Lurraldean arteko ezberdintasunen eta industrializazioa garatzeko modu eta faseen, faktore kultural, politiko, demografiko, ekonomiko eta maila sozialen arabera, familiaburuaren eta etxeoandreaen figurak (eta haien botere-eremuak) era ezberdinetan gautatuko dira. Rol bakoitzaren murrizketak eta funtzioak eta horien arteko harremanak modu ezberdinean esperientziatuko dira, eta asimetriak sakondu edo murriztu egingo dira kasuaren arabera (baina ez ezabatuko). Diskurtso homogeneoa eta esperientziaren arteko, edo laneko banaketa sexualaren ereduak «Eibar» ezberdinetan hartu zituen itxuren arteko aldakortasuna eta adostasunik eza egon daitezke Eibarko emakumeen botere handiagorearen eta matriarkatuaren oinarrian. Informazio gehiagorako ikus: Pilar Pérez-Fuentes Hernández, «*Ganadores de pan» eta «amas de casa»*, *Otra mirada sobre la industrialización vasca*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo, 2004.

bizitzera etorri zen emakume batek gogoan dauka oparotasun eta askatasunez betetako herria aurkitu zuela: «Hollywood zen!», dio. Arraroa egin zitzaion emakumeak gauzez irtetea, taberna eta jatetxeetan horrenbesteko bizitza egoitea, «pentsaera ezberdina» izatea eta gauzak egiteko edo eremu ezberdinetan parte hartzeko zegoen aukera zabala, eta bera Bilbotik zetorren, eta gogoan dauka han ez zegoela horrelakorik, edo ez zegoen hain zabaldua.

Hala eta guztiz ere, lekukotasun honek ez du giro ireki, aske eta autonomiaduna soilik aipatzen, inguru aberatsa ere aipatzen du. Bizi izan zuten industrializazio-prozesua honela gogoratzen dute emakumeek: onurak ekartzen zizkien langileei (langileek zituzten prestazioengatik), prestigioa eta oparoaldia gizarteari, eta erosteko ahalmen handiagoa ere bai; hori agerikoa zen «inguruko plazarik onenean» eta herritarren janzteko moduan, bereziki emakumeen artean: «sasoi batean kalean erraz antzematen ziren, zeramatzaten pultsera mordoengatik, eta esaten zuten: 'eibartarrak dira', pultserak zintzilik ateratzen zuten soinua entzuteaz bat». Oparotasun handi samar hura nahiko hedatua zegoen, baina nabarmenagoa zen beste leku batzuekin alderatuta, «hemendik kanpora ikus genezakeenarekin». Beste hitz batzuekin

esanda, inguruko beste herri batzuk, ekonomiari dagokionez, une kaskarrak bizi zituzten bitartean, industriak ahalmen eta ongizatea ekarri zizkion Eibarri.

Egoera hura beste dimentsio batzuetara ere zabaltzen zen, diru-sarreretik harago, adibidez kalitatezko osasunerbitzuen eskuragarritasunera; beste leku batzuetan ez zegoen horrelako zerbitzurik edo zeudenak urriak ziren. Partehartzaileetako bat anbulatorioaren sortzailea eta bertako erizaina izan zen eta gogoan dauka:

*1957an anbulatorioa zabaldu zen. Oso ona izan zen Eibarrentzat. Bergara, Ermua, Oñati, Soraluze, Elgoibar, Elgeta eta Itziarretik etortzen zen jendea. Ez genuen ordutegirik. Lan asko egiten zen. Transfusioak, elektroshock-ak... egiten genituen. Zerbitzu ona eskaintzen zen. Medikuek eta erizain bikainak zeuden. Lan-istripuen aurrean enpresa bakoitzak bere mutua zeukan.*

«Eibar» ezberdin horietan sartzen da emakumeen bizitza- eta lan-esperientzia, eta emakume haien jarduerak, gogoek, ekarpenek, ikuspuntuek eta trabek osatzen dute hurrengo orrietan azpimarratzen den edukia.

## Industrializazio- prozesuaren bizipenak

Orain arte, Eibarko industrializazio-prozesuan, emakumeek izandako parte-hartzearen hainbat oroitza-pen, esperientzia eta esanahi aipatu dira azaletik, baina orain gai horietako batzuetan sakontzea interesatzen zaigu. Alde batetik, lanari lotutako bizipenetan sakontzea, batez ere Eibar industrialean kokatuak daudenetan, eta bestetik, bizipen horien inguruan gaur egun egiten ditugun hausnarketa eta diskurtsoetan sakontzea. Hau da, «Eibar» ezberdinak sasoiko oroitza-pen, enpresa eta gizartearen bitartez bereiztu baino gehiago, hainbat anekdota edo lekukotasun partekatuko ditugu, hiri industrializatuko - eta etengabe zabaltzen ari zentestuinguru berezian emakume langileen egunerokotasunaren ikuspuntua handitzeko eta garai hartan bizi izan zen moduaren gakoak azpimarratzeko. Eta, horrez gainera, bizipen horiek baloratzeko narrazioa ere eskaintzen da, denborak ematen duen ikuspuntuarekin eta horrek dakarren nostalgiarekin eraikitakoa.

Halaber, logika tenporala edo kronologikoa alde batera utzi dugu, emakumeen memorian, gertaera bereziak baino gehiago, lan-esperientziaren eta bizitza industrialaren dimentsioak daudelako. Kontakizuna ez da inondik inora bakarra, ez eta homogeneoa ere, baizik eta batzuetan diskurtso anibalentea erakusten du, eta askatasuna eta ongizatea diskriminazioarekin eta ikusezintasunarekin nahasten ditu.

### Emakumeen lanaren eta esperientziaren gakoak

Emakumeek industrializazio-prozesuan izandako parte-hartzearen eta industriak Eibarren eta emakumeen bizitzan utzitako aztarnaren inguruko kontakizun honetan, hainbat gako identifikatzen dira lanaren eta lan-merkatuaren pertzepzioaren, emakumeek izandako jardueren eta parte-hartze osorako izandako traba ezberdinen inguruan. Bizipen eta sasoi haien inguruko hausnarketa oinarritu duen ikuspuntu feministari esker identifikatu daiteke nola generoak funtsezko rola betetzen duen industrializazio-prozesua bizitzeko eta haren parte izateko moduetan –egotzitako roletan, gizartearen eskaeretan, au-

**1953ko maiatzaren 29a. 1926an jaiotakoen kintada Arratzen.**  
EIBARKO UDAL ARTXIBOA. BENGIGNO PLAZAOLA FUNTSA.



©Eibarko Udal Artxiboa  
Archivo Municipal de Eibar

kera eta eskubideetan, eta, maila pertsonalean onartutako jarrera, balio eta zereginetan, sozialki adierazia-.

## LAN-OPAROTASUNA

Iragana lan eta jarduera ekonomiko terminoetan oroitzen dugunean, emakumeek aitortzen dute Eibarko bizilagunen artean, oro har, eta emakumeetan bereziki, lan egiteko alde aurretiko joera zegoela. Jendeak ez zuen zalantzan jartzen lan egin beharraren premia eta, askotan, ezta oso gogor lan egitearen premia ere, euren bizitza aurrera ateratzeko: «Bazirudien edozertan lan egiteko prestatuak geundela genetikoki!»

Hazkunde ekonomikoko sasoietan lan asko egoten zen, erraz aurkitzen zen lana eta bizitza laborala gaztetatik hasten zen. Hori, etxera beste soldata bat gehiago ekartzeko premiak bultzatuta gertatzen zen batez ere, baina agian, neurri handi batean, ez zelako planen barruan sartzen karrera bat hastea –gai hori beste garai berriago bati lotuta dago-. Zentzu horretan, oso gazte sartu ahal zen enpresa batean lanera, oinarriko zereginetatik hasi eta negozioaren jarduera ezberdinak ikasi arte. Lantegi edo tailerretan zein zerbitzu-alorreko beste negozio-mota batzuetan gertatzen

zen hori, dendetan edo ostalaritzan, nahiz eta lanbideetan hasterako orduan genero-ezberdintasunak egon:

*Emakumeak 14 urterekin hasten ziren lantegietan lanean, ezin zirelako mandatariak izan eta ezin ziren lehenago sartu, mutilekin alderatuta. 14 urterekin hitzartua izaten zuten zein lantegitan sartu. Eta familiaren batean premia bazegoen, neskatila, 14 urte bete arte, janari-denda batera joan zitekeen, edo etxeetara enkarquak eramatera...*

Aurreko kapituluetan azaldu den bezala, emakumeek alor guztietan egin dute lan, eta emakume baten egitekoa aldatu egin zitekeen haren bizitza-laborean zehar, enpresa bateko plaza-disponibilitatearen arabera, une jakin batean eduki zitzaketen kontaktuen arabera edo lanbide jakin batean sakontzeko izan zezaketen gogoaren arabera:

*Etxeko emakume guztiok egin dugu lan. Amak lantegi batean jardun zuen eta gero eskopetak «txarolatzen» eta zulatzen ikasi zuen eta bizitza osoa eman zuen eskopetak zulatzen. Eta ni 15 urterekin hasi nintzen damaskinatuan. Damaskinatuan jardun nuen, urrea garestitu zen arte; ez zen errentagarria eta utzi egin ge-*



*nuen. Baina nire amak Star eta beste lantegi batzuentzat eskopetak zulatzen zituenez, ikasi egin nuen eta amarekin batera eskopetak zulatzen hasi nintzen; gero jatetxe bateko sukaldean egin nuen lan, nire kontura negozio bat jarri nuen arte: jatetxe bat. Bizitza osoa eman dut beharrean.*

Emakumeek gogoratzen duten moduan, pertsonen balioan konfiantza izaten zen eta ez zegoen curriculumik edo lan-esperientziaren ziurtagirik aurkeztu beharrik. «Tailerretan konfiantzarengatik sartzen zen, herrian denok ezagutzen genuen elkar eta lan asko zegoen», diote. Gainera, orokorrean, hobetzeko grina handia zegoen, baita emakume beharginen artean ere.

Aurrez aipatu dugu, Eibarren familia-negozio ugari zegoela. Industriagune handiak ere bazeuden, baina negozio gehienak tailerrak edo enpresa txikiak ziren, non familia-harremanak lan-harremanekin nahasten ziren. Lan-oparotasun horretan, bazirudien «jende guztia zegoela genetikoki enpresa batean lan egiteko prestatua, eta ez zegoena prestatu egiten zuten».

Denda, tailer edo enpresaren bat zuen familia batean jaiotako emakume askok ia «modu naturalean» heredatu

zuten familiaren negozioa edo bertan parte hartzeko aukera, askotan zeregin errazenetatik laguntzen hasita:

*(Nire familian) jertseak egin zituzten, goizez, arratsaldez eta gauez egiten zuten lan, ehuntzen; aitak ehundu egiten zuen eta amak jertseak josi, eta azkenean Calbeton kalleko denda hartu zuten, 41. urtean (...). Oso gaizki pasatu zuten. Oso gaizki, oso gaizki. Baina pixkanaka-pixkanaka aurrera egin zuten, eta gu mostradorera ailegatu ginenetik, mostradorera!*

Emakume horietako batzuk kontabilitateko edo bulegoko beste zeregin batzuk egiten hasi ziren familia-enpresetan gelditu ziren, eta beste batzuk, aldiz, laguntza periferiko baina garrantzitsuari eutsi zioten:

*14 urterekin hasi nintzen beharrean eta oportetan aitaren tailerrera joaten nintzen, kontabilitateko lau nozio nekizkielako, ez nuen kontabilitatea ikasi, batxilergoa bai, baina bigarren mailan laga nuen, beraz, lanean hasterakoan ez nekien ezer. Gero gauez ikasteko aukera izan nuen, aitari tailerrean laguntzeko moduan, lau faktura egin, albaranak eta hori guztia.*

Emakumeen eskolatzeari eta kontabilitate- eta idazkaritza-eskoletako ikasketei esker, neska gazte askok lanpostu espezializatuagoetara sartzeko aukera izan zuten. Gogoan dute bulego, banketxe eta beste era batzuetako enpresetan, idazkaritza eta administrazio zereginak «emakumeek» egiten zituztela, eta, aipatu den bezala, familia-negozioren tes-tuinguruan, emakume batzuk laguntzen hasi eta agintea hartzen amaitu zuten:

*Sasoi hartan 17 urteko neskatila batek zer jakin zezakeen? Eta hortik aurrera, akademia komertzialean kontabilitateko kurtsoak egiten ari nintzen arren, gauza handirik ez nekien. Eta 17 urterekin nire asmoa dantza egitea zen, Fragan dantza egitea! Ez nuen beste helbururik.*

*Santa Zezilia egun batean aitak esan zidan arte: «Gaur, arratsaldeko 7etan etor zaitez tailerrera, aurkeztu egingo zaitut-eta». Eta aurkeztu egin ninduen. 17 urteko neskatila tailerra zaintzera! (...) Eta gero, 18 edo 19 urteko neskatxa, metalaren tailer baten arduradun, eta kalibre bat nola hartzen zen ere ez nekien, ez eta mekometro bat nolako zen ere, baina hor jardun behar duzu, «aitak gizon horri diru gehiago eman behar izan diolako eta zu tailerrarekin gelditzen*



**Echasa, 1958. Enbalatze gunea.**  
**Ezkerrean, Olga Magunazelaia.**  
EIBARKO UDAL ARTXIBOA. CASTRILLO ORTUOSTE FUNTSA.



*®Eibarko Udal Artxiboa*  
*Archivo Municipal de Eibar*

*zara!», dantzatu besterik egin nahi ez duen neskatila! Dantza egin, besterik ez nuen nahi, eta dantza egitea gus-tatzen zitzaidan, baita orain ere! Eta horrela hasten zara: goiz, arratsalde, gau, goiz, arratsalde, gau eta do-meka, eta egin, eta egin.*

Baina kasu batzuetan, aurreko zitan ikus daitekeen moduan, neska edo emakumeek rol hura ia nahi gabe hartu zuten euren gain, eta, esan daiteke, paradoxikoki, aitzindariak izan zirela gaur egun «ekintzailtza» moduan ezagutzen dugun horretan; izan ere, eragozpenak-eragozpen negozioak aurrera ateratzeko gai izateaz gain –gizonezko askok egiten zuten bezala-, hori egiten zuten lehenengoetakoak izan zirelako, aurrerago aipatzen diren eragozpenei aurre eginez. Aitzindari horietako askoren inguruko egoerek pisua dute kontakizun honetan, argi erakusten dituztelako industrializazioaren testuinguruan emakumeek zituzten posizio eta esperientzia ezberdinak –nahiz eta eurenak bakarrik ez izan-, eta «Aztarnak»-en parte-hartzaileek nabarmendu dituzten gakoak ondo sintetizatzen dituztelako. Baina, lanbide edo maila bat edo beste izan, langile guztiek izan zituzten euren bizitza laboralean antzeko zailtasunak emakume izate hutsa-gatik; trabak ez ziren emakume enpresari edo aitzindarientzat soilik izan.

## «EGINEZ IKASTEN GENUEN»

Emakume batzuk, familia-enpresetan sartu beharrean, negozio propioa sortzea erabaki zuten, hutsetik hasita, eta, hainbat kasutan, aitzindariak ere izan ziren, negozio berrieke eta proiektu originalekin arriskatu zutelako. Kontatzaileek airtortzen duten moduan, ekintzailtzarako gogoak ausardia handia eskatzen zuten edo, agian, inozentzia, euren enpresa-proiektua aurrera eramateko ezagutza nahikorik ez zutelako. Unean uneko premien arabera egiten ziren gauzak, akats asko eginez eta horietatik ikasiz, aurrera egin eta hobetzeko. Emakumeek behin eta berriz azpimarratzen duten gaitasun eta borondate ekintzaile horren adibide dira hainbat ekimen, hala nola ondorengo hauxe:

*Bartzelonan egon nintzen (...), ahizparekin batera hona etorri nintzenean, balkoian geundela –oso balkoizaleak izan gara, eta berdin jarraitzen dut, balkoian jartzen naiz eta begiratu egiten dut-, lore-koro bat ikusi genuen pasatzen, eta esan nion ahizpari: «Zergatik ez dugu denda bat jartzen?», «A, ba oso ondo!».*

*Eta denda jarri genuen. 1952. urtea zen. Eta nire aitak: «Ez jarri dendarik, mostradorean egotea izugarria da, jendea oso lotsagabea da...», eta*

*gu jo eta ke, ahizpa ni baino burugorrago, jo eta ke! Eta antolatu genuen, eta hasi egin ginen. Eraikin egin berri bat zegoen, eta jabeetako bat amaren laguna zen, eta ea, zein lokal?, ba, gustatzen zitzaigun hura! Deitu egin zion eta esan: «Lola, lokal hori libre dago, ezta?, nire alabek lore-denda bat jarri nahi dute-eta». Eta erantzun zion: «eskaera asko ditut, baina lore-dendaren ideia gustatzen zait, Eibarren ez dago-eta». Alokairuan hartu eta denda zabaldu genuen, Bidebarrietan.*

Ekintzailletza-giroko Eibar hartan, lanerako eta negozioak aurrera eramateko aurretiko joera bazegoen ere, emakumeek diote inor ez zegoela benetan prestatua negozio bat antolatzeko. Baina aurrera segitzeko borondate irmoak beldurak uxatzen lagundu zuen. Horrek ez du esan nahi zailtasunik pasa ez zutenik, eta, egia esan, urduritasun eta ahalegin handiko momentuak gogoan dituzte. Zentzu horretan, aurrerapenak eta hobekuntzak premia berriak agertu ahala gertatzen ziren:

*Dendarekin hasi aurretik, berriro joan nintzen Bartzelonara. Baina Bartzelona hain zen ezberdina! Iniziatiba bagenuen, eta gustatu egiten zitzaigun, baina lore-dendarik sekula izan*

*ez duen herriarekin alderatuta zein desberdina zen Bartzelona... Baina esperientzia hark orientatzeko balio izan zidan, o-rien-ta-tze-ko!, e? Orientazio falta apur bat izango banu, ez nuke ezer egingo! Barra-barra saltzen zuten han. Hona etorri ginen, denda jarri genuen eta hamar urte horrela, negozioaren gastuak esaltzeko adina ere atera ezinda.*

Behin batean gizon bat etorri eta esan zidan: «Zenbateko irabazi-marjina duzue?». Eta erantzun nion: «Ni neu fakturazioaren %5eko marjinarekin konformatzen naiz». Begiratu zidan pentsatuko balu bezala: «neska honek ez daki zer esaten duen!». Eta horrela zen, zer esaten genuen ere ez genekien, lana besterik ez genuen egiten, lana besterik ez, gau eta egun, ahal zen guztia, gorputzak ematen zigun guztia lanerako zen.

Euren jarduera aurrera eramateko lan-jardunaldi luzeak eta sakrifizioz beterikoak gogoratzen dituzte. Baina euren negozioen bilakaera ez zegoen langileen trebetasunaren menpe soilik, baizik eta unean uneko egoerari ere lotuta zegoen, izan oparoaldia izan krisialdia.

EMAKUMEEK LAN ASKO EGIN  
ZUTEN, ETA GIZONEK BAINO  
ASKOZ GEHIAGO ERAKUTSI  
BEHAR IZAN ZUTEN.

«LAN, LAN ETA LAN,  
GOGOTIK EGIN ZEN LAN!»

Enpresa-proiektu batean parte-har-  
tzeak berez dakartzan zailtasunez gain,  
emakume enpresari haiek –eta gainon-  
tzeko emakume beharginek– beste  
erronka bati egin behar izan zioten aurre:  
nagusi diren genero-rolen urraketak  
berak ekarritako zailtasunak, batez ere  
kontziliazio-arazoetan adierazten dena.

Lan-merkatuko lanak, leku batean  
edo bestean lan eginda ere, egotzita zi-  
tuzten etxeko zereginetatik ez zituen li-  
bratu:

*Etxean nahikoa diru ez zegoenean  
emakumeak aportatu egin behar iza-  
ten zuen eta gizonak ez dute sekula  
etxean lagundu. Gizonak berea egi-  
ten zuen tailerrean eta kitto. Indus-  
triak zama handiagoa ekarri zien  
emakumeei, seme-alabak eta etxea  
izateaz gainera, industrian egin behar  
zutelako lan. Gizonak ez zuen etxean  
ezer egiten eta emakumeak jarraitu  
behar izan zuen etxeko gauza guztiak  
egiten eta gainera industrian lan egin,*

*damaskinatuan, edo tailerrean, etxera  
dirua eramateko, gizonak irabazten  
zuen ez zelako nahikoa.*

*Emakumeak etxearen ardurak  
zuen, apopiloak zituen eta gainera –  
nire etxepean gertatzen zen moduan-  
grabatua egiten zuen. Beste batek  
apopiloak zituen, etxeko lan guztiak  
egiten zituen eta gainera, abarketak  
egiten zituen. Eta gizona: etxetik tai-  
lerrera eta tailerretik etxera.*

*Gogoan ditut lanean ziharduten  
bitartean umeari bularra ematen zio-  
ten emakumeak, eta umeak kulunka-  
tzen zituzten bitartean eskopeten  
kirten-azalak zulatzen zituzten ema-  
kumeak ere bai.*

Ikus daitekeenez, horrek guztiak  
zama bikoitza ekarri zien emakumeei,  
baina hala eta guztiz ere, askotan, era  
naturalizatuan onartu zen, zalantzan jarri  
gabe, erreklamazio-aukerarik gabeko  
zerbait moduan, eta beste zenbait kasu-  
tan nolabaiteko harrotasun eta poztasu-  
narekin ere onartu zen egoera hura.

Egia da lana eta familia bateratzeko  
arazok eragina izan zutela eta dutela  
gaur egun ere emakume langileengan;  
lan-arloan erantzukizun handia izan

duten emakumeek naturaz gaindiko bir-tuosismoa erakutsi behar izan dute lana eta familia bateratzeko orduan. Emakume asko bat datoz esaterakoan, amatasunak, neurri handi batean, zailtasun handiak eragiten dituela lanen bateratzean eta garapen laboral eta profesionalean. Aitzindarietako batek dio seme-alabak izan balitu nekez izango lukeela enpresan bete zuen postua. Partehartzaileen arabera:

*Amatasunak, moduren batean edo bestean, enpresaren erritmoa zaildu egiten du, beti doa gure kontra, emakumeei inplikatzten die beti. Beti emakumeei. Gizarteak seme-alabak edukitzea gizarte-onura dela onartzen ez duen bitartean, eta emakumea baldin bada seme-alabak izan behar dituen, eta gizarteak ez badu gizartearen beraren zerbait inplizitua moduan ikusten... Ez da zigortu behar, gizarte-onura da eta!, plus bat moduan hartu behar da... eta ez... horra ailegatzen garenean, ailegatzen bagara...*

Zeresanik ez, orain dela gutxira arte, ez zegoela amatasun-bajarik. «Zer da hori?» galdetu dute ironiaz emakumeek; kasurik gehienetan, emakumeek, lanean jarraitzen zuten tailerrean edo negozioan, haurdun edo erditu berri:

*Nire burua gogoratzen dut tripa handiarekin, tente, makinaren aurrean, lana egiteari utzi gabe, zapata zikin eta zahar batzuekin. Horrelako tripa handiarekin ez zitzaidan amantat bat bera ere sartzen, paper handi batekin eta soka batekin eusten nuen! Agente komertzialen bat etortzen zenean, horrela irteten nintzen atera.*

*Eta gero Eibarko lekualdatzerik garestiengan sartu ginen, eta hara joan ginen, eta berriro zorrekin. Emakume langile baten bizitza da hori. 8 egun erdiminez, lehen desfilea joan, eta erdiminekin dendan egon behar! eta baten batek aurpegi arraroa ikusiz gero esaten zizun: «Jesus, neska, hori da hori jenio txarra!», eta zer esango nion ba? «Erditzen hasita nago!».*

Zentzu horretan, euren erantzukizunak bateratzeko –euren ongizatearen kontura– horrelako sakrifizioak edo konponketa zailak egin behar izan zituzten emakumeak harritu egiten dira gai honen inguruan egon diren aurrerapenak ikusterakoan; orain euren alaba, errain edo ezagun gazteek disfrutatzen moduko aurrerapenak; haustura handia (eta onuragarria) dago lehena eta orainaren artean:

- *Uztailean, errainak, umea izan zuen eta amatasun-bajan egongo da apirilera arte, iruditzen zait...*

- *Ba bai, horrela da.*

- *Mutur batetik bestera joan gara.*

- *Kimerikoa iruditzen zait.*

- *Baina lortutakoak kostata lortu ditugu!*

Bateratzeko zailtasunak ez zituzten amek soilik jasaten, oro har emakume guztiek antzematen zituzten zailtasun horiek, emakume izate hutsagatik arduratzen zirelako txikitatik etxeko lan guztiak egiteaz (garbitu, plantxatu, sukaldatu, enkarguak egin, etb.) eta senideak zaintzeaz (ama, aita, izeba, osaba, anai-arreba gazteagoak):

*Etiket kanpora egiten zuen lan guztiaz gain, emakumeak betidanik izan du pertsona nagusiak, senideak zaintzeko ardura... gizonak tailerrean egiten zuen lan baina etxean... ez dut uste askoz gehiago aportatuko zuenik. Andreamen gain erortzen zen pisu guztia. Etxe barruko eta enpresetako lana egiten zuen, baina sarritan bere kargura zituen guraso edo izeba-osaben zaintza deskuidatu gabe.*

Ondorioz, emakumeek sentitzen dute euren denboraren zatirik handiena lanari





**1953. Eibarko pediatren lanak**  
EIBARKO UDAL ARTXIBOA. BENIGNO PLAZAOLA FUNTSA.



©Eibarko Uda  
Archivo Mun

dedikatu diotela, ez gauza bakarrean edo bitan, baizik eta jarduera askotan. Tailerreko lanari etxeko lana gehitu behar zitzaion eta, «batzuetan gurasoen tailerlean laguntzea ere tokatzen zitzaigun, kontabilitatea egiten» edo beste jarduera batzuk burutzen. Parte-hartzaile batek dioen moduan «lan egin laguntzen, ez langile moduan».

Egoera horrek denbora-tarte txikia uzten zien norbere burua zaindu edo atsedean hartzeko, eta, jakina, oso denbora libre gutxi, gaur egun beste modu batean baloratzen dena:

*Lan egiten genuen emakumeek gure denbora librea izan behar genuen. Baina, zelan? Noiz? Denbora librea esaten dudanean goizeko 6:30 edo 7:00etatik goizeko 9:00etara esan nahi dut, hau da, umeak eskolan lagata dendara nindoanean. Goizekoa estalia nuen baina arratsaldean umeak eskolatik baino beranduago iritetzen nintzen ni, eta umezaina behar nuen. Nire denbora librea denda itxi eta etxera joaten nintzenean hasten zen. Den-dena egin behar genuen, dena! Umeak zaindu, dendatik etxera ailegatzen nintzen eta umeak nirekin batera, hasi zapatekin, bazkaria, gauza guztiak, eta gurasoekin, ze klaro, neska zinenetz, ba zu etxerako!*

*Jaio zinenetik zu etxera, zu zinen etxeko neskamea!*

*Ahal zenean baten bati laguntza eskatzen zitzaion umeak zaintzeko lanean geunden bitartean, aiton-amonan, osaba-izena edo bizilagunei.*

*Eta bizilagunari esan: «mesedez, egon zaitez apur batean hemen –jakina, bakarrik nengoen-, dutxatu egin behar naiz erditu baino lehen...dutxatu egin behar naiz», aizu, eguneko izerdia kendu behar dut!, ez? lehen, erditu eta hurrengo egunean, ez ziguten uzten dutxa hartzen, ezin genuen.*

*Ezkondu eta berehala jaio zen alaba, eta kotxetxoan jaisten nuen dendara (lore-dendara). Nire amaginarreba, izeba edo aititeren izeba bat etortzen ziren plazara eta dendatik pasatu eta umea hartzen zuten, eguzkitara eramaten zuten: «Ume honek ez du eguzkirik hartzen!», esaten zidaten. «Bai, bai, loreak usainduko ditu baina eguzkia urrutitik ere ez!». Eta horrela pasatu zen denbora.*

Eta ahal genuenean, zaintzaile bat hartzen genuen, soldatapean... hori ere emakumea. Parte-hartzaileetako batek dioen moduan:

*Etxean nuen emakumeak bazekien, nik jai baldin banuen berak ere jai izango zuela, baina dendan 9ak arte egoten banintzen bera ere 9ak arte etxean. Horrela hitz egin genuen biok. Gero, askotan –alarguna zen-, bere etxera eramaten zituen umeak. Zentzu horretan zorte handia izan dut.*

Gai horiei buruz hausnartuz, emakumeek uste dute txikitatik jasotako edukazioak emakumeak zaintzaile eta langile izatera eta besteen zerbitzura egotera bideratzen zituela, eta, moduren batean, lan-karga desberdin eta bidegabea era naturalizatuan onartzeko prestatzen zituela:

*Bertako emakumea oso babeslea izan da, eta babesten zuena senarra zen. Begira, ama batek leku berean lan egiten zuten seme-ari eta alabari itxaroten zien, etxera zihoazen eta esaten zion amak alabari: «patatak egosi behar dira, plantxatu egin behar da, hau eta bestea egin behar da...», eta seme-ari, berriz: «zer nahi duzu meriendatu?».*

*Neba bikiak izan ditut (...) eta akademia komertzialera joan aurretik, egurrez betetako otarra ekarri behar nuen –lehen, sua, ekonomikan egiten*

*zen-, otarra nik ekarri behar nuen eta ikastera joan aurretik etxeko denon oheak egin, eta nire nebak, berriz, libre zeuden. Domekan etxe guztiko hautsa kendu behar nuen edo amari garbitzen lagundu, eta nire nebek ezer ere ez!*

#### EXIJENTZIA HANDIAGOA, BAINA APALTASUNEZ

Gainkarga-giro horretan emakumeek isilean egiten zuten lan, egoera prekario-etan eta askotan ezkutuan, baina apaltasunez eta diskrezioz beti, obedientziaren edukazioaren bitartez erakutsi zieten bezala. Eta apaltasun horrek are gehiago harritzen du ezohiko hainbat kasutan:

*Gizonak egiten duena esan egiten du, jakin egin behar da: «Eta begira zer egin dugun», eta bitartean, emakumeek, egin, egin eta egin eta ezer ez! nabarmendu nahi gabe, garrantzirik eman gabe... Eta askotan herrian bertan ere ez genekien zertan ari zen emakume hau edo bestea. Gu biok bizilagunak izan gara eta –orain arte- ez nekien ezer bere lanari buruz. Banekien enpresa batean lan egiten zuela baina ezer gutxi gehiago.*

Emakumeak ez du inoiz protagonismorik nahi izan. Halaber, nahiz eta emakume horietako asko zuzendaritzako postu batera sartzeko prestatuak egon edo erabakitzeke gaitasun handia izan, enpresa barruan mailaz igotzea hirugarren pertsonen borondateari egozten zitzaien, eta ez emakumeen merituei:

*Nafarroatik etorri nintzen Eibarrrera, eta metal-enpresa batean hasi nintzen, tailerrean. 23 urte nituen eta bertan jubilatu naiz, enpresa berean. Oso ondo sentitu izan naiz beti. Tailerrean sartu eta bertan egin nuen lan, baina niri hura ez zitzaidan gustatzen, eta orduan gehiago trebatzea erabaki nuen, akademia komertzial batean. Zerbait banekien, baina gehiago prestatzeko asmoarekin joan nintzen hara. Enpresan galdetu zidaten bertan gelditzea nahi ote nuen eta sail komertzialera pasa ninduten. Eta sail komertzialean hasi nintzen lanean. 40 urte inguru nituenean bazihoan baten postua bete ote nahi nuen galdetu zidaten, eta Espainia osoan, Kanarietan... genuen sare komertziala nire gain hartuko ote nuen... Gizonak besterik ez zeuden mundu batera irten nintzen, metalaren adar batean, ezagutzen ez nituen arau eta bestelakoekin...*

«Aukera eman zidaten» moduko esaldiek edo enpresetan emakumeak mailaz igotzea edo botere-postuetara ailegatzea enpresa-gizonen izaera «liberal» edo «berritzaileari» egozteak erakusten dute «emakumea izatea» ez zela neutroa edo garrantzirik gabea lan-ibilbidean. Eta euren esperientzia taldean partekatu duten emakume gehienek sekula ez direla diskriminatuak sentitu esaten badute ere, egia da industria eta enpresa inguruan zegoen gizonetzkoen presentzia handiak nolabaiteko salbuespen-izaera ematen ziela:

*Laneko bidaiak egiten hasi nintzeanean, jakina, guztiak gelditu ziren harrituta, komertziala emakumezko bat zelako! Berrogei bat pertsona izango ziren, eta denak ziren gizonak, eta arraroa zen ni joatea hornitzaile industrialetara, burdindegi industrialetara, Espainiako, Kanarietako kooperatibetara, beno!...*

*Eta nik nireari buruz asko nekien, gure lana menperatzen nuen. Banekien zerbait esanez gero eztabaidaezina zela, hau da, kasu egingo zidatela, ahalegin guztiak egingo zituztela hura fabrikatzeko, zerbitzua atenditzeko, edozertarako... Talde moduan funtzionatzen genuen. Ez nintzen besteak baino gutxiago sentitzen, eta askotan izan naiz hortan*

*ziharduen emakume bakarra, baina errespetuz tratatu naute joan naizen enpresa guztietan. Eta bezeroek ere horrela tratatzen ninduten, berdin-berdin. Eta ni atenditzeko begirunea zuten, hori bai izan zutela beti, ez dakit emakumea izateagatik edo ez!*

Gainera, aurrez aipatu den bezala, emakume beharginek, eta batez ere botere-postuak bete zituzten edo nolabaiteko protagonismoa izan zuten emakumeek, askoz ere zorrotzagoak eta bikainagoak izan behar izan zuten, euren balioa erakusteko:

*Baina egia da berdin-berdin edo gehiago demostratu behar genuela, ona izatearekin ez zen nahikoa... (...). Industria-alorrean murgildu zen emakume bakarretakoa izango nintzen agian, nire inguruko guztiak gizonezkoak ziren-eta (...), industria-esparru horretan emakumerik ez zebilen.*

Emakume aitzindari horiek inposatutako genero-ereduak urratseko izan zuten gaitasuna lagungarria izan zen inguruko beste emakume batzuei normaltasunerako bideak zabaltzeko, enpresa eta komertzioaren zuzendaritzan emakumeak egotearen ezohikotasuna lausotuz.

## INGURUKOEN LAGUNTZAREKIN

Guztiarekin ere ez da harritzekoa, emakumeen ekintzaitzarako mesedegarria ez zen giro hartan, euren senide eta gertukoengandik eta euren lantaldeetatik jaso zuten laguntza nabarmendu nahi izatea. Aipatu den bezala, emakume guztiek behar izan dute laguntza-sarea euren jarduera anitzak burutu ahal izateko, askotan familiako bertako emakumeen laguntasuna jaso dute eta eurak ere izan dira laguntza-sare horretako partaide. Baina negozio propioak aurrera atera zituzten edo enpresa-proiektuetako buru izan ziren emakumeen kasuan, jasotako laguntzaren oroitzapenak pisua dauka, euren lanerako ezinbestekotzat jotzen dute-eta.

Lan-esparruari dagokionez, tailer baten buru izan zen emakume batek dio, eskaera bat aurrera ateratzeko gauean lan egin behar zuenean eta makina bat matxuratzen bazen, enkargatua edo teknikaria beti zegoela prest makina konpontzeko –edozein ordutan-; enpresa batean botere-postu batean jardun zuen beste emakume batek bere kargura zeuden langileen aldetik jasotako babesaren garrantzitsua izan zen gogoratzen du. Adibide horiek, eta beste batzuk, ezinbesteko baldintza moduan ikusten dira lanean jarduteko. Familia inguruan jasotako laguntza bezalaxe:

*Berriz ere gelditu nintzen bakarrik (tailerrean). Baina orduan senarraren laguntzaile. Beno, laguntzaile! Hark bazekien metalari buruz, gauza asko zekizkien!, eta: «hau egin behar duzu, eta beste hori, joan zaitez hemendik, handik», eta senarraren laguntzarekin hasi ginen irteten. Lan egiten genuen!*

*Hemen (dendan) lan asko izan dugu, egun batzuetan lorik ere ez nuen egiten, eta jan ere, plater bakarra, ahal banuen, eta horrelakoak. (...) Sasoi hartan bakarrik nengoen lore-dendan, baina senarrak laguntzen zidan, asko laguntzen zidan.*

Gainera, ez dugu ahaztu behar, ohiturek soilik ez zituztela emakumeen enpresa-ekimenak mugatzen; legediak berak erabaki zuen luzaroan, espazio ekonomikoan zeintzuk ziren proiektu propioak aurrera ateratzeko eskubidea eta autonomia zuten pertsonak. Horrela, frankismoaren garaian eta 1975ean Kode Zibila aldatu zen arte, emakumeek aitaren edo senarraren baimena behar izaten zuten negozio bat zabaltzeko, eta, proiektuei era libre eta autonomoan ekiteko oinarritzeko eskubide zibilak ez zitzaizkienez aitortzen, emakumeei eragotzi egiten zitzaizaien euren enpresa-proiektu propioak sortzea.

Data hartara arte, parte-hartzaileek gogoratzen duten bezala, negozio propioa izan nahi zuten emakumeek aitaren edo senarraren baimena behar zuten, eta haien sinaduraren menpe zeuden legegaren aldetik. Zentzu horretan, emakumeek dioten moduan, ez da zaila ulertzekoa zergatik «egon zen hain emakume ekintzaile gutxi sasoi hartan, legez eta pentsaeraz emakumeak tutelatuak zeudelako beti. Egon zen emakume ekintzailerik ez zegoen sasoi bat, agertzen hasi ziren arte, zer gertatu zen? Legeak aldatu egin zirela, emakumeak trebatu egin zirela».

## NEGOZIOA/EKINTZAILTZA ZEN HURA?

Negozio moduan aitortutakoez gain, orratzaren gremioa deiturikoan bazeuden emakumeek gobernatutako jarduera batzuk, eta, agian, ordaindu gabeko zaintza- eta mantenu-lanekin zuten loturarengatik, ez direnak inoiz jarduera ekonomikotzat hartu. Brodatzaile edo jostunen kasua da hori; emakume horiek euren etxe, tailer edo dendaostean ikasle-talde bat hartzeko adina esperientzia zuten.

Jardute ekonomiko horien anbiguitasuna agerikoa da negozio propioak

ziren edo «emakumeen berezko» zereginak egiteko bilerak ziren eztabaidatzerakoan. Arreoa egiteko izeba, lehengusina edo ezagun baten etxean josten ikastea edo brodatzen ikastea oso ohikoa zen, eta era desberdinetan egiten zen. Emakume batzuk topaketa horiek aprobe txatu zituzten brodatzeko edo josteko akademiak antolatzeko. Baina beste batzuk, berriz, hain ofizialak ez zirenak, ikusezin bihurtu ziren, ezkutuko izaera zuten-eta.

*Ez zuten asegururik eta ez zuten aitoren ikasketen egiten, zekitena erakustera dedikatzen ziren, eta josten ikastera gindoazenean ordaindu egin behar genuen. (...) Baina ez zuten kotizatzen. (...) Deklaratu gabeko negozioak zuten, baina eurenak ziren. Ohikoa zen, asko zeuden horrela, leku guztietan.*

*Emakume hark gela batean gintuen, josten irakasten zigun, berak ere josi egiten zuen, aparte, eta bere familia eta etxea atenditzen zituen. Han geunden ikasten, eta usaindu egiten genuen... lapikoarekin zebilen, edo umea zetorren eta korrika zihoan merienda ematera, eta etxekolanak egiten jartzen zuen, eta noizean behin irten egiten zen ea umea zertan zebilen... «Jantzigintza» deitzen zitzaion.*

Sofistikazio-maila ezberdinak zeuden:

*Urte mordo eman ditut brodatuan, brodatzen ikasten eta gero nire ahizpei egiten, eta gero niretako. (...) Akademiara nindoan –Sabinanera, bizitza guztia eman du- eta nik hilero kuota ordaindu behar nuen. Orduan Sabina... berak kotizatu egingo zuen edo ez, bere arazoa zen, baina enpresa bat zuen. Baina Sabinaren kasua, euren etxean zeuden beste josten batzuekin alderatuta, desberdina da –bat Rosy zen, beste bat Juana, beste bat Pepi-, haiek egin eta saldu egiten zuten, eta hura ez zegoen ez erregistratua ez kotizaturik ez aitortua inon. Baina Sabinarena desberdina zen, lokala zuen Akademia moduan.*

Ziur asko, beste emakume batzuk ere, euren ogibidea antzeko eran transmitituko zuten, euren jakituria diru-iturri bihurtuz, baina taldean ez zen bestelakorik gogoratu. Parte-hartzaileek ekin-tzaile izateko modu eta bialibide ugariak azpimarratzen dituzte, eta ekimen horiek edo haien balioa edo aitortza begien bistatik galtzea zein erraza den.

## EMAKUMEAK BORROKALARIAK IZAN DIRA BETI

Aurrez ere aipatu da, emakume eibartarrek gaitasun handia izan dutela, betidanik, egoera zailtan aurrera egiteko, eta ekintzaile izateko gogo horri esker «bizimodua ateratzen» jakin izan dutela, izan familia-negozioren erreleboa hartuz izan zerotik hasita egoera latz bat pasa ondoren. Izaera borrokalari horren adibi-deak ez dira gutxi:

*Nire amak enpresa batean egin zuen lan, baina bota egin zutenean jertseak egiten hasi zen.*

*Emakume batek banatzea erabakitzen zuenean normalean gizona mozkorra edo jokozelea zelako izaten zen, edo... beno, bikotea banandu egiten zen. Emakumea, josteko-makina besapean hartu, eta etxez-etxe joaten zen arropa konpontzea nahi ote zuten galdezka, eta bestela ilea-paintzaile, etxez-etxe orrazten. Horrela ateratzen zuten bizimodua. Ez zuten beldurrik!*

*Aurora daukat gogoan, galdategian egiten zuen lan, 4 seme-alabarekin gelditu zen, senarra gazte hil zitzaion, pentsa, 35 urterekin amama*

*egin zuten, han egiten zuen lan. Gizona batzuk bai, galdategian lan egin nahi zuten, emakumeek, aldiz, ez. Aurpegiko poro guztiak beltz-beltz –eta asko ditugu gero!-, eskuak, dena, ez zitzaien kentzen.*

Lekukotasun horiek ez dute Eibarko emakumeek bizi izandako industrializazio-prozesuaren modu guztiak jasotzen, ez eta lantegi, denda edo tailerretako lan-ibilbideen egoera eta diferentzia ugariak edota milaka emakumeren bizipenak ere. Baina, hala ere, proiektu honetako parte-hartzaileek ezagutu eta eraiki zuten industria-hirian emakumeen parte-hartzea zein izan zen adierazi eta horri, gaur egungo ikuspuntutik, esanahia emateko moduak proposatzen dituzte.

## Emakumeen ikuspegia industriaren gainean

Emakume beharginen esperientzia, ahalegin, eragozpen eta gogoetatik abiatuta, taldeak, hausnarketa egin du, Eibarko industrializazio-prozesuaren inguruko euren apreziazio, kritika eta ikuspuntuak laburbiltzen dituzten diskurtsoen inguruan. Berriz ere agertzen da generoa gako moduan, kontakizun ho-



riek osatzen dituzten esperientzietan zein tokiko industriaren inguruan egiten den azterketa edo balorazioan; eta paradoxak edo tentsioak, jarraitutasunak eta hausturak ere berriro agertzen dira.

## INDUSTRIA-INGURU MESEDEGARRIA EMAKUMEENTZAT

Proiektuko emakumeen ustez, «Eibar ezberdinetan» bizi izan zen industrializazio-prozesuak garapen ekonomiko orokorra ekarri zuen, eta horrek ondorio mesedegarriak ekarri zizkien emakumeei.

Lehenik eta behin, hedapenak, lan-aukera ugari ekarri zituen: industria txikiko tailerretako lanetik hasita lantegiek eskaintzen zuten laneraino, eta parte-hartzaileen esanetan, gizarte eibartarraren ideologia «liberalak» ere mesede egin zion emakumeen presentziari lan-eremuetan. Emakume horietako batek azaltzen duen moduan, horrek guztiak aukerak eta espazioak ekarri zituen emakumeek lan egin zezaten:

*17 urterekin malgukiak egiteko tailer batean egin nuen lan, Bilbon. Jabea eibartarra zen eta gizon eta emakume ugari zituen lanean. Kasua-*

*litatea ote? Ez! Eibarko espiritua zuen eta bazekien, eta emakume ugari kontratatzen zituen. Agian, Bilbo osoan, emakumeak lan egiten genuen tailer bakarra ginen, ez dakit, baina nire esperientzia horixe da.*

Pentsa liteke, beraz, enpresarioek begi onez ikusten zutela emakumeak kontratatzea, are gehiago, nahiago zutela lanerako emakumeak hartzea, baina, kontratazio-baldintza ezberdinen eraginez, emakume beharginak merkeagoak zirela ahaztu barik; hala ere, proiektuko taldeak, ordaindutako lanerako emakumeentzat egon zen irekiera azpimarratu nahi izan du. Euren berbetan, emakumeek egindako lan guztiak, baita etxe barrukoak ere, ongi ikusiak zeuden: «Beste herri batzuetan, Ermuan edo Elgoibarren esaterako, emakumeek ez zuten Eibarren zegoen lanik, eta ez zegoen Eibarren bezain ondo ikusia, Errepublikak utzi zigun aztarna zen hura». Errepublika-garaiko askatasunek emakumeen parte-hartzerako irekiera ekarri zuten, denboran zehar jarraitu zuena. «Emakumeek lan egitea –etxe barruan zein kanpoan-, etxera dirua eramatea, bizimodua ateratzeko moduak bilatzea normala zen».

Horrez gainera, taldeak aitortzen du, emakumeei botere-postuak edo gidaritza-koak eman zizkieten enpresa «irudikorak» eta «berritzaileak» ere egon zirela, noizean behin baina gertatzen zela halakorik, aitzindari batzuen lekukotasunak jasotzen duen moduan; industria-adar edo zuzendaritza-maila jakin batzuetan emakume bakarrak izan zirela gogoratzen dute.

Baina, aurrerago ikusiko den moduan, emakumeak espazio edo postu jakin batzuetan sartzeko enplegu-emaile batzuk zalantzak bazituzten ere, orohar irekitasuna zegoen emakumeak enplegatzeko:

*Eibarko emakumeak betidanik egin du lan enpresetan, baita gerra aurretik ere. Gerraostean irten ziren emakume enpresari handiak, baina ezezagun handiak dira. (...) Baina emakumeak betidanik egin du lan Eibarren, (...) lan egin beharra izan du, baina ondo onartua izan da lanean.*

Behin eta berriro gogoratu den moduan, emakumeek ez zuten lantegietan soilik lan egiten; komertzio zabal batean eta negozio txikietan ere lan egiten zuten, batzuk enpresaren baten menpe, beste batzuk ez. Industriak berak beste

premia batzuk eragiten zituen, industriari, manufakturari edo erlazionatutako zerbitzuei lotutakoak eta hirigunearenak berarenak. Hori dela-eta, autoenplegurako eta lan autonomorako aukerak sortu ziren, baina kasu askotan, ikusi den bezala, ezkutuan egin behar izaten ziren eta Ongizateko Estatu bati dagozkion gizarte-prestazioei uko eginez gainera:

*Dendentzako brodatzen nuen, baina ez zidaten dendek ordaintzen. Egin, brodatu eta saldu egiten nuen. Ordaintzen zidaten, zera... baina beno, ez zidaten Gizarte Segurantzarik ordaintzen.*

Sasoi hartako lan-aberastasun eta demandari esker, prestakuntzarako aukera berriak sortu ziren (ikastetxeak, Armeria Eskola, komertzio-akademiak, industria-unibertsitatea, etb.), baina ez beti emakumeentzat, are gutxiago landa-eremuetako emakumeentzat –izan ere, hezkuntza-esparrura sartzea murriztua egon zen familietan, edo ez zitzaion lehentasunik ematen-; hori bai, analfabetismoaren desagerpena ekarri zuen eta emakumeentzat nolabaiteko prestakuntza ere bai, eta denborak aurrera egin ahala prestakuntza horretan sartzeko aukerak ere handitu egin ziren haientzat. Eskolan edo akademian eskuratutako

ezagutzei esker, enpresetako komertzio-, kontabilitate- eta idazkaritza-sailetan edo familia-negozioetan emakumeen parte-hartzea handitzen joan zen:

*Calbetón kalean egon nintzen administrazioa ikasten eta gero Aldatzan. Emakume askok zuten administrazioa, frantsesa eta takigrafia. Hori eta gero, familiaren bulegoan beharrean egon nintzen (ilea mozteko makinaren tailerra) administrari moduan.*

Hazkunde ekonomikoak gaztetatik lan egiteko aukera ekarri zien Eibarko emakumeei, lan bila beste leku batzuetara joan beharrik gabe. Aldiz, Eibarrek bizi izan zuen industria-hazkundeak lanerako aukera gutxiago zituzten Estatu-tuko beste lurralde batzuetako jende asko erakarri zuen lan bila:

*68an etorri nintzen Eibarrera lanera, hemen lan gehiago zegoelako eta gehiago irabazten zelako. Sasoi hartan, Eibar, goraldian zegoen. Estatu barruan immigrazio handia egon zen; asko etorri ginen Eibarrera, eta bertan integratu ginen.*

Gaztetan Eibarrera migratu zuten proiektu honetako emakumeek diote

oso erraz integratu zirela Eibarko bizimodu-  
duan, nahiz eta kanpotik etorri, eta har-  
rituta gelditu zirela ordura arte ezagutu  
zutena baino askoz ere bizitza askeagoa  
eskaintzen zuelako herriak, neurri handi  
batean autonomia eta independentzia  
ekonomiko hark bultzatuta:

*Hobe zenuen integratzea. Sasoi hartan 19 urte nituen. Bilbotik nentorren eta gogoan dut Eibarko emakumeek egiten zuten lana ikusi nuela, eta zelan irteten ziren kalera, eta zein ondo pasatzen zuten eurak bakarrik. Lanetik irten eta pilota partidua zegoen eguenetan, etxera joaten ziren apain-apain jartzera eta gaueko 12ak arte irteten ziren. Hona etorri nintzen lehenengo egunetik miresten ditut emakume eibartarrak, beste batzuk izan ez duten askatasun-puntu bat izan zutelako. Beste leku batzuetan, emakumeek ez dute lanik egin eta ez dute Eibarko emakumeen independentzia ekonomikorik izan. Emakumearentzat oso garrantzitsua da independentzia ekonomikoa. Garrantzitsua izan zen lehen eta da gaur egun ere. Mugitzeko askatasun handia eta nahi duzuna egiteko eta ikas-  
teko libreago izateko aukera ematen dizu.*

*Aurrez ere egonda nintzen Bilbon eta euskara apur bat banekien, defendatzeko lain. Niretzat ez da sakrifizio handia izan, eta ez dut ezer «arraroa» egin behar izan integrazteko. Oso erraza izan da. Baina ez da denentzat erraza izan. Batzuk bere ohituretan ixten ziren, baina beste batzuk, berriz, zabaldu eta integratu egin ginen. Gaur egun immigrazioarekin gertatzen den moduan.*

Hala ere, emakumeek aitortzen dute, sasoi hartan itxurazko elkartasuna eta berdintasuna arnastu arren, emakume langileen artean ere berdintasun eza existitzen zela. Aurrerago aipatzen den bezala, etorri berriei ez zizkieten lanik onenak ematen, «gaur egun hegoamerikako emakumeekin gertatzen den bezala, kanpokoek ospe gutxien zuten eta okerrago ordaintzen ziren lanak egiten zituzten»:

*Etxeetan egiten genuen lan, interina moduan, edo kafetegietan... Zerbitzu-lanak egiten genituen aparteko orduka. Eibarko emakumeek egin nahi ez zuten lana. Hemen, zerbitzu-lana, kanpokoek egin dugu urte askotan.*

Proiektu honetan parte hartu duten emakume guztiak bat datoz esaterakoan zein harro eta asebate sentitzen diren lana egin izanagatik. Esfortzu handiarekin eta izerdi askorekin izan arren, bizitzeko beste aukera batzuei uko egin arren, lanak emaitza positiboak izan ditu euren bizitzetan eta bizi diren inguruan bertan.

Zentzu horretan, emakume horietako askok diote, Eibarren garatu zen industriak nabarmen eragin zuela emakumeen bizitzan, independenteagoak, kontzienteagoak eta aldarrikatzaileagoak bihurtu zituelako, lantegietan eta lantegientzat egiten zutelako lan. Fabrikazioko edo etxetik kanpoko lanak ongizate pertsonal eta familiar handiagoa ekarri zien. Etxera dirua eramateak askeago eta gaituago sentiarazi zituen, eta «espabilatuagoak». Nahiz eta, ikusi den moduan, lan-karga handiagoa ere ekarri:

*Uste dut industriak ongizatea ekarri diela emakumeari, familia-bizitzari eta Eibarri oro har. Ongizate horrek independentzia ekonomikoa esan nahi du eta independentzia horrek beste gauza batzuk ekartzen zituen, gizonenganako independentzia handiagoa ematen zigulako. Jada ez ginen gizonen hain menpekoak.*

*Gaztetatik familiari dirua ematea, eta gero, norbere dirua izatera ohitzea, hau da, emakume independientea izatea. «Nik dirua irabazten dut, inork ezin dit esan zer egin behar dudan edo zer erosi dezakedan eta zer ez. Eta dirua ekartzen dut familiara, eta ezkondu eta gero nire dirua daukat».*

Aipamen horiek erakusten duten moduan, emakumeak bat datoz esatera koan «industriari» esker –aipatutako baliabide, espazio eta lan-sare eta ekonomikoen eta jardute kultural eta sozialen egiturari esker– emakumeak «askeagoak, ipurterreagoak, mobilizatuagoak eta aktiboagoak» bihurtu zirela:

*Industriak, emakumeei, ongizatea ekarri die, legezko lana izan, fabrikan, edo ezkutukoa izan. Emakumea kontzienteagoa da bere lan-eskubideen inguruan eta gehiago parte hartzen du gizarte-aldarrikapenetan; nire sasoiaren horrela izan zen. Eta elkartzeko sentimendua eta premia eta balio jakin batzuk sortzen hasten dira, eta emakumeak aktiboagoak bihurtu ginen.*

Aldeko alderdiekin amaitzeko, proiektuko kideek diote, enpresa eta laneko testuinguru anitzetako esperientziari esker, emakumeek, garapen indibiduala lortzeaz gain, taldean lan egiteko eta etxetik harago zihoan testuinguru bateko parte izateko gaitasuna ere lortu zutela. Emakumeei, lan egiteko erraztasunak, autonomia ekonomikoa ekarri die, baina horrez gain, espazio publikoan gizarteratze askeagoa, etxetik eta familiarik kanpora lotura emozionalak eta, beste inguru batzuetan presente egoteko aukera ere ekarri die, elkarbizitza aberatsagoa eta osoagoa izateko ezinbestekoa dena.

*Hori gaur egun ere igartzen ari da. Atentzioa ematen dit emakumea zein aktiboa den. Eibarko emakumeek duten aktibitatea gizonezkoena baino handiagoa dela iruditzen zait. Denean: kezketan, mugimenduetan, denean, harrigarria da! Eta nola eusten dion lagun-talde horri. Berdin berdin egon daiteke lagunekin, lankideekin edo senarrarekin. Eta hori gertatu da kanpoan lan egin duelako, lanean gizonekin erlazionatu delako, eta hori islatu egiten da, eta independentzian. Askok igartzen da, agian ez dugu ikusiko baina igartzen da. Eibartik kanpora esan izan didate atentzioa*

*ematen ziela zer nolako erabakitasuna zuten Eibarko emakumeek, nola zebiltzan bakarrik, nola sartzen ziren kafetegia, taberna edo jatetxe batean, edo oporretan zihoazen lagun batekin, eta gestio bat egiten zuten. Ez ziela inoren eskutik joaten. Agian, hori, lehen gehiago igartzen zen, orain desberdina da baina igartzen da.*

«BESTE INDUSTRIA BAT ERE  
EGON DA»

Eibarko industrializazio-prozesua mesedegarria izan zen emakumeentzat, baina baita desberdina ere. Orain arte ikusi dugun moduan, garapen horretan emakumeek era aktiboan jardun bazuten ere, ez zuten jardun gizonen baldintza berberean, era prekarioagoan eta ez hain seguruan jardun zuten askotan; gainkarga handiarekin eta sarritan era ikusezinean, eta beraz, garapen eta aurrerapen ekonomikoaren kontaketa ofizialean kontuan hartu gabe.

Zentzu horretan, emakumeek azpimarratzen dute, Eibarren «beste industria bat» ere existitu zela, ezkutuan eta ia aitortu gabea, ugalketa-lanekin (etxekolanak eta zaintzakoak, ordaindu ga-

beak) eta ezkutuko ekonomiarekin lotutakoa. Jarduera horrek ez dira ez luxuzkoenak ez ospetsuenak, baina ezinbestekoak dira gizarte bati eutsi eta aurrera egiteko. Beraz, «ikusten ez den oinarria da, ezkutuan dagoena» eta emakumeek egin izan dutena:

*Ezkutuko ekonomiaz berba egiten dugun bakoitzean automatikoki lotzen dugu emakumeekin. «Ezkutuko ekonomia eta emakumea» lotuta daude. Baina ezkutuko ekonomiari buruz dihardugunean, ekonomia bat sortzen duten lanei buruz bakarrik ari gara ala jostun eta modistei buruz ere badihardugu? Edo, etxeetan orduka, makina-erremintarentzat eta bestelakoentzat egiten ziren lanei buruz? Ezkutuko ekonomiaren gainean dihardugu etxeakoandreari edota amama eta umeen zaintzaileari buruz ari garenean?; ezkutuko ekonomiari buruz hitz egiten dugunean, zer ulertzen dugu ezkutuko ekonomia moduan? Gizarte-errekonozimendurik ez duen lan bati buruz ari gara, baina ekarpena egiten du eta gizarte bat sortu, zer izango litzateke, bestela, gizartea, lan horiek gabe?*

Galdera horiek guztiak garrantzitsuak dira parte-hartzaileentzat, industria-ga-

rapenaren sarean betetzen duten lekua-  
ren inguruko hausnarketa eragiten dute-  
lako. Emakumeak han egon dira eta era  
bikoiztuan egin dute lan: lan ofizial eta  
ikusgaietan, baina baita estraofizial, iku-  
sesin eta ezkutuetan ere, jardunaldi bi-  
koitzak eta hirukoitzak ere betez:

*Emakumeek ateratzen zuten au-  
rrera familia. Ezagutzen dut ema-  
kume bat, eta hura bezalako beste  
asko, damaskinatuan lan egiten  
zuen, apopiloak zituen etxean eta  
seme-alabak zaintzen zituen; senarra:  
tailerretik tabernara.*

*Emakumeak zeuden senarren  
atzean, egonkortasuna eta babesa  
eta behar zuten guztia ematen zieten,  
gizonak profesionalki gara zitezten.  
Emakumeek ematen zieten gizonak  
aurrera egiteko behar zuten oinarria,  
seme-alabak ateratzen zituzten au-  
rrera doako lana egiten.*

Hainbat egoera gogoratzen dituzte,  
non emakumeek euren lanarekin, itza-  
lean jardun duten:

*- Lau seme-alaba izan nituen, eta  
gizonak diote: «Zer nolako zortea ge-  
nuen!». Eurekin, gaueko hamabiak  
arte, edonora! Edozertarako. Jer-*

*tseak, kamisetak, kaltzetinak egiten  
nituen, josi, etxeko administrazioa  
eraman...*

*- Pena da ez zela hori guztia balo-  
ratzen.*

*- Baina gelditzen zaizun sentsa-  
zioa!*

*Beti aipatu izan da Arrateko bidea  
gizonezkoek egin zutelako, 1920. urte  
inguruan. Zein betebeharrak izan zuten  
eraikuntza hartan emakumeak? Ema-  
kumeek eramaten zieten «arran-  
txoa», janaria eta behar zuten guztia  
errepidea egiten ari ziren gizonak.  
Emakumeek egin zuten lan hori gabe  
gizonek ez lukete biderik egingo.  
Beraz, emakumeek ere egin zuten  
Arrateko bidea.*

«Denean egote» horrek euren lana  
modu anibalentean baloratzea eraman  
ditu emakumeak: alde batetik, harro sen-  
titzen dira euren bizimoduak aurrera ate-  
ratzeko gai izan direlako eta euren  
familia zaintzeko egindako ahaleginaren-  
gatik. Bestetik, engainatuak izan zirela  
eta lanerako eta besteekiko sakrifizio-  
rako zuten aurretiko joerarengatik erabiliak  
izan zirela sentitzen dute eta sentimendu  
horrekin kontaktatu dituzte euren bizipe-  
nak:

*Guretako ezkutuko ekonomia ez zen txarra. Normala zen emakumeek era horretako lanak egitea. Gizartea horrela zegoen antolatua eta ondo ikusten genuen, zuzena zela uste genuen, adibidez emakumeek eginkizun zehatz batzuk izatea: jostea, sukaldatzea, plantxatzea, zaintzea... normaltzat jotzen zen, emakumea horretarako prestatua egotea begi onez ikusten zen: akademia batera joatea josten eta era horretako gauzak egiten ikastera.*

Izan lege-murrizketengatik, ohiturengatik edo hainbat egoera pertsonalengatik, emakumeak arduratu ohi izan dira etxeko lanetaz eta familia zaintzeaz, eta eurena sentitzen duten espazio horri etekina atera diote, tailer, lantegi eta beste-lako negozioekin lotutako beste lan batzuk ere egiteko, etxea eta familia albo batera utzi gabe. Horren adibide dira damaskinatua edo, herritarren artean, «perleatua egitea» moduan ezagutzen zena, «kirtenak zulatzea», etxetresna elektrikoen piezak muntatzea, jantziak egitea edo galtzerdiei puntuak hartzea.

*Nire etxe parean bizi zen emakume batek etxean zulatzen zituen kirtenak, eta lau seme-alaba hazi zituen.*

*Ezagutu nuen emakume batek eta hark bezala beste askok- etxekolanak egiten zituen, apopiloak zituen eta, gainera, etxabeen grabatu egiten zuen. Beste batek apopiloak zituen, eta familia ere bai, etxeko lan guztiak egiten zituen eta, gainera, abarketak ere bai. Gizonak, berriz, tailerretik joan eta etorri egiten zuen.*

*Emakume askok jertseak egiten zituzten, eskuz edo makinaz. Etxean zituzten makinak eta neurrira egiten zizkiguten jertseak. Makinarekin: pf, pf... Jertseak egiten zituzten, eta baita soinekoak ere, denetik egin zezaketen puntuarekin.*

*Nire ahizpek motorren eta bizikleten aulkiak josten zituzten etxean, baina makina berezirik gabe.*

*Brodatzaileek, jertse-egileek, ilea-paintzaileek, praka-egileek, ugazabandreek, etxetresna elektrikoen piezen muntatzaileek, zulatzaileek... etxetik egiten zuten lan eta lan horietan ez zegoen gizonik, andrak soilik. Normalizatua zegoen.*

Ezkutuko ekonomiaren barruan emakumeek egiten zuten beste lanetako bat «ostalari egitearena» zen, apopilotza



moduan ezagutzen dena. Industria-garapenean herriak jaso zuen immigrazio-kopuru handiaren eraginez, Espainiako leku ezberdinetatik etorritako apopiloak hartu ziren etxeetan –gizonezkoak gehienak-, eta baita eskualdeko baserrietatik eta beste herri batzuetatik etorritakoak ere, hala nola, Elgoibar, Durango, Irun, Azkoitia eta Azpeitiatik etorritakoak. Emakumeek zuten elkarbizitzako modu berri haiek eta diru-sarrerak kudeatzeko ardurara, ugazabandren deitzen zitzairen eta harrera egin eta ostatu ematearen oinarritzko zerbitzuez arduratzen ziren: arropa garbitu, janaria prestatu, eta azken finen, etxearen mantenua eta administrazioa.

*Gizon apopiloak eta emakume apopiloak zeuden. Batzuetan, gizonak etortzen ziren lehenengo, eta gero, emazteak, seme-alaba txikiekin. Emakume ezkongabeak ere etortzen ziren kanpotik, baina gehiengoak gizonezkoak ziren.*

Ugazabandren irudia oso lotuta dago lantegietan lan egitera edo Armeria Eskolara ikastera kanpotik zetozen apopiloekin eta industriaren garapenarekin, langileen harrera eta arretari esker existitu eta mantendu zelako Eibarko industria-ekoizpen handia. Ugazabandreak

oso garrantzitsuak izan ziren industriaren sostenguan, langileen iraupenerako baldintzak eta ongizatea bermatzen zituzten-eta.

Apopiloak hartu zituen familiarekin bizi ziren ezkondu edo jatorrian utzitako familiarekin berriz ere elkartzen ziren arte. Baina ordura arte, denbora luzea pasa zitekeen eta apopilo-anfitrioi erlazio hutsa gainditzen zuen harreman estua sortzen zen:

*Guretako ez ziren paseko pertsonak. Apopiloak ziren, baina familiarekoak modukoak ziren.*

*Izebak apopiloak izan zituen. Lehenengo aita etorri zen, batailoi batean hartu zuen parte. Aitak seme bat ekarri zuen, eta gero arreba, 16 urterekin. Semea ezkondu egin zen eta arreba han gelditu zen, ezkondu arte. Niretako bera izan da nire ama.*

INDUSTRIALIZAZIO-PROZESUA  
BIDEGABEA IZAN DA  
EMAKUMEEKIN:  
«GAUZAK HORRELA ZIREN»

Emakumeek ezkutuko ekonomiaren mundu prekarioan jardun behar izan dute, baina lantegi eta tailerretan lan egin zutenek ere ez zuten erraza izan. Emakume beharginen oroimenean esperientzia positibo ugari daude baina industria-eremuan bidegabekeriz hitz egiten duten errealitateak ere bertan daude: berdintasun eza soldatetan, lan-bereizketa, emakumeen lanaren gutxiespena, diskriminazioa, sexu-jazarpena, lan-gehiegikeri edo esplotazioa moduko egoerak jasan izan dituzten Eibarko emakume beharginek, eta oroimenean nagusitzen ez badira ere, haren parte dira.

Jakina den moduan, Eibarko enpresa askotan gizonezkoek zein emakumezkoek egiten zuten lan, eta lantegi askotan, Herlmoz edo Jatan adibidez, behargin gehienak emakumeak ziren. Hala ere, parte-hartzaileek gogoan duten bezala, gizon eta emakumeek ez zituzten postu berak betetzen produkzio-prozesuan. Sasoiko diskurtsoak, beste argudio batzuen artean, «sexu bakoitzaren gaitasun fisikoen» arabera gizon eta emakumeen arteko bereizketa defendatzen zuen, eta beraz, lan ezberdi-

nak egiten zituzten produkzio-prozesuan. Gizonetan euren indarra edo muturreko tenperaturen aurrean zuten erresistentzia baloratzen ziren moduan, emakumeetan eskuetako trebezia, neurri jakin bateko piezak lantzeko gaitasuna edo doitasun-lanak egiteko zuten erraztasuna apreziatzen ziren:

*Helmoz-en egiten genuen lan eta gehiengoak emakumeak ginen. Eta enpresa itxi zenean Eibarko enpresa askok Helmoz-eko emakume beharginak nahi izan zituzten, torloju eta bihurkin txikiekin lan egitera ohituak geunden-eta, abilezia hori genuen.*

*Beharrea hasi nintzenean, emakume askok egiten zuen lan han. Gizon eta emakumeek egiten zuten lan, bereizketarik gabe. Baina emakumeak gizonak baino gehiago ziren, eskuzko lan asko zegoen-eta... artisa-lana zen, eskuetan trebezia behar zen. Eta han, gainera, ez zegoen pisua mugitzeko lanik.*

*Gizonak arlo mekanikoan zeuden batik bat, eta prentsetan ere bai. Tailerreko arduraduna ere hor zegoen, eta emakumea izan aurretik gizonkoa zen. Eta gainerakoa emakumeek egiten zuten, gauza mekanikoak izan ezik. Normalean, makina bat matxu-*

*ratzen bazen, mekaniko bati deitzen genion konpontzera etor zedin, baina emakumea zen han zegoena, denetarik egiten.*

Horrek ez du esan nahi emakumeek lan gutxiago egiten zutenik. Estimatuak ziren emakumeen pertseberantzia eta zereginak errepikatzeke gaitasuna. Hainbat emakumek gogoan duten bezala, batzuetan, produkzio-premiekin lan gogor eta jarraitua egitera behartzen zuten, eta makinak markatzen zuen lan-erritmoa:

*Baina primekin ere egiten zen lan, serio egiten genuen lan. Makina bakoitzaren pieza egin behar genuen... Nik 3 urte eman nituen tailerrean, gero aldatu egin nintzen, baina makina bakoitzean egin behar genuenak kronometrazioa zeukan. Aurrez kronometratzen zuen aditu batek eta orduko hainbat pieza atera behar genituen. Piezen arabera kobratzen genuen. Kobratu egiten genuen, baina 90 eta 120 edo 140 arteko baremoko prima ateratzen bagenuen, baremo horren arabera plus bat zegoen. Gehiago edo gutxiago kobratzen genuen. Pieza batzuk egiteko korrika ibili behar ginen, eta beste batzuk, berriz, lasaiago egiten genituen.*

Emakumeen egoera ahulagoa zen, ez soldata txikiagoa edo lan-baldintza okerragoak izan zitzaizketelako soilik, baizik eta langile-murrizketek gehiago eragiten zizketelako:

*Enpresako lehenengo berregituraketan kalera joan zirenak emakumeak izan ziren, aukerarik ere ez zuten! Izan ere, tailerrera sartu ziren azken 15 pertsonak bota zituzten: 3 gizon eta 12 emakume. Papeleta eman zieten, 15ak joan ziren, eta handik astebetera berriko kontratatu zituzten hiru gizonak. Eta emakumeak ez!*

Emakume beharginen oroitzen diren gai negatiboaren artean daude hainbat tailer eta fabrikatan jasan zuten gehiegikeri-egoerak ere:

*Seme nagusia daukat gogoan, eta aita, tailer erdian eserita, aulki birakarian, eta horrela... begiratzen, zelan..*

*Familia-enpresa batean egin nuen lan eta erabat diskriminatuak izan gara. Gizonen lan berbera egiten genuen, ez ziguten berdin ordaintzen, eta gainera, komunak garbitu behar genituen: gureak eta gizonenak.*

*Tailerraren beheko aldean iturri bat zegoen eta egurrezko gantxil (botijo) batzuk zeuden; laguntzailea urarekin zetorrenean trago bat hartzeko aprobeztatzen genuen, handik pixkatera ur hark zapore nazkagarria izaten zuen-eta. Eta batzuk dirua jarri zuten, gantxila erosteko. Behin okurritu zitzaidan esatea: «nik egurrezkoetik ez dut edango, beste hartatik edango dut». «Ai ama! gantxila bakean utzi izan banu hobe, ze...!*

*Eta zigortu egiten gintuzten: komunak garbitzera! Eta txakurrekin! Zaldien pareko txakurrak zituen, goiko biltegian; nire lagun bat han egon zen zigortuta, ugazabak zituen horrelako txakurrekin!*

Beharginen artean errietak ere sor zitezkeen, edo elkartasun gutxi egon, batez ere gehiegikeria edo tentsioa zegoen tailer edo enpresetan. Horixe da, hain justu, ondorengo esperientzian gertatzen dena:

*Helmutz-etik beste enpresa batera joatea tokatu zitzaidan, bizpahiru hilabeterako bidali gintuzten, bi tailerrek elkartuko zituztela edo ez dakit zer, eta hara joan nintzen. Jainkoaren ama! Gainera, hango emakume guz-*

*tiak gurekin waaargh! Piztiak bezala! Eta guk esaten genien: «gu ez gaude gure lantegian barren! Agindu digutelako gaude hemen eta ezin dugu ezer egin!». Esaten zuten lanik onenak kendu eta guri eman zizkigutela.*

Lanaren gogortasuna produktio-katean betetzen zen postuari lotuta zegoen, eta pertsonaren abilezia eta eza-gutzaz gain, gizon edo emakume izateak ere bazuen zerikusia:

*Zeharkako postuek ez zuten primarik. Zuzenetan piezakoan ordaindutako soldata zuten. Zeharkakoak beti ziren bitarteko postuak eta mekanikoak, ofizinstak, administrazioak... horrek denak ziren zeharkako postuak. Administrazio-postuetan emakumeak ere bazeuden. Aurre-rago, ia bulego guztietan zeuden emakumeak. Gure kasuan nagusiak gizonezkoak ziren. Gerora emakumeek ere bete zituzten nagusi-postuak.*

Gizon eta emakumeek enpresa-espazioa modu berean ez betetzeak, ez kalitatean ez kantitatean, kontratatzaileentzat batak edo besteak zuen balio ekonomiko desberdinarekin dauka zerikusia.

Eibarko industriaren lan-merkatua ere bereizi izan duen soldata-ezberdintasunaren inguruan hausnarketa egin dute proiektuko emakumeek eta ondorengo galdera bota dute: «zergatik hartzen zizutuzten emakumeak, eskuetan zuten trebetasunarengatik ala gizonak baino merkeagoak zirelako?». «Emakume asko lanean egon denean gutxiago ordaintzen zirelako izan da», erantzun dute.

Salbuespenak-salbuespen, Alfa kooperatiba esaterako, enpresarik gehienetan emakumeek gizonak baino gutxiago irabazi izan dute, emakumeek egiten zizutuzten lanak zirelako okerren ordaintzen zirenak. Horrek esan nahi du, lan-bereizketak, kasu askotan, soldata-desparekotasuna zekarrela.

*Helmutz-en, emakume gehienek, telebisten platinak muntatzen zituzten. Emakume guztiak kobratzen zuten berdin. Baina lanposturik gehienetan emakumeak gizonak baino koska bat beherago zeuden. Emakumeak zeuden sailetan gutxiago ordaintzen zen. Ikustekoa zen emakumeen primak nola zeuden! Sasoi hartan nire senarrak nik baino 200 pezeta inguru gehiago irabazten zuen eta berdin egiten genuen lan, jo eta ke, baina sail ezberdinetan. Ema-*

*kumeak beti irabazten zuen gutxiago, leku guztietan.*

Hala eta guztiz ere, ikasketa espezializatuak edo esperientziak emandako ezagutzari esker lanpostu hobeto batera iristen ziren emakumeek ez zuten gizonen pareko ordainik jasotzen; «emakume espezialistak gizon espezialistak baino gutxiago irabazten zuen», diote ziurtasunez emakumeek.

*Hiru tailerretan egin dut lan, 90. hamarkadan, eta hiruretan, emakume espezialistak gizon espezialista batek baino gutxiago irabazten zuen.*

*Vec-en biltegian egiten nuen lan eta nagusietako batek esaten zidan tailerreko makina batean jarri behar nintzela; nik ez nuen arazorik baina makinan lanean ziharduen mutikoa-  
ren kopuru berbera ordaintzea eskatu nion, eta berak ezetz. Biltegian ordaintzen zidan berbera ordaindu nahi zidan. 3 urte egon nintzen eta utzi egin nuen.*

Emakumeentzat gizonentzat baino askoz ere zailagoa zen gehiago baloratzten ziren eta hobeto ordaintzen zizutuzten edo enpresa barruan botere edo prestigio handiagoa zuten postu espezializatu

jakin batzuetara ailegatzea. Horren azalpena, neurri batean, emakumeek hezkuntza-esparruan jasan duten eta laneratzean zuzenean eragin duen desparekotasunean aurkituko dugu. Eibarren kasuan, adibiderik garbiena da joan den mendeko 70. hamarkada erdira arte emakumeak ezin izan zutela Armeria Eskolan sartu. Kontatzen denez, «Eskolan sartzea betidanik izan da prestigio handia», eta urteetan, emakumeei, ukatu egin izan zaie pribilegio maskulino hura. Armeria Eskolan jasotako prestakuntzarekin lotzen ziren lanetarako ere atearik izten zitzaizkien.

Zentzu horretan, emakumeek dioten moduan, «etorkizunari begiratzeko modua (gizon eta emakumeena) desberdina zen», prestakuntzarako aukerak desberdinak ziren, eta ondorioz, lanetarako aukerak ere bai. Prestakuntzarik gabe, adibidez, ezagutza teknikoak eskatzen zituzten hainbat postu espezializatutara ezin ziren sartu; postu horiek Armeria Eskolan ikasi zuten «enkargatuek» betetzen zituzten.

*Tailer txiki bat genuen, familiakoa, eta emakumeek fresatzeko makinetan, zulatzeo makinetan... egiten zuten lan, gizonak bezala. Hori bai, enkargatua gizonezkoa zen, Armeria*

*Eskolan ikasi zuelako, emakumeek orduan ezin zutelako han ikasi, eta beraz, ezin zuten makina bat martxan jarri, sasoi hartan ez zitzaielako erakusten.*

XX. mendeko hirurogeita hamargarren hamarkadan, Armeria Eskolak atearik zabaldu zitkien emakumeei, baina espezialitate eta ikasgai jakin batzuetan soilik:

*Gogoan dut emakume askok Delineazioa ikasten zutela, eta hori ez zen beste leku batzuetan gertatzen. Hortik irten ziren emakume delineatzaileak, baina egia da ikasgai batzuetara ezin zirela joan.*

*Emakumeak sexuz bereizitako ikasgai batzuetara soilik sar zitezkeen, eurentzat «egokienak ziren» ikasgaietara. Emakume eibartarrari eman zitzaion aukera izan zen, baina aukera partziala. Emakumeek ezin zuten, adibidez, Mekanika ikasi. Gu konformatzeko modu bat izan zen.*

Era berean, Eibarko industria-eremuan emakume ekintzaileak eta aitzindariak egon badira ere, enkargatuaren postua emakume batek betetzea ez zen ohikoa, ez eta tailer edo lantegi baten

jabe-enpresariak izatea ere; gogoan dutenez: «emakumeek behar asko egin zuten fabriketan baina oso gutxik jardun zuten fabriketako zuzendari-postuetan. Ez zen ohikoa». Zuzendari-postuetan zeuden emakumeak ez ziren berdintasun osoan mugitzen. Jarraian azaltzen diren lekukotasunek erakusten dute gizarte industrialia ez zegoela prestatua emakume enpresariak integratzeko:

*Gizon bat ailegatu zen tailerrera eta ez zioten esan gerentea emakume bat zela eta berarekin hitz egin behar zuela. Plano tekniko batzuekin etorri zen eta esan zidan: «Zeinekin hitz egin behar dut planoei buruz?», eta nik erantzun nion: «nirekin!». «Gogoan daukat gizon hari ia-ia bihotzekoak eman ziola han bertan, enpresaria emakume bat zela jakin zuenean!*

*Ekitaldi bat antolatu zuten, hainbat enpresarekin, eta tartean emakume bat zegoen, ni neu. Bazkaria antolatu zuten gizonaen elkarrekin gastronomiko batean, pentsatuz parte hartuko zuten guztiak gizonaenak izango zirela. Baina bazkaltzeko ordua ailegatu zen eta konturatu ziren ni ezin nintzela elkartean sartu. 70. hamarkada zen. Jangelako ixkina*

*batean jarri ninduten, komunaren ondoan, momenturen batean ezkutatu behar izango nintzelako edo. Ez zen horretarako premiarik egon, baina gonbidapena egin zuen bazkidearentzat konpromiso bat izan zen.*

Horrela, berdintasun ezaren ardatz guzti horiek kontuan hartuta, esan genezake Eibarko emakumeentzat, beste askorentzat bezala, industrian lan egiteak esfortzu bikoitza eragin ziela: produkzio-prozesuak berak eskatzen zuena alde batetik, eta bestetik, langile moduan gizonen pare baloratuak izateko esfortzua.

*Garrantzitsua da agerian uztea, zeregin asko burutu ditugun arren eta emakumeek lan egin dugun arren, beste industria bat ere egon dela, beste ixiltasun bat, gizonak baino gutxiago kobratze hura, gizonaek bete dituzten postu garrantzitsuetan ez egotea, tailerretan, enkargatuak, gizonaek zirelako, baina beharginak, berriez, emakumeak.*

Laneko espazio guztietan emakumeek berdintasun ezako egoerak jasan dituzten arren, atentzioa ematen du lan-gatazken inguruan emakumeen oroitza-penean dagoen hutsuneak. Egia da

oroimen kolektiboan sakontzen denean, parte-hartzaileek industria-eremuan gertatutako gatazkaren bat kontatzen dutela, azaletik, baina argi dago, emakume horiek, esperientzia gatazkatsuak, ondoeza eragin zutenak edo langile-protestak ahaztu nahi dituztela. Agian, herriko enpresa-testuinguruak bizi zuen familiagirotza lagungarria izan da oroimenean greba, protesta edo gatazka gutxi gordezeko eta «enpresari eta beharginen» arteko harreman ona, enpresen barruan jerarkiak zuen itxurazko ahulezia eta lan industrialaren inguruan arnasten zen harmonia nabarmentzeko.

Eibar bereiztu zuen eredu kooperatibista, Alfa erreferente gisa hartuta, sistema ezin hobe baten paradigma izan da produkzio-harremanei dagokienez. Hala ere, emakume beharginek gogoratzen duten bezala, eredu horrek egon zitezkeen protestaldiak urrun zitzakeen. Dena dela, grebak egon ziren, eta emakumeek, kooperatibismoaren barruan edo kanpoan, aktiboki hartu zuten parte langile-mugimendu hartan.

Langile gehienak emakumeak ziren enpresetan ere grebak egin ziren, lan baldintza hobekak eskatzeko, baina gehienak eskakizun orokorrak izan ziren, genero-diskriminazio eta desparekotasunarekin loturarik ez zutenak. Proiektu ho-

netako parte-hartzaileek uste dute protesta haiek langileen eskubide orokorrak hartzen zituztela aintzat, batez ere soldata hobetzea, eta kasu askotan, lortzen joan ziren. Baina, protesta eta ekintza gehienetan parte hartu arren, ez zuten emakume eta gizonetzkoen arteko egiazko soldata-berdintasunik lortu:

*Ez zen sekula soldata-berdintasunik lortu. Baina emakumeen parte-hartzerako eskubidea bai errespetatzen zen (langile-mugimenduan). Tailerretan emakume delegatu sindikalak zeuden. Hainbat delegatu sindikal izan ziren. Zeregin hura ez zen gizonena soilik. Adibidez, hartze-kodunekin egindako negoziazioetan gure delegatu sindikala bertan egotea lortu genuen. Hura ez zen ohikoa. Baina delegatua ez zen gai ikusi hartze-kodunen batzarrean egoteko, akzionista batzuk ere bertan egongo ziren, eta laguntza eskatu zion sindikatuari. Sindikatuak ordaindutako abokatu bat batzarrean berarekin egotea eskatu zuen, eta lortu zuen.*

Eta berdintasun ezako testuinguru hartan, emakume beharginek euren eskakizun partikularrak zituzten. Bi aldarrikapen aipatzen dira batez ere: «soldata eta baldintzak».



Gizonak moduan hasten zara lanean, baina ez dizute berdin ordaintzen. Emakumeek greba bat egin genuen, diru gehiago irabaztea nahi izan genuen, gizonen parean egoteko. Eta ez ziguten babesik eman. Haiantzako, euren herrira joateko oporrak ez kentzearekin, nahikoa zen. Apur bat mugitzen baginen xaboia eta komuneko papela jartzen ziguten komunean –edo etxetik ekartzen genuen, nagusiari eskatuz gero egunkaria ematen zigun-eta-. Eta gizonak ez zioten hari garrantzirik ematen. Edo mantala edo oinetakoak eskatzerakoan (hor ere ez ziren inplikatzeko). «Zelan ez duela garrantzirik? Gure eskubidea da!», esaten genuen. Edo amatasun-bajarekin! batzuetan tailerrean bertan erdiko zirela pentsatzen nuen!, haurdunek azkeneko egunera arte egiten zuten lan, eta pisuak hartzen!

Une hartan, eskakizun nagusia, soldata-berdintasuna zen, eta baita, tailerretan, gizon eta emakumeentzat aldagela bereiztuak egotea ere. Eta emakumeek garbitu behar izaten zuten aldagela. Enpresan gehiengoak izan arren, ez genuen aldagela propiorik. Enbaltzeko kaxak hartu eta han jartzen genituen, intimitate apur bat izateko. Tailer handietan ez ze-

goen horrelako arazorik. Normalean aldagela bereiztuak izaten zituzten, baina tailer txikietan bereiztutako aldagelak eskatzen genituen, ez zeuden-eta.

Lan-baldintzekin lotutako eskakizunak, ikusi dugun moduan, oinarritzko gauzak ziren, komuna, garbiketarako tresnak edo uniformeak. Emakumeen eskakizun haien lorpena sindikatuaren indarraren eta ugazaba edo gerentziaren borondatearen arabera zen.

Gizonezkoak bezain langileak, protestetan ere gizonen ondoan, baina emaitza ezberdinekin. Emakumeek, aldarrikapen-iragana, zalantza apur batekin gogortzen dute, langileen borrokan lehehengo ilaran egon arren, emakume beharginen eskubide zehatzak beti gelditzen zirelako ezkutuan eta bigarren mailakotzat hartzen zirelako, eta kexu dira gizezko lankideen aldetik babesik jaso ez zutelako. Emakumeen eskaera edo interes espezifikoak aipatuz, delegatu sindikal ohi batek honela dio: «gizonek ez zuten hura ulertzen».

Nire enpresan, behintzat, batzar edo greba bat proposatzerakoan, hitzarmenaren aldekoa bazen esaten zuten: «ondo da, borrokatu egingo dugu», baina «emakumeen hobe-

*kuntzen alde borrokatuko dugu» proposatzen bazen, orduan ez, gizonentzat ez zuen lehentasunik.*

Ez ziren solidarioak edo «apur bat atzera joaten ziren», emakumeek «aldarrikatzeko gai asko zituzten» bitartean, gizonek ez, ez zuten borrokarako arrazoirik. Gogoan dute, adibidez, lan-orduetan umeari bularra ematera irten ahal izatea kritikatu zutela lankide batzuk. «Bularra ematera irten zen» enpresako lehenengo emakumea gogoratuz, parte-hartzaileetako batek zera dio: «Ai ene, entzun behar izan zituenak! Baina ez ugazabaren aldetik bakarrik, lankideen ahotik ere bai, eta horrek min handiagoa ematen du!».

Hala ere, gizartearen aldetik babes eskasa jaso arren, borroka-uneak gogoan dituzte, horietako batzuk arrakastatsu samarrak:

*Enpresa batean lan egiten zuen emakume bat... prestatuagoa zegoen, hitz egiteko erraztasun handiagoa zuen, eta emakumeen greba bat egin zen –han emakume askok egiten zuten lan- eta emakume hura aukeratu zuten protesta egitera joateko. Protestatzera joan zen. Gauza bat eta bestearen artean iskanbila egon zen,*

*eta une hartan guztien soldatak 0,25 igotzea lortu zuen –nahikoa zen... Baina berari ez zioten soldata igo!, protesta egiteagatik ez zioten soldata igo! Eta txarrena da, gainerakoak konformatu egin zirela. Aukeratu egin zuten, ez zioten soldata igo eta besteak ixildu. Ezin liteke. Ez dago ondo.*

*Hainbat egunetako greba pasa nuen. Kontua eskatu genuen indarplan bat moduan, denok eskatu genuen kontua eta pertsonalburua gu denon izenak apuntatzeko koadernoarekin eta boligrafoarekin igo zenean, 47 joan egin ginen, eta gainerakoak kokildu egin ziren. 69ko urritik 70eko apirilera arte egin nuen lan han. Greba bat, baina Guardia Zibila eta guzti joan zen tailerrera, e?*

*- Eta zer salatzen zenuten?*

*- Lan-baldintza txarrak.*

Emaitzetatik harago, protesta horiei eta beste batzuei esker, nahiz eta aldizkakoak izan, aldarrikapen handiekin lotutakoak izan ala ez, eta langile askok edo gutxi bat egin, hobekuntzak lortu ziren pixkana-pixkanaka, aurrerapenak ekarri zituzten lan-eskubideetan eta hurrengo belaunaldietarako gelditu ziren baldintza onuragarriak ezarri zituzten.

Eibarko emakumeen eta industrializazio-prozesuaren gaineko bizipenak eta diskurtsoak laburbiltzen dituzten gai gauek guztiak agerian uzten dute, gai jakin batzuen inguruan oroitzen zein ahazte garrantzitsuak daudela, eta tentsioak eta paradoxak ere badaudela, ez emakumeek bizi izandako esperientzia eta egindako lanean soilik, baizik eta baita orain pentsatzen duten moduan ere.

## Industrializazio- prozesuan emakumeek izandako parte-hartzearen memoria eta ikuspena

**E**makumeen bizipenek, bizi izan ziren testuinguruak, industriaren hazkundera eta desegitea bizi izan zuten moduak, lan egiteko eta diru-sarrerak lortzeko, eta antolatzeke moduen aldaketek... industriak emakumeen bizitzan utzitako aztarna ez ezik, batez ere industrializazio-prozesuan emakumeek utzi zuten aztarna ulertzen laguntzen dute, aurreko orrialdeetan jasota gelditu den moduan. Hala ere, emakumeen ekarpenak nabarmentzeko, emakumeen ikuspen eta ikusezintasuneko espazioak, eta *Eibar* ezberdin haien oroitzen eta iraunkortasunarekin indarrean dauden loturak kokatu behar dira, sare horretan bereizi beharko litzatekeelako emakumeen esfortzua.

## Industria iraganaren trazuak

### ZER GELDITZEN DA INDUSTRIA HARTATIK?

Luzaroan iraun duen industria-paisaia emakumeek bizi eta lan egin zuten «Eibar industrial» haren lekuko da. Baina herria betetzen jarraitzen duten hainbat industria-eraikinez gain –hutsik batzuk, berrerabilita beste batzuk, eraisteko zorian beste batzuk-, iraganeko hamarkadetako bizitza industrialak gogora ekartzen dizkiguten hanbat jardute sozial eta kultural ere iritsi dira gaur egundaino.

Herritarron oroitzapenean daude fabrikeri buruz diharduten kantuek; emakume batzuk kantatzen dituzte oraindik ere, beste batzuk badakite entzun dituztela baina ez dituzte letrak gogoratzen. Eibarren izandako grebaren bat edo lanarekin lotutako beste egoera historikoren bat aipatzen duten antzerki-lanak ere badaude. Beste sasoi bateko memoria gorde eta transmititzeko moduak dira.

Bete-bete indarrean dagoena, guztiok ezagutzen duguna, Alfaren sirena da, gaur egun Eibar K.E. herriko futbol-taldeari lotzen zaiona. Enpresetako sirenek, ez dute, jada, herriaren erritmoa markatzen, baina herritarrek badakite

bertoko futbol-taldeak gola noiz sartzen duen, soinu berbera entzuten da-eta.

Eibarko etxe askotan era guztietako etxetresna elektrikoak bildumak dituzte gordeta; tresna haien manufakturan zihardutenek prezio berezietan eskuratzen zituzten, edo fabrika haietan lanean ziharduen lagun, bizilagun edo ezagun baten bitartez ere bai, beharrezko bitartekotza egin ondoren.

Ohitura batzuk bizirik diraude gaur egun herrian, tiroak, adibidez, Eibarren izan den arma-tradizioaren seinale. II. Errepublikaren garaian egiten ziren txapelketetan emakumeek ere hartzen zuten parte (gero kendu egin zituzten txapelketa haiek) eta Eibarrek «tiratzaile handiak, Espainiako txapelak» eman ditu. Txirrindularitzak ere pisu nabarmena izan du herrian, bertan egiten ziren-eta bizikletak. Izan ere, beste herri batzuetan baino lehen, Eibarko emakumeak hasi ziren bizikleta garraio bide moduan erabiltzen; proiektu honetako emakumeek, jardute hura, ezohiko askatasunaren edo emakumeen botere edo independentziaren beste adierazpen bat moduan gogoratzen dute.

«Modistillen Eguna» ere ezin dugu ahaztu. Egun hori ez da ehungintzan jar-

dun zuten emakumeei egiten zaien omenaldia, eta ez du hasieran eman zitzaion zentzu bera, baina denboran zehar iraun duen jarduera da. Jatorri frantsesa duen ospakizun hau, hasieran, XX. mende hasierako emakume modernoa ikusgai jaritzeko modua zen; Espainiako herri askotan sartu eta egokitu zen, eta sasoak eta emakumeen baldintzak aldatu ahala, egun horretako asmoak eta moduak ere aldatu egin ziren. Eibarren, antzina, lan egin, eta beraz, gaitasun ekonomikoa eta autonomia zuten emakumeak afaltzera irteteko eguna izaten zen. Hasieran jostunak, eta gero langile guztiak, eta gaur egun edozein emakumek egiten du bat urteroko ospakizun horrekin.

Hor dira, jakina, Eibar ezberdin haiek, haren ekoizpenak, hazkundeak edo lanak ekarritako harrotasuna eta ospea. Eta horrek guztiak eibartarrok gure ondasunarengatik dugun interesa adierazten duten era ezberdinak ekarri ditu, adibidez: ez da harraroa Eibarko dendetako erakusleihoetan Alfa josteko makina bat, Lambretta bat edo industria-iraganarekin lotutako beste edozein objektu ikustea; edo Elkartek, Arrate Filatelikak esaterako, bertako historia eta kulturarekin lotutako erakusketak antolatzea.

## TOKIKO MEMORIA, INDUSTRIAREN MEMORIA, ETA EMAKUMEEN EKARPENAK?

Eibarko enpresetan fabrikatu ziren objektu haietako asko, orduan ordezkatu zutena eta gaur egun esan nahi dutena, eta Eibar industrialaren eraikinak eta beste hiri-trazu batzuk, ondare preziatua dira orain, eta espazio ezberdinetan gorde eta transmititzen da. Ekimen pribatuak daude horren atzean, Alfa museo adibidez; orain dela gutxi (2016ko udan) josteko makina zahar eta berrien erakusketa antolatu zuen, makina horren fabrikazioaren eta Alfa enpresaren ibilbide historikoan barrena. Baina baliabide eta espazio publikoak ere ezin ditugu ahaztu, Armagintza Museoa esaterako; erakusketa iraunkorretan, industria mota horren atzera begirakoa egiteaz gain, industria garapenaren bitartez Eibarren historia erreparatzen duen espazioa ere eskaintzen du. Hala ere, «Aztarnak» proiektuko parte-hartzaileek uste dute, emakumeen parte-hartzea ez dagoela horren ikusgai Armagintza Museoan. Hainbat jarduera antolatu dira baina ez dira iraunkorrak izan, eta ez dira haiek egituratu eta indartuko dituen estrategia baten barruan antolatu.

Adibidez, Ego Ibarrek emakumeak eta haiek egindako lana ikusarazteko interesa agertu du eta ekimenak antolatu izan ditu, adibidez, 1994an aurrez aipatutako *Eibarko Emakumeak 1900-1950* erakusketa antolatu zuen. Ekimen hartatik bi hamarkada baino gehiago pasatu arren eta antzekorik berriro antolatu ez bada ere, garrantzitsua da adieraztea, sasoi hartan, Gizarte Zerbitzuetako zinegotziaren eta herritarren inplikazioa ezinbestekoa izan zela. Erakusketako argazkiak Udal Artxiboarenak eta Eibarko eta beste herri batzuetako emakumeenak ziren. Erakusketak harrera ona izan zuen eta Udalak antolatutako erakusketen artean «jendearen parte-hartze handiena» eta «Eibarren zein Eibartik kanpo ohiartzuna» izan zuen erakusketa moduan gogoratzen da. Halaber, oso une hunkigarriak bizitzeko aukera ere eskaini zuen erakusketak, adibidez «Errepublikara garaian andereñoak izan zirenak» etorri zirenean, dio Ego Ibarra Batzordeko kideetako batek. Gai honen inguruko ekimenek interesa sortzen dutela erakusten du horrek, eta industrializazio-prozesuan emakumeek utzitako aztarnari buruzko kontakizun honek zer nolako potentziala duen ere bai.

Eibarko memoria eta ondarearekin lotutako beste proiektu indartsu bat «Ei-

barren ahotan» izenekoa dugu; 1999an jarri zuen abian Ego Ibarrek Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin. Gaur egun, proiektu honen bitartez, hainbat herritako gizon-emakumeen kontakizunak eta haiek bizi izandako gertaerak biltzen dira. Hasi zenean, ez zen beste inon adineko pertsonen lekukotasunik bildu, eta belaunaldi hartako bizipenak berreskuratzea interesgarria zen. Proiektu hura bultzatzeko oinarrietako bat 1994an egindako erakusketa hura izan zen, koordaintzaileetako batek dioen moduan, erakusketa hartan ahozko lekukotasunen falta igarri zelako. Proiektu hura hedatu egin da eta, oro har, kultur ondarearen eta bereziki ahozkoaren lanaren zutabeetako bat da; hala ere, proiektuaren izaera nahiko orokorra da, era guztietako testigantza asko biltzen ditu, gai asko hartzen ditu, ez du emakumearen protagonismoa nabarmentzen eta ez da eremu bakar bat aintzat hartzen, esate baterako lana, proiektuaren helburua beste bat da-eta. Hala eta guztiz ere, ezin dugu ahaztu testigantzen inguruko, esperientziak dokumentatzeko eta esperientzia horiek Eibarko historia eta ondaretzat jotzeko interesa duen testuinguruari buruz ari dela.

Eibarko ondare kultural eta historikoa berreskuratu eta zabaltzera dedikatzen

den Ego Ibarra Batzordearen existentziak berak agerian uzten du interes publikoa eragiten duela gai horrek, eta gai askorekin lotutako ekimen ugari antolatzen ditu Batzordeak.

Eibarko Udal Artxiboa eta ikastetxeen arteko elkarlanak ere -Itzio DBH Ikastetxe Publikoa, esate baterako- beste lan-ildo bat sortu du; unitate didaktikoak egin dira, kasu honetan, hautazko ikasgai baterako: herriko ondarea eta kultura gorde eta berreskuratzeko tailerra. Nabarmenezkoa da, beraz, Artxiboa eta ikastetxe baten arteko elkarlana izatez gain, tokiko ondareari buruzko eskolako ikasgai bat sortu dela.

Ondarearen inguruko lanez gain, Eibar industria-ondarea gorde, ikertu eta hedatzeko hainbat ekimen egin diren herrietako bat da; eta herriko industriaren memoriaren gaineko proiektu asko dago Eibarren. Horien artean ondorengoak aipa daitezke: Armeria Eskolak 90. hamarkadan egin zuen erakusketa; estatu mailan industria-eraikinak babesteko lanean ari diren elkarteak, eta Euskal Herri mailakoak ere bai; Ingeniaritza Eskolak egindako proiektuak, Eibarko Plan Nagusian egindako beste batzuk –Ego Ibarren bitartez-, eta hainbat unibertsitatetan egindako tesinak; dokumentalak, ar-

gazki-liburuak eta artikulu akademikoen liburuak; horma-irudi bat; eta, jakina, Alfa eta Armagintzaren Museoa. Haien balioa edo kalitatea gutxietsi gabe, proiektu horietako batzuk Eibarko bizilagunen eta emakumeen parte batentzat nahiko urruti daude –Emakumearen Mahaiko eta proiektu honetako emakumeentzat bai behintzat-, ez baitira ordezkatuak edo proiektu horietako parte sentitzen.

Proiektu hau burutzen ari ginenean Museora egin genuen talde-bisitan komentatu zen bezala, «museo hau industrian oinarritzen denez (fabriketan) ez da emakumeek egindako lana apenas agertzen, lan hura, emakumeek, etxeetan egin zutelako (nahiz eta industriarentzat izan), eta fabriken produkzioarekin zuzenean lotzen ez den lana ere ez dela jasotzen» diote parte-hartzaileek. Epaia horren zuzentasunetik harago, begi bistakoa da aipatutako industria-ondareari buruzko proiektuetako askok ez dutela genero-ikuspuntua kontuan hartzen, eta erretratatu edo gorde nahi diren eraikin horietan egindako lana ez dutela aintzat hartzen. Agian, kasu batzuetan, ondarea ikuspuntu disziplinario espezifiko batetik lantzen dutelako, arkitektonikoa edo urbanistikoa, esaterako. Izan arrazoi horienatik edo beste batzuenatik,

proiektu horietako askotan ez dira industria eta eraikin horien birmoldaketek eta aldaketek pertsonengan –eta emakume langileengan– izan zituzten eraginak jasotzen. Hala ere, industria-iragana gorde eta zentzua edo balioa emateko etengabeko ahalegina erakusten dute, eta baita hori egiteko interesa duten gobernu-eragile, akademiko profesional eta sozialak badaudela ere.

Aipatutako proiektu guztiek adierazten dute industria-ondareari heldu eta ondare horrekin lotzeko moduak askotarikoak direla; eta hainbat eragilek ekin dietela tokiko iragana gogoratzeko ekimenei. Horrez gain, agerian uzten dute, emakumeen ikuspuntuarekin, bizi izandako esperientziarekin eta genero-ikuspegitik egindako hausnarketarekin aberastuko dituzten baliabideak izatea ere beharrezkoa dela. «Aztarnak» proiektuak garrantzi handiagoa hartzen du Eibarko historia eta memoriaren inguruko beste proiektu eta interes batzuekin uztartu daitekeela egiaztatzen denean.

## EMAKUMEEN LANAREN AITORTZA

«Aitortza» da emakumeen eskaeretakoa bat. Alde batetik, emakume langileen gaitasun edo abilezia espezifiko batzuk aintzat hartu direla onartzen da,

adibidez, beste leku batzuetatik Eibarko emakume beharginen bila etortzen zirenean lan fina edo espezializatua egiten zekitelako; horrek gremioan edo industria-alorrean bertan aitorpena ematea esan nahi du: «Nire sasoiari emakume askok egin zuten lan Alfan. Goretsi egiten zituzten, oso ondo egiten zutelako lan eta oso trebeak zirelako».

Bestetik, guzti horretatik harago, argi esaten da «emakumeek ez dutela inoiz gizonak adina errekonozimendu jaso», hain zuzen, Eibarko historian edo memoria kolektiboan emakume gutxi eta emakumeen jarduera gutxi dagoela; emakumeen ekarpenengatik estimua adierazten duen espazio edo baliabiderik ez dela egon. Herrian zabaldua dagoen ideia da «eibartarrek badakitela emakumeek –edo batzuek zehazki– zenbat lan egin duten, baina herritar guztiek ez dakite, eta batez ere gazteenek. Hala ere, belaunaldi-kontuetatik harago, parte-hartzaileen taldean ere zaila izan zen emakume protagonista edo garrantzitsuak edo herriarentzat garrantzitsuak izan ziren ekintzak gogoratzea... «ez ditut gauza asko oroitzen, baina Eibarren ziur nago gauza asko egin zituzten emakumeak egon zirela», dio emakumeetako batek. Proiektuak berak elkar ezagutzeko balio izan du, euretako bat aitzindaria izan zela, beste batek hura





13-X-29

Eibarko Udal Artxiboa  
Archivo Municipal de Eibar

eraiki zuela edo beste hark ez dakit zer ekarpen egin zuela jakiteko. Taldeak on-dorioztatu du hori guztia «gehiago eza-gutarazi beharko litzatekeela».

Egia da aitortza publikoa egin izan zaiela hainbat emakumeri, zehazki Mercedes Kareaga eta Tere Gantxegiri. Beste emakume batzuekin batera, horien artean Carmen Apellaniz eta Felisa Loyola, *Goi-Argi* emakumeen elkarte sortu zuten 1951n. Hura izan zen emakumez soilik osatutako estatuko lehenengo elkarte eta Eibarko emakume askorentzat elkartu eta trebatzeko gunea izan zen<sup>62</sup>.

Emakumeen erakunde aitzindari baten ikurra izateaz gainera, Mercedes Kareaga garapen eta ongizatearekin lotutako hainbat proiekturen bultzatzailea ere izan zen, ibilbide luzea izan zuen lan sozial eta ongintzakoetan eta hainbat errekonozimendu publiko egin zitzaizkion: 1974an omenaldia jaso zuen, Eibarko Udalak eta herriko hainbat elkartek antolatutako ekitaldian eta «grabadore bola» jaso zuen, urtero Eibarko pertsona nabarmenei ematen zitzaaien oroigarria. Udalaren web orrian «Historia egin duten emakumeak» epigrafean azaltzen diren lau emakumee-

tako bat da Mercedes, eta gainera, kale bati haren izena jartzea ere proposatu da (2012) –oraindik zehaztu gabe dagoen proiektua-. Horren inguruan, proiektuko parte-hartzaileetako batek gogoan dauka: «Sasoi hartan Emakumearen Mahaian nengoen eta eskaini ziguten kalea ez zitzaigun gustatu, esan genuen han ezetz. Peorarik ere ez dago eta esan genuen kale hura ezetz; ez dago peorarik ez ezer! Ezta pentsatu ere!». Mercedes Kareagaren zeregina aitortzeko udal-ekintza horiez gain, besterik ere izan da, adibidez, ...eta kitto! Euskara Elkarteak, Mercedesen biografia argitaratu zuen 2006an eta Eibarko Elkarte Filatelikoak Mercedes Kareagaren jaiotzaren mendeurrenaren zigilu-marka atera zuen 2008an.

Tere Gantxegik ere jaso du aitortzarik. 2010ean Gure Balioak Saria eman zioten, Debegesa Debarreneko Garapen Ekonomikorako Agentziak bultzatutako ekitaldian. Emakume parte-hartzaileek ere aitortza egin nahi izan diote, informalagoa, haren lana gorai patuz. Gantxegik eskainitako doako aholkularitzari esker emakume askok «inguruko fabriketan egin zuten lan, pentsioak kobratu ahal izan zituzten eta baita alarguntza-

62. Informazio gehiagorako ikus Arantxa Lasaren, *Historia de las Mujeres...*, 124-125 or.

**Eibar, 1958ko maiatzaren 15a.**  
**Zalla ebaketa eta jantzigintza akademia.**

EIBARKO UDAL ARTXIBOA. CASTRILLO ORTUOSTE FUNTSA.



*Eibarko Udal Artxiboa*  
*Archivo Municipal de Eibar*

pentsioak ere». Terek kontatzen duen moduan, bere inguruko pertsoneri laguntzeko interes pertsonala zuen –bereizketarik egin gabe-, legeria aplikagarriak eta gizarte zerbitzuen kudeaketa-moduak ezagutu eta ulertzeko gaitasuna, eta urteetako esperientzia eta kontaktu ugari ere bai, eta horri esker, aholkularitza-lan horrek gaur egun arte iraun du, Terek laguntza edo informazioa ematea deitzen diona:

*Batek esaten dit: «nire amak ez zuen pentsiorik eta zuri esker lortu zuen». SOVI zeritzona (Zahartzaro eta Baliaezintasuneko Nahitaezko Sorospena) 67. urtera arte bost urtez lan egin zutenentzat lortzen zen. Beste gauza interesgarri bat ere badago, adibidez gurasoak zaindu behar zituenez neska ezkongabe batek, 45 urte baino gehiago bazituen eta, gutxienez, gurasoekin –edo familiarekin– bost urte bazeramatzen, orduan gurasoen pentsioa alabarentzat izaten zen, kotizatu beharrik gabe. Jendeak gauza asko ez zekizkien. Laguntza horiek, ikasketena bezala, ez ziren asko baina behintzat liburuentzat ematen zuen, eta hori benetazko laguntza zen».*

Euren etxeetako tailerretan lan egin zuten emakumeen pentsioei dagokienez, ez zen inoiz eskaera kolektiborik egin, «banan-banan eskatu ziren, baina SOVI-a hasi zenean, Elgoibartik, Plaentzitik eta beste leku askotatik etortzen hasi ziren laguntza hura eskatzera, baina une hura izan zen bakarrik, gero ez zen gehiago gertatu», gogoratzen du Terek.

## **Emakumeen aztarnak industrializazio prozesuan**

Proiektua garatzen jardun genuen denboran beste emakume batzuen izenak ere gogoratu ziren, ezohiko lana egiteagatik, izan zuten prestigioarengatik eta esparru ezberdinetan (medikuntza, finantzak, politika, kultura, hezkuntza) aitzindari izateagatik nabarmendu ziren emakumeak, eta publikoki gogoratuak eta aitortuak izan beharko liratekeenak. Baina proiektu honetan emakumeek Eibarko industrializazio-prozesuari egin zioten ekarpenak ikusgai jartzea da garrantzitsuena, emakumeen esperientzia hura adierazten duten gai, espazio eta ekarpen ugarien berri emanez, eta horretatik lehenetsi dira nabarmendu nahi diren hainbat aztarna.



**Eibarko industriaren museoko ekimena**

## EMAKUMEEN AZTARNAK SARE EKONOMIKOAREN INDAR ERAGILE GISA

Emakumeek tailerretan edo familia-negozioetan egindako lana «laguntzaile-lan» moduan ulertu izan da, baina lan hura «Eibarko ekonomiaren zutabea» izan dela ezin da ukatu, edo beste modu batean esanda, sare ekonomikoaren indar eragile garrantzitsua izan da, hainbat ekarpen egin ditu-eta.

### • *Eibarko ekonomiari ekarpena*

Emakumeek oso ekarpen ekonomiko garrantzitsuak egin zizkioten Eibarri, familien ekonomiari ez ezik industriari ere lagunduz: fabriketan lan eginez, askoz ere merkeagoak izanez eta lanik errepikakorrenak eta prekarioenak eginez.

Lan-merkatuaren barruan eta hortik kanpo egin zuten lanak, goi-mailako ikasketak egiteko aukera eman zien XX. mendeko 70. hamarkadatik aurrerako familietako belaunaldi gazteei: «emakumeak irabazten zuen dirua seme-alabentzat zelako, haien hezkuntzan

inbertitzeko». Pertsona eta familia haien-  
tzat aukera izateaz gain, Eibarren gara-  
penarentzat ekarpena ere bada;  
parte-hartzaileek gogoratzen dute Eiba-  
rren oso eskolatzeko-maila altua egon izan  
dela.

### • **Familia-ekonomiaren gestioa**

Emakume askok bere egiten zuten fa-  
milia-ekonomiaren antolatzaile- eta ku-  
deatzaile-rola. Proiektu honetako  
parte-hartzaileek gogoan duten mo-  
duan, euren amek etxeko kideen»jorna-  
laren sobrea hartzen zuten» eta zeuden  
premien arabera banatu. «Botere handia  
zuten etxean sartzen zena erabiltzeko or-  
duan: dirua eta gainontzeko ondasu-  
nak». Genero-rol tradizionala izan arren,  
garrantzitsua da zeregin hura ikusgai jar-  
tzea, familia-ardatzaren inguruan anto-  
latutako ekonomia-ereduari eusteko  
«oinarria delako», eta eredu horren in-  
guruan hazi ziren belaunaldiak eta oina-  
ritu zen Eibar industrialaren garapena.

AZTARNAK BIZITZARI EUSTEKO  
ZEREGINEAN

Emakumeen ardurapean zegoen  
etxeko lan amaiezinak «familiari egon-  
kortasuna» ekarri zion. Are gehiago: bi-

zitza pertsonal eta familiarraren gara-  
penaren oinarria izan zen. Jarduera horien  
artean zeuden etxeko antolaketaren ar-  
dura (garbiketa, alimentazioa, arropak,  
gestioa), seme-alaben hezkuntza, «esko-  
lako bileretara joatea», «pertsona nagu-  
siak eta gaixoak zaintzea», «guztiaren  
jakitun izatea», etxeko eta bertako ki-  
deen «ardura guztiak eurengan har-  
tzea», eta, gainera, senarrei «laguntzea,  
haiek aurrera egiteko eta profesionalki  
garatzeko behar zuten oinarria eskainiz».  
Etxekoandreek, eta baita gainontzeko  
emakumeek ere –etxetik kanpora ere lan  
egin dutenak kontuan hartuz-, ez dituzte  
«deskuidatu» gurasoak, etxean zituzten  
senideak, senarrak eta seme-alabak –eta  
gaur egun bilobak- Hori egiteak berdin-  
tasun eza dakarren genero-rol bati eran-  
tzuten dio, baina lan horrek  
gizartearentzat zein eragin eta balio sa-  
kona izan zuen adieraztea garrantzitsua  
da.

EMAKUMEEN AZTARNAK  
LAN-AUKEREN IREKIERAN ETA  
BERDINTASUNEZKO LAN-EREMU  
BATEAN AHALDUNTZEKO

Herri eta lan-eremu irekiago eta esku-  
ragarriagoen eraikuntzan bi elementu  
nabarmentzen dira, alde batetik, per-



**Memoria kolektiboa lantzeko saioa. Eibarko industriaren museora egindako bisita**

tsona desgaituentzat proiektu baten buru izan ziren emakumeen ahalegina dugu, eta bestetik, eurentzat eta beste emakume batzuentzat «bidea egin» zuten emakumeen eguneroko zereginak eta borroka ditugu, zeinak baldintza mesedegarriak ekarri zituzten emakumeak ahalduzko. Kasu bietan laguntzen da testuinguru irekiago, inklusiboago eta berdina eraikitzen.

**• Lan-munduan txertatzea eta industria inklusiboa**

Goi-Argik, eta Mercedes Kareagak bereziki, Eibarko gizartearentzat eta industria-sarearentzat garrantzitsua izan zen proiektu bat bultzatu zuten, desgaitasuna zuten pertsonen lan-aukerak eskainiz. Goi-Argiko beste sortzaileetako batek horrela gogoratzen du:

*Mercedesek herriaren premiak ikusten zituen; udaletxeko Batzordean zegoen bera. Donostian Gureak tailerra sortzen ari zela jakin zuen –*

*munduko diru-laguntza guztiekin, eta hura Eibarrera ekartzea nahi izan zuen; honela zioen: «Eibar industrialada, zergatik ez dugu hemen desgaituentzat ezer, gainerakoentzako badaukagu-eta?». Eta Eibarren horrelako zerbait egitea eskatu zuen, baina ezetz esan zioten, ez zuten nahi izan. Eta Mercedesek esan zuen: «Oso ondo, laguntzen ez badigute guk egingo dugu!». Eta hasi egin ginen. Inolako diru-laguntzarik gabe lanari ekin genion, eurek zuten tailerren: Cayetano Kareaga. Herrian dirua biltzen genuen. Eta gero, herriak berak eman zigun desgaituentzat lana. Eibarko tailerrak bisitatu genituen, desgaituentzat lana (enkar-guak) eskatzeko, eta harrera egiten ziguten. Erantzuna ona izan zen.*

Lehenengo tailerra, Talleres Protegidos Cayetano Kareaga izenekoa, 1973an sortu zen; indarra hartu zuen, eta sortu eta urte batzuetara Gureak-en sartu zen. Ekimen berritzailea izan zen eta ordaindutako lan-merkatu sartzeko aukera eman zien ordura arte aukera hura izan ez zutenei; lehenengo tailerrak sei langile

izan zituen eta Gloria Kareaga izan zen zuzendari; handik bi urtera beste tailer bat inauguratu zen, hogeitaz zituen lanean eta bi monitore berri; tailerra handituz joan zen, alde batetik fakturazioa hazten zihoalako eta bestetik, beste diru-iturri batzuk ere lortu zituztelako, hala nola, Goi Argiko bazkideek lortutako dohainak eta aurrerago etorriko ziren laguntza instituzionalak<sup>63</sup>.

Elkarrizketatutako Goi Argiko sortzailak azpimarratzen duen moduan, proiektua, populazioaren zati bati lan-aukerak eskaintzeaz gainera, oso lagungarria izan zen desgaituen integrazioa bultzatzeko, haien balorazio sozialerako espazioak zabaltzeko eta euren arteko elkarbizitza-espazioak sortzeko, haien ongizatearen mesederako. Gainera, Eibarrek, eta zehazki enpresariak, solidartatea eta egoera berriei erantzuteko gaitasuna erakusteko ere balio izan zuen.

63. Tailer horien sorrera eta eboluzioaren inguruko erreseina Mercedes Kareagaren biografian irakur daiteke, Ego Ibarren web-orrian: <http://egoibarra.eus/es/eibarreses/mercedes-careaga-gisasola>



- ***Belaunaldi gazteagoetako emakumeentzat lan-aukerak eta ahalduntzea***

Oinarrizko beste ekarpenetako bat emakumeen belaunaldi berriei bide berriak zabaltzea izan da. Alde batetik, sortzeko aukera izan zuten eta erreferente izan ziren emakumeak ditugu: emakume eibartar aitzindari eta ekintzaile haiek lehenak izan ziren lan jakin bat egiten –gizonezkoentzat jotzen zena-, «lehendik zegoenarekin antzik ez zuen» edo oso arriskutsua zen negozio jakin bat jartzen edo botere-kargu bat betetzen, hain zuzen ere, ausardia, indarra, inizatiba, sormena eta berrikuntzarako gaitasuna erakutsi zuten emakumeak izan ziren.

Eta bestetik, euren etengabeko lanarekin era guztietako lanbideak eta ohiko postuak bete zituzten emakumeak ditugu, emakumeen ordaindutako lana normalizatu eta balioa eman zioten emakumeak, hain justu.

Taldeak dioen moduan «zaila da emakume haien aztarna ikustea, Eibarren, emakumeak lanean jardutea, ez zaigulako sekula arraroa egin», baina lan honetan egindako atzera begirako bisioak agerian uzten du Eibarren historian zehar espazio mugatuak, edo baita debeka-

tuak ere, egon direla emakumeentzat, eta emakumea lan-merkatuan sartzeko eta haien lana zuzen baloratzeko eragozpen juridiko, sozial eta kulturalak jasan izan dituztela hainbatetan. Proiektuko emakumeek Eibarren emakumeen kontrako aurreiritzirik egon ez dela behin eta berriz esaten duten arren, onartzen dute emakumeek lan eta postu jakin batzuk betetzea ez zela ohikoa eta, ikusi dugun moduan, anekdota askotan jasotzen da hainbat gestio edo negozioazio egiterakoan enpresariak edo bezeroak emakume batekin topo egitean –lehenengo aldi behintzat– hartzen zuten ezustekoa. Gauzak asko aldatu dira eta orain ohikoagoa da –eta naturalagoa– emakumeak enpresaburu izatea, furgonetak gidatzea edo edozein makina manipulatzeko. Horregatik, garrantzitsua da onartzea, «bidea zabaltzen joan dela eta emakumea gizarteko beste elementu bat bezala ikusteko eta normalizatzeko oinarriak ezarri direla. Egindako bidea da, beti izango da zaila eta berriz ere egin beharko dugu bide hori jende askorentzat», laburtu du emakumeetako batek.

Horrekin batera, erreferente diren emakumeen ekarpena azpimarratzea garrantzitsua da, emakume aitzindari zein beharginena, eragozpen handiei aurre eginez emakumeen independentziaren



1946. urtea. Makina-probalekua. ALFAko puntada saila.

EIBARKO UDAL ARTXIBOA.



alde eta haien lan-baldintzak hobetzeko borrokatu zuten emakumeena, eurek finkatu zutelako emakumeak ahalduztzeko egiazko aukerak eta baliabide sozial eta sinbolikoak biltzen zituen testuingurua.

## EMAKUMEEN AZTARNA EIBARKO ONDAREAN

### • *Damaskinatuan*

Aipatu den bezala, emakumeek, Eibarko kultur eta industria-ondarearentzat ezinbestekoak izan diren hainbat lanbide bete izan dituzte, baina damaskinatua beste lanbideetatik nabarmendu egiten da hainbat arrazoiengatik: duen berezitasunarengatik, denboran zehar izan duen esanahi ekonomiko eta sozialarengatik eta egindako ekarpen espezi-fikoarengatik. Damaskinatua Eibarko nortasun industrialaren marka bihurtu da.

Damaskinatuaren jatorria Zuloagata-rrekin lotzen bada ere, XX. mendean emakume-izena hartu zuen: emakume damaskinatzaile asko egon dira, batzuk nabarmenak eta oso ezagunak gainera, hala nola, Felipa Gisasola Ron eta María Asunción Nogués Martitegui, baina ezin

dugu ahaztu euren etxe edo tailerretan lan egin zuten emakume anonimo ugari ere egon zela. Jarduera horren tintin-hotsa Eibarko belaunaldi askoren memorian gordeta gelditu da; herriko auzo askotan entzuten zen tintin-hots hura, Txontakoan bereziki.

### • *Industria-ondarea gorde eta zabaltzeko ekimenetan*

Parte-hartzaileek ondorengo eskakizuna ere egiten dute: aitor dadila gaur egungo Armagintza Museoaren existentzia bada, proiektu horretan, bilduman, zaintzan eta garapenean emakumeek egindako lanari esker dela.

Emakumeek Museoaren fundazioan (1914) eta lehendabiziko urteetako garapenean –Museoa Armeria Eskolako parte zenean- parte hartu ez bazuten ere, 2000. urtetik aurrera, udaletxearen esku gelditu zenean, emakume historialari, arte-zaindari, gidari eta bestelako funtzionarioak izan dira Museoari bizi berria eman diotenak. Hainbat urtez proiektu ezberdin baten inguruan egin zuten lan eta, azkenean, Museoak ateak zabaltu zituen berriz ere 2007. eta 2009. urteen artean. Armagintza ezagutzera eman eta industriaren historia berria

barne hartzea –ikuspegi zabalago eta dibertsifikatuagotik- emakumeen lanaren emaitza da. Gaur egun ere emakumez osatutako plantillak eta Eibarko industria-ondarea ikertu, gorde eta zabaltzeko egiten diren ahaleginek eusten dute Museoa.

### • **Euskal lur eta kultura**

Industria-eremutik harago, lan hone-tan nabarmentzea merezi duen beste az-tarna bat ere azpimarratu nahi izan da. Parte-hartzaileentzat, baserria, landa-on-darea eta euskal kultura-ondarea babes-ten dituen lekua da. Eta emakumeek izan dute ondare horren zaintzan fun-tziorik garrantzitsuena. Emakumeen kontakizunaren arabera, baserrietan gorde ziren hainbat euskal ohitura eta nortasun-iturri, hala nola merkatua.

*Hainbat tuberkulu mota eta beste laborantza-espezie propio batzuk gorde ziren. Mendi eta errepideen zaintzan ere euren ekarpena egin zuten, eta hori oso garrantzitsua da mendian ibiltzea gustatzen zaienentzat. Baserriko lana ahuldu edo ekoiz-pen- eta kontsumo-modu batzuk uzten joan ahala, mendiak deskui-datu egin ziren, eta bertako espezie batzuk galdu.*

Era berean, landetxeak –asko eta asko emakumeek kudeatutakoak-, landa-espazioak eta kultura zaindu eta sustatzeko modua ere badira.

Azkenik, baserriak berak eta baita «kaleko» hainbat emakumek ere, bereziki andereñoek, euskara zaindu eta transmititzeko egin zuten lana ere ezin da ahaztu.

Emakumeek Eibarko industriaren his-toriari eta ondarea sortu, zaindu eta he-datzeari egin dieten lorpen eta ekarpen bakoitzaren atzean, berdintasun eza, dis-kriminazio eta ikusezintasunez beteriko borrokak eta injustiziak daude. Hala ere, askatasun, poztasun, ahalegin eta harro-tasunez betetako bizipenak ere badira, direna direnagatik, egin dutena egitea-gatik.

## «Eibarren emakumeek egin dutena ezagutarazi dadila»

Emakumeek Eibarko industrializazio-prozesuan izan zuten parte-hartzeari buruzko kontakizun honek, hasieran esan den moduan, begirada desberdina eskaintzea nahi du, Eibarko historiari buruzko beste kontakizun batzuk osatzeko – beste batzuetan aurka ere egingo die. Proiektu honekin bat egin duten emakumeek historia honen bertsioan pentsatu, anekdotak eta bizipenak gogoratu, ideiak kontrastatu eta hausnartzea nahi izan dute, Eibarren emakumeek izandako funtzioa ikusgai jartzeko eta haiek egindako lana eta ekarpenen aitortpena eskatzeko. Eskakizuna garbia da eta aipatu dugu jada: ikusgaitasuna nahi dute, «publizitatea» nahi dute, aitortza nahi dute.

Etorkizunera begira, asmoa edo desioa, kontakizun hau, eskoletan edo belaunaldi berrien artean zabaltzea da, eta baita «nagusiek gogoratzeko eta gazteek ikasteko materiala» izatea ere, elkarriketarako tresna da-eta.

«Balio mordo bat» jakinarazteko palanka izango dela espero da, «kokiltzen ez ziren emakume behargin eta ausar-

ten» eta haien izaera eraiki duten ama eta amamen esperientziak transmititu ahal izateko: «gure amek beharginak, zintzoak, ekintzaileak eta solidarioak izaten irakatsi digute».

Eta, batez ere, justizia-aldarrikapen bat dago. Borroka eta lorpenak eta baldintza gogorak oroitzea, eta iraganeko eta oraingo injustizia-egoerak bereiztu eta izendatzea «berdintasun-balioaren garrantziaren inguruan» hausnarketa egiteko modu bat dira.

Eibarko memoriaren –eta bereziki emakumeek bertan utzitako aztarnaren-berreraikuntza kolektiborako proiektu hau proposatzerakoan, Mahaiko emakumeek berdintasunaren aldeko beste babes bat sortzeko aukera ikusi zuten. Proiektua Eibarko industrian oinarritzea, non «hainbeste eta hainbeste emakumeek jardun duten», aberasgarria izango zela pentsatu zen, denboran zehar izandako jarraitutasunak eta hausturak ezartzea ez delako erraza eta garrantzitsua da horiek guztiak orain ikustea. Iraganeko egoera askoren ondorioek bizirik diraute gaur egun, eta injustizia aipatzea inportantea da, hura zuzendu edo aurrea hartzeko eta baita gauza onak gogoratzeko ere, alde batetik, jarrerari begira: ekintzailtza, balentria, elkartasuna etb.,

eta bestetik eskubide eta lorpen sozialei begira, gida moduan edukitzeko. Eibarko industrializazioa bezalako hain prozesu ekonomiko eta sozial garrantzitsuan emakumeek bizi izandako esperientzia kontatzeak, emakumeek kontatua edo gogoratua, eta hausnarketa moduan planteatua, iragan hura baloratzeko eta eztabaidatzeko balioko digu, eta oraina eta «nola egon nahi dugun» pentsatzeko.

Diskriminazioa aitortzeko, horren kontra egiteko eta berdintasunean aurrera egiteko atzera begiratu beharra dago emakumeek esparru ezberdinetan, kasu honetan lan-esparruan, izan duten parte-hartzea ikusteko, protagonista eta eskubidedun moduan aitortu behar ditugu, eta lekzioak atera ere bai, zerbitzuen Eibar berri honen etorkizuna begiztatzeko, krisi ekonomiko eta finantzarioak markatutako testuinguruan. Taldeak egindako galderak zabalik daude:

*Zein gizarte mota dugu eta noraino iristen gara? Zein alde dago oroitzen dugun errealitate haren eta gaur egunaren artean? Lanean ba al dago berdintasunik emakume gazteentzat? Eta borroka honetan, lortzen ari al gara nahi dugun berdintasun hori?*

## epilogo

**E**makume langileen memoria berre-raiki eta ikusgai egiteko proiektu hau prozesu kolektiboa izan da. Hau da, epe jakin baten barruan hainbat ekintza egiteko lankidetzan, ahaleginetan eta partekatutako jakiturian oinarritu da. Denbora horretan ikuspuntu feminista duen kontakizuna sortu ahal izan da pixkanaka, iraganari buruzko ideia garrantzitsuak adieraziko dituen kontakizuna.

Emakumez osatutako talde zabal, aldakor eta anitzak eraiki duen kontakizun honek ez du anekdota-bilduma bat izan nahi, baizik eta hausturak eta jarraitutasunak, lorpenak eta atzerakadak eta berdintasunerantz joateko eta berdintasunerako lekzioak identifikatzeko abiapuntu izan nahi du. Halaber, eta nahiz eta kontakizunaren idazketak proiektu zehatz baten itxiera adierazi, emakumeen memoria berreraikitze prozesua eta oroitzapen publikoan ezartzeko ahaleginak ez dira dokumentu batekin amaitzen, baizik eta kontakizun honetan abiapuntua aurkitzen duten beste dinamika eta ekintza batzuen parte dira.

Lan-prozesua hainbat hilabetetan burutu da, elkarrizketan jarduteko, informatzeko, kontrastatzeko eta ikasteko aukera eskaini du eta taldeak estimatu egin du.

Urtebetez, 2014ko abendutik 2015eko abendura bitartean, hamar talde-saio egin ziren, eta adin, jatorri eta ibilbide laboral eta pertsonal ezberdinetako emakumeek hartu zuten parte. Saio horietan era askotara egin zen lan, beti ere elkarrizketa bilatuz, informazioa, datuak edo oroitzapenak bilduz, orainalditik eta etorkizunera begira, iraganari buruzko hizketaldiak pizteko.

Partekatutako oroitzapenen ohiko saioez gain, bi saio berezi egin ziren. Bata Armagintza Museora egindako bisita izan zen; Nerea Alustiza izan zen gidari eta Eibarko industrian emakumeek izan duten presentzia oinarritu zen. Bigarren saioan, Gorka Castrillo ikerlari eibartarrak egindako *Re-fotografia en Eibar* izeneko proiektuarekin hartu-eman sortu zen, Udal Artxibo Historikotik eta artxibo pribatuetatik zetozen eta Gorkak dokumentatu dituen argazkiak erabili zituzten oroitzapena eta hausnarketa pizteko. Iru-dien laguntzarekin emakumeen lana, bitzita edo testuinguru sozialaren hainbat alde argitu edo nabarmendu zituzten.

Gainerako saioetan taldeetan egin zuten lan eta teknika ezberdinak erabili ziren, alde batetik, oroitzapena sustatzeko eta, bestetik, talde-elkarrizketan agertzen joan ziren oroitzapen, izen, pertsonaia, enpresa, egoera, gertaera, data, etxe, kale, denda, lanbide... ugariak argitzen eta hausnarketa kritikoa egiten laguntzeko.

Saio horien helburua, taldean, Eibarko industria-sasoia emakumeen ikuspuntutik eta esperientzietatik gogoratzea izan zen eta baita hartu-emanerako, ikasteko, topaketarako eta hausnarketarako espazio bat sortzea ere.

Talde handian egindako lan horrekin batera, talde koordinatzaileak bilerak eta elkarrizketak egin zituen Eibarko Berdintasun Saileko langileekin, Emakumearen Mahaiarekin eta beste hainbat emakumerekin, elkarrekin zein erakunde publikoetako ordezkariekin, eta haien ikuspuntu eta ekarpenak lagungarriak izan ziren taldean eraikitzen ari zen kontakizuna osatu, zehaztu edo kontrastatzeko. Informazio hori, bigarren mailako beste iturri batzuetatik lortutako datuekin batera –liburuak, artikuluak eta audio-artxiboetan argitaratutako elkarrizketak (Eibartarren Ahotan proiektukoak adibidez)-, taldearen eztabaidan txertatu zen, bertara eramandako galde-



ren bitartez eta zenbait gertaeraren inguruan parte-hartzaileek zituzten ideak eztabaidatuz edo sakondu nahi edo berresanahia eman nahi zitzaizen gaiak planteatuz.

Halaber, oroitzapen-saio guztien laburpenak egin ziren eta Emakumearen Mahaiari eta ohiko parte-hartzaileei helarazi zitzaizkien bertan bildutakoa osatu edo retroelikatu zezaten, eta saioetako batera joaterik izan ez zutenek gairik garrantzitsuenen berri izan zezaten.

Bildutako informazio guztiarekin zirriborro bat egin zen eta hainbat mekanismoren bitartez egiaztatu zen. Egiaztapen horren helburua idazkiaren egitura eta itxura argiak ote ziren jakitea izan zen, informazio-hutsuneak, zehaztu beharreko datuak edo kontuan hartu beharreko ñabardurak identifikatzea, eta, batez ere, Eibarko emakumeek, eraikitako kontakizunean, euren burua eta euren herria identifikatzen zuten jakitea, eta ia kontakizunaren egiletza errekonozitzen ote zuten. Horretarako, zirriborroa taldean banatu eta interesa izan zezakeen edozeini –posta arrunta edo elektronikoaren bidez– eman, iritziak jasotzeko moduak eta epeak zehaztu eta iturri eta testigantza berriak aportatzeaz gain, bi egiaztapen-saio egin ziren. Bata Emakumearen Mahaiko kideekin, eta

bestea talde handiarekin, baina betiko moduan publiko guztiari irekia izan zen. Azkeneko saio horretan hainbat parte-hartzaile berri eta Berdintasun Saileko Teknikaria agertu ziren. Saio horiek egiteaz bat, retroelikadura eskatu zitzaizen ezagutza informatuagoa izan zezaketen pertsoneri: Armagintza Museoko historia-lari eta langileei.

Prozesuaren fase horri esker, hainbat eztabaidagai eta autokritika planteatu ziren, eztabaidak eta bertsio berriak identifikatu ziren narrazio-puntu batzuen inguruan, eta bertsio hau osatzeko irizpideak eta lehentasunak elkarrekin eztabaidatu zituzten, osatugabea dago eta. Agerian gelditu zen, prozesuan zehar emakume gazteek izandako parte-hartze txikiaren ondorioz –oraingoz behintzat–, belaunaldi arteko kontrapunturik gabeko kontakizuna izango zela. Halaber, militante feminista, sindikal eta sozialek parte hartu izan balute, emaitza askoz ere konplexuagoa eta aberatsagoa izango litzateke. Ez da behin betiko kontakizuna, bateratutako oroitzapenek Eibarko emakumeetako batzuk ordezkatzeko dituzte, baina lan-espertzian, ideologian eta adinean desberdinak izan arren, ez dute herriko emakumeen bizimodu, lan eta bizipen anitzak barne hartzen; hala ere, hainbat belaunalditako edo emakume taldetako

emakumeek partekatutako memoriak jasotzen ditu, eta Eibarko gainerako gizar-tearekin batera aintzat hartzeko gaiak eta aldarrikapenak proposatzen ditu.

Proiektuko azkeneko saioan –egiazta-penaren aurretik- atzera begirakoa egin zitzaion lan-prozesuari, eta egiaztatu zen, proiektuan sartu zirenei Eibarko industrializazio-prozesuari emakumeek egindako ekarpenaren inguruko informazioa edukitzeak eta sortzeak, beste ikuspuntu bat, aitortza eta ahalduzko pertsonala eta kolektiboa eskaini dizkiela. Parte-hartzaileetako batek dioen moduan:

*Eibarko emakumeak harro egon behar zarete (gara). Eibarri buruz neukan bisioa aldatu egin da. 26 urterekin etorri nintzen eta Eibarrek herri langile, ekintzaile eta industrial moduan zuen ibilbidea ezaguna nuen, baina beti ere gizonezkoen lanean pentsatuta. Niretako, Eibar, bizikletak, armak eta josteko makinak ziren, baina beti ere gizonen lan moduan ikusita, eta proiektu honi esker konturatu naiz, Eibar industrialaren atzean, emakume asko zeudela, lan handia egiten.*

Oroitzapen-saioak emakumeen artean ezagutzak, bizipenak eta emozioak partekatzeko espazioa ere izan ziren:

*Eibartarra naiz eta, niretako, ezagutzen ez nuen jendea ezagutzea izan da onena. Topaketarako espazioa izan da eta oso esperientzia aberasgarria, guztiek dutelako jakinduria pertsonal izugarria. Emakumeak gogoratzen entzutea gustatu zait. Hura guztia berriz bizitzea bezala izan da. Eibarko errealitatea berriz bizitzea eta bizitako historia berreskuratzea, une gogor, zoriontsu eta oparoekin. Konturatzen naiz asko dagoela egiteko eta idazteko, erakusteko eta ikasteko, agerian gera dadin Eibarko emakumea eredu izan dela. Eibarko ekonomiaren zutabea izan da, ardatza, eredia. Haiek gabe dena erortzen da, baita industria eta ekonomia ere.*

Ekarpenak identifikatu eta esperientziak ezagutu ondoren, emakumeek esan zuten harro sentitzen zirela aurreko emakume haiekin, eta emakumeen ahalduzko bultzatuko duen belaunaldi arteko topaketa bat zehaztu zuten. Gaur egun aitortu eta apreziatu egiten ditugu bidea ireki eta emakumeen lana normalizatu eta balioa eman zioten emakumeek, testuinguru honetan:

*Emakume haiek esaten dutena entzuteak eibartarra izatearekin harro sentiarazten nau. Emakume haiek egindako guztiaren aztarna dugu. Emakume beharginak izan dira,*



### Memoria kolektiboaren saioretako batean erabilitako argazkiak

*ausartak, gogotsuak, kokiltzen ez diren horietakoak. Haiek entzutea eta egiten zutena ezagutzeak pentsarazten dit ni ere haiek bezalakoa izan naitekeela, ni ere ausarta eta ekintzaila izan naitekeela. Lan honetan sakontzen jarraitzea gustatuko litzaidake. Asko dago oraindik berreskuratzeko.*

*Gaztea naiz eta komentatu duzuen gauza asko arrotzak egiten zaizkit. Amama entzunda nuen etxean, aitxitxe ere bai zertxobait, baina hemen kontatu dituzuen gauza interesgarri askoren inguruan ez nekien ezer. Eibarko emakumeen irudiarekin oso pozik noa. Denek esan duzue emakume liberalak, modernoak eta eredugarriak izan direla, eta niri, irudi*

*horrek, harrotasuna sentiarazten dit; nahiko nuke gu ere horrelakoak izatea.*

Irudi eta desio horiek emozioak dakartzate; talde-prozesua gozoa eta eroso izan da eta parte-hartzaileek euren buruarekin eta bizilagun, lagun, ama eta amamekin egin dute topo, eta pozik sentitu dira begirada atzera bota eta egingakoa, lortutakoa eta egiteke zegoena aztertu eta nabarmendu dutelako. Lan honek beste ikerketa-prozesu, proiektu, ekimen eta tokiko ekintza batzuk lagundu edo sustatzea du helburu, emakumeen memoria berreskuratzen eta ikusgai jartzen jarraitzeko, emakume haiek Eibarko memoria historikoaren parte izan daitezen.

## **bibliografia • erreferentziak**

- ARBAIZA, Mercedes, «La construcción social del empleo femenino en la sociedad industrial vasca (1850-1935)», Comunicación presentada en el VII Congreso de la Asociación de Historia Económica, Zaragoza, 2001. Erabilgarri hemen: [www.unizar.es/eueez/cahe/arbaiza.pdf](http://www.unizar.es/eueez/cahe/arbaiza.pdf) (2016/02/21eko kontsulta).
- *Auñamendi Eusko Entziklopedia*. Erabilgarri hemen: <<http://www.eusko-media.org/aunamendi/93460/70716?idi=en>>
- BARCENILLA, Miguel Ángel, «Historia contemporánea de las mujeres en Euskal Herria», hemen: Marta Agirrezabala, et al., *La mujer en Euskal Herria (Hacia un feminismo propio)*, Egileak - Basanere Argitaletxea, Donostia, 2001. 7-63. or.  
- 2013/12/04ko elkarrizketa.
- BEISTEGI, Mainer. «Eibarko emakumeak industriaren gorakadan», *Emakunde Aldizkarian*, 47. zkia., 2002, 26-29. or.
- «Colaboración entre archivo municipal y escuela». Hemen argitaratutako oharra: <http://egoibarra.eus/es/noticias/el-archivo-municipal-de-eibar-y-la-escuela->

itzio-trabajando-en comun?utm\_source=newsletter&utm\_medium=email

- DEL VALLE, Teresa. *Andamios para una nueva ciudad. Lecturas desde la Antropología*, Katedra – Emakumearen Institutua, Madril, 1997.
- Ego Ibarra, «El Archivo municipal de Eibar recupera el texto íntegro del Acta de la Proclamación de la República y el Bando leído la mañana del 14 de abril de 1931». 2016ko apirilaren 14an online argitaratutako albistea, erabilgarri hemen: <http://egoibarra.eus/es/noticias>
- Errenteriako Udala, «Herria ezagutzen», erabilgarri hemen: <http://www.ondarea-errenteria.net/euskara/unitate-didaktikoak>.
- ESPUNY, TOMÀS, María Jesús. «Aproximación histórica al principio de igualdad de género (III): las Reglamentaciones de Trabajo, observatorios de la desigualdad», *IUSLabor*, 2. zkia., 2007. Erabilgarri hemen: [http://www.upf.edu/iuslabor/\\_pdf/2007-2/Historia.pdf](http://www.upf.edu/iuslabor/_pdf/2007-2/Historia.pdf)
- FERNÁNDEZ PÉREZ, Zaida. *Emakumeen aztarnen mapa Basaurin. Mapa de las huellas de las mujeres en Basauri*. Basauriko Udala, Basauri, 2011. Erabilgarri hemen: <http://bit.ly/1WS6XPd>  
- *Emakumeen eta mugimendu feministaren oroimena Ondarroan, euren aztarnen bitartez*. Ondarroako



Udala, Ondarroa, 2012. Erabilgarri hemen: <http://bit.ly/21vPJxN>

- *Azarna Feministak eta Emakumeen Azarnak. Gure Borrokaren Oroimena. Huellas feministas y de mujeres. Memoria de nuestra lucha*, Ermuko Emakumeen Batzarra, Ermua, 2014. Erabilgarri hemen: <http://bit.ly/1KXVmxm>

- FERNÁNDEZ PÉREZ, Zaida eta MACEIRA OCHOA, Luz. «Gaileta-egileak eta gehiago: bizipenetatik historiara. Emakumeen azarnak Errenteriako industrializazio-prozesuan (XIX. eta XX. mendeetan). Galleteras y más: desde las vivencias hacia la historia Huellas de las mujeres en el proceso de industrialización de Errenteria (siglos XIX -XX)», *Bilduma*-n, 27. zkia., 2015, 9-180. or. Erabilgarri hemen: <http://bit.ly/21687YF>

- Gipuzkoako Emakumeen Asanblada, «Dirua emakumeentzat, ez militarrentzat». Erabilgarri hemen: <https://archive.org/details/DiruaEmakumeentzat>

- GOÑI, Igor. «Eibar y la industria armera: evidencias de un distrito industrial», *AEHE-ren IX. Nazioarteko Kongresua*, Murtzia, 2008.

- «La internacionalización de la industria armera vasca 1876-1970. El distrito industrial de Eibar y sus empresas», *ICE*, 849. zkia., *uztaila-abuztua* 2009.

- GOROSPE PASCUAL, Begoña. «Eusko emakumeak: recogiendo su memoria

- desde una mirada feminista», hemen: Karmele Bujan eta Luz Maceira (koord.), *Educación, memoria e historia de las mujeres vascas. Lecturas feministas*, Intxorta Kultur Elkarte, Oñati, 2015, 75-105. or.

- GUTIÉRREZ AROSA, Jesús. *La insurrección de octubre del 34 y la República en Eibar*. Eibarko Udala - Ego Ibarra Batzordea. Eibar. 2001.

- «Identificación de los edificios industriales eibarreses (2016)». Oharra erabilgarri hemen: <http://www.eibar.eus/es/cultura/noticias/completada-la-identificacion-de-los-edificios-industriales-eibarreses-y-finalizada-la-toma-de-datos-del-archivo>

- «Investigación sobre el patrimonio industrial local del arquitecto eibarrés Mikel Aparicio (2015)». Oharra erabilgarri hemen: <http://egoibarra.eus/es/noticias/investigacion-sobre-el-patrimonio-industrial-local-del-arquitecto-eibarres-mikel-aparicio>

- ITUARTE, J. A. Arkotxa. «Homenaje a las alumnas de la Armería», *Eibar ALDIZKARIAN* 110. zkia., 2012, 13. or.

- IZA-GOÑOLA DE MIGUEL, Francisco Javier. «Luces y sombras de la industrialización vasca. 1880-1980», *Euskonews-en*, 629. zkia., 2012.



- «Jornadas sobre Reconversión del Patrimonio Industrial de Eibar». Oharra erabilgarri hemen: <http://www.gipuzkoakultura.net/index.php/es/museos-y-patrimonio/69-arquitectura/2205-jornadas-sobre-la-reconversion-del-patrimonio-arquitectonico-industrial-en-eibar.html>
- *La Gaceta de Eibar*, 1. zkia., 1. urtea, Armagintza Museoa, Uztaila 2012.
- LARRAÑAGA, Ramiro. «El grabado en metales en nuestra industria», *Boletín de la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País*, LX, Donostia, 2004-2, 515-540. or.
- LARRAÑAGA, Ramiro eta ALUSTIZA, Nerea, *El grabado en Eibar*, Eibarko Udala, Eibar, 1996.
- LASA, Arantza. *Historia de las Mujeres de Eibar*, Eibarko Udala - Ego Ibarra Batzordea, Eibar, 2011.
- LOZA, Silvia, RUIZ, María eta TRAN-CHE, Mertxe, *Historia de las mujeres en Irun 1931-1992*, Irungo Udala, Irun, 2011.
- LLONA, Miren. «La realidad de un mito: la aspiración de ascenso social de las modistillas, en el Bilbao de los años veinte y treinta», *Asparkia-n: ikerketa feminista*, 14. zkia., 2003, 139-166. or.
- LUENGO, Félix. «Los comienzos del siglo XX (1903-1931)», hemen: Juan Carlos Jiménez de Aberasturi Corta (dir.), *Historia de Rentería*, Errenterriako Udaleko Kultur Batzordea, 1996, 223-315. or.
  - «La mujer en el movimiento obrero: Una huelga en Rentería en 1920», *Bilduma*, 2. zkia., 1988, 179-186. or.
- MACEIRA OCHOA, Luz. «¿Generizar la memoria? Experiencias y desafíos vascos», hemen: Eusko News, 637. zkia., 2012. Erabilgarri hemen: [www.euskonews.com](http://www.euskonews.com)
  - «La memoria de las mujeres en la vida y en la vía públicas vascas: lecciones contemporáneas», Karmele Bujan eta Luz Maceira (koord.), *Educación, memoria e historia de las mujeres vascas. Lecturas feministas*, Intxorta Kultur Elkarte, Oñati, 2015, 183-216. or.
- MACEIRA OCHOA, Luz eta FERNÁNDEZ PÉREZ, Zaida. «La Errenteria industrial contada por las mujeres», *Oarso-n*, 49. zkia., 2014, 194-196. or.
- MUNARRIZ, Fermín. Teresa del Valleri elkarrizketa, *Gara-n*, 2011. Erabilgarri hemen: <http://gara.naiz.eus/paperezkoa/20110522/267880/es/La-capacidad-negociacion-mujeres-este-pais-es-mucho-mayor-que-hombres>.



- PAREJA, Arantza eta ZARRAGA, Karmele, «Tareas, profesiones y oficios infravalorados», Revista Emakunde, 76. zkia., 2009.

- *Profesiones, oficio y tareas de las mujeres en Bizkaia. Imágenes de ayer y hoy*, Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo, 2006,

- PAUL ARZAC, Juan Ignacio, *Evolución de la industria armera eibarresa*, Gipuzkoako Merkataritza, Industria eta Nabigazio Ganbera, Lasarte, 1976.

- PÉREZ-FUENTES HERNÁNDEZ, Pilar. «Ganadores de pan» y «amas de casa», *Otra mirada sobre la industrialización vasca*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo, 2004.

«Gure Balioak Saria Teresa Gantxegiri».

Oharra erabilgarri hemen:

<http://www.deba.eus/es/actualidad/noticias/el-fallo-del-jurado-del-premio-gure-balioak-2013-se-dara-a-conocer-el-23-de-octubre-en-deba>

- RONCO, José, et al., *Eibar Ciudad Taller*, Ongarri Kultur Elkartea, 2001.

- REKALDE RODRÍGUEZ, Itziar. «Actividades educativo-culturales de las mujeres republicanas en el País Vasco», hemen: Karmele Bujan eta Luz Maceira (koord.), *Educación, memoria e historia de las mujeres vascas. Lecturas*

*feministas*, Intxorta Kultur Elkartea, Oñati, 2015, 23-48. or.;

- SAN MARTÍN, Juan. *El damasquinado de Eibar*, Museoren Udal Patronatua, 1981;

- *600 años de Industria Eibarresa*, Eibarko Armagintza Museoa, Eibar, 2011.

### Legeria

- 1938ko Lan Forua

- 1942ko Lanaren Legea

- 2011ko Nekazaritza-ustiapenen Titulartasun partekatuaren Estatu Legea

### Webguneak

- Andretxea

<https://www.eibar.eus/eu/berdintasuna-andretxea>

- Ego Ibarra Batzordea

<http://egoibarra.eus/es>

- Armagintza Museoa

<http://www.armia-eibar.eus/>



<<< Memoria kolektiboa  
lantzeko saioetako lan-prozesua.  
Proceso de trabajo de en  
las sesiones de memoria colectiva.



Emakumearen Mahaiaren bilera >>>  
Reunión de la Mesa de la Mujer.





Hasbirta, berriak.  
Inauguratuaren kutsuak ikarritikoa izan garenaren,  
inbentarioan ikusitako abuztuenak hasi eta  
Inauguratuarekin batera.

Historia  
Eibarko industria de la memoria kolektiva

Historia  
Eibarko industria de la memoria kolektiva

Memoria kolektiboa lantzeko saioa. Eibarko industriaren museora egindako bisita  
Sesión de la memoria colectiva. Visita al museo de la industria de Eibar.

Archivo Municipal de Eibar